

Zelan txertatu
euskararen garapena

garapen sozioekonomikoan



ERROTARI zuzendutako proposamena



*Ikaslea: Miren Madariaga Tubet
Tutorea: Iñaki Martínez de Luna
2016ko uztaila*



AURKIBIDEA

o. Laburpena	7.or
1. Sarrera	8.or
2. ERROTA	9.or
3. Eskualdeko diagnostikoa	11.or
3.1. Analisi sozioekonomikoa	11.or
3.1.1. Demografia	11.or
3.1.2. Gai sozialak	20.or
3.1.3. Lan merkatua	22.or
3.2. Arratiako Enpresa Sarea	31.or
3.2.1. Nekazaritza eta Abeltzaintza	34.or
3.2.2. Industria eta horri lotutako zerbitzu enpresak	37.or
3.2.3. Merkataritza, Ostatua eta Gastronomia	43.or
3.3. Hezkuntza eta ikerketa	48.or
3.3.1. Formazio eskaintza	48.or
3.3.2. Ikerketa eta Garapena	49.or
3.4. Sektore publikoak zehazturiko planak	50.or
3.4.1. Arratiako Udalen Mankomunitateak zehazturiko Arratia 2020	50.or
3.5. Euskara	53.or
3.5.1. Gaitasuna	53.or
3.5.2. Erabilera	59.or
3.5.3. Euskalduntzea	67.or
3.5.4. Administrazioa (arloan publikoa)	71.or
3.5.5. Irakaskuntza	77.or
3.5.6. Arlo pribatua	90.or
3.5.7. Aisia, kultura eta kirola	92.or
3.5.8. Ziurtagiriak	94.or
3.5.9. Ondorioak	95.or



4. Arratia etorkizunera begira	100.or
4.1. Ikuspegia 2030	100.or
4.2. Jendartea	102.or
4.3. Sektore publikoa	103.or
4.4. Sektore pribatua	104.or
4.5. Jakintza arloa	105.or
4.6. Egindako ibilbidea eta datozen pausoak	106.or
5. Hizkuntzaren garapen iraunkorra garapen sozioekonomikoan txertatzeko proposamena	108.or
5.1. Euskararen marka birdefinitzea	110.or
5.2. Arlo bakoitzerako proposamena	113.or
5.2.1. Jendartea	113.or
5.2.2. Sektore publikoa	114.or
5.2.3. Sektore pribatua	121.or
5.2.4. Jakintza arloa	127.or
5.3. Arloen arteko elkarreragina	130.or
6. Ondorioak	133.or
7. Bibliografia	136.or



0. LABURPENA

Lan honetan Arratia eskualdeko diagnostiko sozioekonomiko eta linguistikoa egin da. Alde batetik, egungo egoera zein den jakiteko eta azken urteetako bilakaera zein izan den aztertzeke; eta bestetik, diagnostikoa oinarri hartuta garapen sozioekonomiko eta linguistikoa arlo guztietan eta zeharkakotasunean gauzatzeko eman beharreko urratsak proposatzeko.

ERROTA proiekturako proposamen zehatza da egindako sakontze egitasmoa; izan ere, eskualdeko arlo desberdinen garapena helburu izanik, arlo horietan hizkuntzaren garapena integratzea estrategikoa izango da Arratia euskalduna erdiesteko.

Horretarako, sinergiak baliatzea eta lankidetzak bermatzea izango dira gakoak eta, era berean, koordinazio hori gauzatzeko gunea sortzea, eskualdeko euskararen ikuspegia garatu, landu eta zeharkakotasunean bideratu ahal izateko.



1. SARRERA

Arratiako eskualdean momentu honetan egitasmo bat dago puri-purian, ERROTA egitasmoa. Enplegua lortzetik harago doan egitasmoa da; izan ere, eskualdearen bizi kalitatea hobetzea da duen helburua. Tokiko garapena bultzatu nahi da, eragilean, erakundeetan eta herritarren artean sinergiak lortuz.

Hori dela eta, eskualdeko egoera sozioekonomikoa bultzatu eta herritarren ongizatea bermatu gura da, ingurumen osasuntsua bermatu, gizarte kohesioa indartu eta aniztasun kulturala aintzat hartuz. Eragile guztien esperientzia eta esku hartzea beharrezkoa da horretarako, egitasmoa aberastuko baitu horrek.

Elkarlanean abiatu da egitasmoa, eta elkarlana izango da aurrera begira ere ERROTAREN ardatz nagusia, tokiko garapenak beharrezko dituelako gizartearen, arlo pribatuaren, hezkuntzaren eta arlo publikoaren arteko sinergiak, hortaz, kooperazioa gakoa da, bakoitzak bere eragin esparruan bailarako ongizaterako urratsak egitea, alegia.

Bakoitzak bere eragin esparruan ekarpenak egitea eta parte-hartzea sustatzea gakoa denez, nire sakontze egitasmoa proiektu horretara bideratzea egokia eta eraginkorra iruditu zait; izan ere, eta aurrerago ikusiko dugun moduan, eskualdeko bisioa Arratia euskalduna izatea da eta nire misioa beraz, hori lortu ahal izateko irizpide eta lan-ildo batzuen proposamena egitea izango da.

Testuinguru honetan, eta lan honen helburua zein den kontuan izanda, goazen bada, gaur egungo eskualdeko arloz arloko argazkia zein den ezagutzera.

Ondoren, argazki hori oinarri hartuta ERROTAK lehenetsitako erronkak izango ditugu hizpide. Azkenik, eta aurretik esandako guztia kontuan izanik, ERROTATik bertatik euskararen garapen iraunkorra bermatzeko gakoak proposatuko ditut, hastapenetan erronka hau hartuta errazagoa izango da-eta arlo guztietara heltzea.

Bukatzeko, jakinarazi gura dut sakontze egitasmo hau egiteko prozesuan, Arratiako eragile eta hainbat erakundetako zenbait pertsonaren inplikazioa handia izan dela. Proiektu honetarako funtsezkoak izan diren datu bilketa erraztu didate, baita gaiari buruzko hausnarketak eta ekarpenak egin ere. Bihotz-bihotzez eskertu gura dut horien guztien elkarlana.

2. ERROTA

Azken urteak lan mundu eta ongizaterako ez dira errazak izaten ari. Langabezia eta prekarietatea handituz joan dira. Bizi baldintza duinak mantentzea gero eta zailagoa da eta askotan beste herrialde batzuetara mugitu behar izan gara lana aurkitzeko, gehien bat gazteak.

Egoera hau Arratiara ere heldu da. Azken urteetan hainbat lanpostu galdu dira eskualdean, eta horren ondorioz bizi baldintzak okertu dira.

Egoera hori irauli gurean, 2015eko urtarrila inguruan Arratiako hainbat eragile ezberdin batzen hasi ziren, Arratiako garapen sozioekonomikoa dinamizatuko duen proiektu integral bat martxan jartzeko gogoz. Helburua da azken urteotako norabidea aldatu eta denon artean eta denontzako Arratia sendo, jasangarri eta bizitzeko aproposagoa egitea.

Proiektu honi ERROTA izena jarri diote eta garapenerako beharrezkoak diren lau ardatzak hartu dira kontuan: jendartea, sektore publikoa, sektore pribatua eta jakintza arloa.

Inguruko proiektu arrakastatsuetatik ikasiz, lanean hasi eta eskualdeko eragile ezberdinen atxikimendua izaten ari da. Horrela, aurretik aipatutako egoera hori zehazki zein den aztertu da parte-hartze prozesu baten bitartez eta eskualdearen diagnostikoa egin da. Udalek eta gainontzeko erakundeek hainbat azterketa egin dituzte. Guztiak bildu, osatu eta ekintza plan bat adostea izan da helburua. Arratiako eragile ezberdinak dinamizatu nahi izan dira, behetik gorako hazkundera bultzatzeko, bai ekoizpenaren eremuan, eta bai ongizatean.

Egitasmoak proposatzeko orduan ez dira hutsetik abiatu ERROTako kideak. Hainbat tokitan egin dituzten lanen esperientzien berri jaso dute azken hilabeteetan, eta berebiziko garrantzia izan du esperientzien truke horrek, Lea-Artibai eskualdeko Azaroa fundazioarena tartean.

Eskualdean enpresa berriak sortu eta enpresa sareen lehiakortasuna hobetzeko erakundera da Azaroa. Lea-Artibaiko erakundearekin harremanetan dago ERROTA, eta eskualdera egokitu daitezkeen beste hainbat esperientzia ere aztertuko dituzte aurrerantzean.

ERROTA sortzeko lehen pausoa eman da, beraz, adostu dituzte oinarriak, eta herritarrei egitasmoan parte hartzeko gonbitea eginda dago, eta asko dagoeneko egitasmoan inplikatu dira.

Beraz, arratiarren parte-hartze zuzenarekin eraikitzen ari den proiektua da, Arratian dauden sinergiak baliatuz, eskualdea aldatu eta aurrera eramateko; hori dela eta, bakoitza bere arloan baina guztiek helburu berarekin lan egingo duten proiektua da. Tokiko garapena helburu izanik, bertatik bertara egindakoa, bailarako instituzioak, eragileak eta herritarrak inplikatur.

Arratiako etorkizuna nolakoa gura den jakiteko, diagnostikotik abiatu eta lantaldeetan arloz arloko hasierako erronkak lehenetsi dira hasierako fasean, etorkizuna ereiteko oinarriak zehaztu dira beraz.

Denon artean eta denontzako Arratia sendo, jasangarri eta bizitzeko aproposagoa egiteko honakoak izan dira kontuan:

MISIOA

Arratiako ingurune sozio-ekonomikoa dinamizatu.

BISIOA

Eraldatze sozio-ekonomikoaren bitartez 2030erako eskualdeko bizitzaren kalitatea hobetzea lortu.

BALOREAK

- Pertsonenganako begirunea
- Ingurumenaren jasangarritasuna
- Berdintasun eta aniztasunaren sustapena
- Epe luzeko ikuspegia
- Lankidetza (eskualde mailan, antzeko beste ekimenekin...)
- Kultura eta hizkuntzarekin engaiamendua

ERR•TA
ARRATIAKO GARAPENERANTZA

3. ESKUALDEKO DIAGNOSTIKOA

Arratiako bailara Bizkaiko hegoaldean dago, Durangaldea, Hego Uribe eta Arabarekin muga egiten duena.

Arratiako eskualdea bederatzi herrik osatzen dute: Bedia, Lemoa, Igorre, Dima, Arantzazu, Artea, Areatza, Zeanuri eta Ubide.

Lan honetako diagnostikoan ez dugu Ubide udalerria kontuan hartu, ERROTA proiektuan parte hartu nahi izan ez duelako.


Diagnostiko honetan dauden datuak ERROTA lantaldekook egindakoa da. Aitzitik, euskarari berari dagokion diagnostiko sakona ez da egin eta arlo hori eskualdeko hainbat iturritik jasotako datuekin osatu dira:

3.1. ANALISI SOZIOEKONOMIKOA

3.1.1. Demografia

Eskualdeko herrietako biztanleriaren bilakaera 2010-2015:

Arratia, 13.795 biztanlez osatutako eskualdea da. Bizkaiko biztanleen % 1,20 bizi da Arratian. Eskualdeko biztanleen % 81, 4 herri handienetan bizi da; Igorre eta Lemoa herrietan eskualde osoko biztanleriaren % 54a bizi delarik.



Eskualdea, oro har hartuta, % 3,93 igo da biztanle-kopurua azken urteetan. Hazkunde hori Bizkaiko eta EAEko batez besteko hazkundearen ginetik dago.

Eskualdeko herrien artean, Arantzazuk jasan du biztanleriaren hazkunderik nabarmenena, eta Zeanurik galdu du biztanle gehien azken urteetan.

Arratiako Biztanle kopurua herrika eta urteka:

Lurraldea	2010	2011	2012	2013	2014	2015	Bilakaera
EAE	2.178.339	2.184.606	2.193.093	2.191.682	2.188.985	2.189.257	% 0,50
Bizkaia	1.153.724	1.155.772	1.158.439	1.156.447	1.151.905	1.148.775	% -0,43
Arratia	13.273	13.558	13.719	13.769	13.845	13.795	% 3,93
Arantzazu	325	354	360	364	380	382	% 17,54
Areatza	1.142	1.179	1.226	1.227	1.211	1.195	% 4,64
Artea	760	783	783	760	775	768	% 1,05
Bedia	966	970	987	1.020	1.035	1.022	% 5,80
Dima	1.313	1.356	1.365	1.404	1.416	1.424	% 8,45
Igorre	4.239	4.273	4.235	4.229	4.247	4.241	% 0,05
Lemoa	3.226	3.346	3.451	3.475	3.512	3.505	% 8,65
Zeanuri	1.302	1.297	1.312	1.290	1.269	1.258	% -3,38

Iturria: Garapen

Hautzaro indizea. 0-14 urte bitarteko biztanleak

Hautzaroa, oro har, orekatuta dago Arratian. Azken urteotan, bilakaera positiboa izan da herri guztietan, Areatza eta Bedian izan ezik. Arantzazu da 0-14 urte bitarteko indize altuena duen herria.

Bizkaiarekin alderatuz, 0-14 adin bitarteko biztanleriaren pisua, altuagoa da Arratian. Igorren, adibidez, 662 pertsona dira 0-14 urte bitartekoak, eta horren ondoren, Lemoa eta Dima kokatzen dira.

Arratiako 0-14 urte bitarteko biztanleen indizea, herrika eta urteka:

Lurraldea	2010	2011	2012	2013	2014	2015	Bilakaera
Bizkaia	12,65	12,87	13,06	13,21	13,30	13,38	0,73
Arratia	12,70	13,41	13,89	14,18	14,49	14,75	2,05
Arantzazu	12,31	14,69	15,28	15,11	17,63	18,32	6,01
Areatza	16,37	16,28	16,39	17,03	16,18	15,98	-0,39
Artea	14,47	15,71	16,35	15,79	16,00	15,63	1,16
Bedia	13,56	13,71	13,58	13,73	13,72	13,50	-0,06
Dima	14,85	15,56	15,75	15,95	16,17	16,08	1,23
Igorre	12,60	13,43	14,26	14,83	15,47	15,61	3,01
Lemoa	13,70	14,35	14,63	14,96	15,52	16,52	2,82
Zeanuri	13,67	14,34	15,09	15,35	14,81	14,63	0,96

Iturria: Garapen

Zahartze-tasa. 65 urtetik gorako biztanleriaren pisua (%)

Arratian zahartze-indizea Bizkaiko batez bestekoen azpitik dago. Eskualdeko herrien artetik, Igorren igo da gehien zahartze-tasa azken urteetan. Hala ere, Bedia eta Zeanuri dira zahartze-tasa indize altuena duten herriak. Aitzitik, Lemoak du 65 urtetik gorako biztanleria tasa txikiena. Bilakaera, beraz, 65 urtetik gorako gizataldearen pisu erlatiboa biztanle osoarekin alderatuta handitu egin da.

Arratiako 65 urtetik gorako biztanleen indizea, herri eta urteka:

Lurraldea	2010	2011	2012	2013	2014	2015	Bilakaera
EAE	40,18	40,97	41,64	42,14	42,5	42,83	2,65
Bizkaia	19,79	20,1	20,39	20,73	21,28	21,65	1,86
Arratia	17,73	17,4	17,33	17,38	17,6	17,91	0,18
Arantzazu	19,69	18,36	18,89	18,41	17,37	18,32	-1,37
Areatza	18,65	18,49	18,11	18,26	18,58	18,91	0,26
Artea	17,37	15,96	15,84	16,97	18,19	19,01	1,64
Bedia	20,81	20,72	19,66	20,10	20,29	20,06	-0,75
Dima	19,73	19,32	19,12	18,59	18,22	18,33	-1,4
Igorre	15,52	15,61	16,10	16,17	16,81	17,66	2,14
Lemoa	18,38	17,72	17,21	17,24	16,74	16,38	-2
Zeanuri	20,20	20,05	19,44	19,53	20,65	20,83	0,63


Iturria: Garapen

Esandako datuak kontuan izanik, Arratian, oro har, gehiago dira 65 urtetik gorako biztanleak, 0-14 adin bitartekoak baino.

65 urtetik gorako eta 0-14 urte bitarteko biztanleriaren arteko diferentzia:

Herria	0-14	>65	Diferentzia
Arratia	2.169	2.489	-94
Arantzazu	69	69	0
Areatza	190	225	-35
Artea	120	145	-25
Bedia	137	205	-68
Dima	228	261	-33
Igorre	662	748	-86
Lemoa	579	574	5
Zeanuri	184	262	78


Biztanleriaren banaketa haur eta zaharren artean



■ Haur
■ Zahar

Gainbegirada orokorra


Egun, 35-45 adin bitarteko biztanleriak du pisu altuena Arratian, batez beste. Horietatik gehiago dira gizonezkoak emakumezkoak baino.



Iturria: Garapen. Bedia falta da.

Bestalde, azken urteetan izandako jaiotze tasaren gorakadaren ondorioz, gehiago dira 0-4 urte bitarteko pertsonak, 84 urtetik gorakoekin alderatuz.

Haurtzaroan aurkitzen direnen eta 65 urtetik gora duten pertsonak elkarrekin konparatuz, batez beste, parekotasuna dago. Arratiako biztanleria oso orekatuta dago zentzu honetan, haur-tasa eta zahartze-tasa, % 50ean banatzen direlarik.



Iturria: Garapen

Jaiotze eta heriotza tasa (biztanle%)

Eskualdeko jaiotze-tasa gordina Bizkaiko batez bestekoaren gainetik dago eta herri batzuetan, horien artean Lemoan, modu nabarmenean gainera. Hala ere, Arratian, batez beste, heriotza-tasa eta jaiotze-tasa ia parekatuta daude.

Biztanle %:		Jaiotze-tasa gordina				Heriotza-tasa gordina				
Lurraldea	2010	2011	2012	2013	2014	2010	2011	2012	2013	2014
EAE	29,89	29,82	28,84	26,86	27,51	25,64	26,23	26,69	26,29	26,49
Bizkaia	9,18	9,23	8,93	8,43	8,47	9,36	9,52	9,72	9,31	9,7
Arratia	13,58	12,88	12,17	11,97	10,24	10,04	9,64	9,89	8,69	9,3
Arantzazu	20,62	16,81	13,81	29,57	5,25	11,78	8,4	2,76	8,06	13,12
Areatza	9,48	11,64	10,6	10,66	8,31	6,03	4,99	8,97	10,66	14,13
Artea	14,26	8,94	11,67	10,42	6,48	12,96	10,22	10,37	10,42	9,07
Bedia	2,07	10,21	12,26	9,73	3,89					
Dima	12,74	11,03	14,45	14,18	9,15	10,49	16,91	10,83	10,64	10,56
Igorre	13,86	13,16	11,81	9,91	10,13	10,1	7,99	9,22	6,37	6,83
Lemoa	14,3	15,01	13,86	13,17	14,82	10,04	7,36	9,24	9,45	8,55
Zeanuri	13,08	10,73	7,69	10,16	4,75	10,77	17,63	15,37	9,38	12,66

Iturria: Garapen

Biztanleriaren berezko mugimendua

Adierazle honen bidez, eskualdean, urtero eta herrika, jaiotza eta heriotzen arteko diferentzia aztertzen da. Datu hau zahartze- eta haurtzaro-adierazleekin zuzenean erlazionaturik dago. Arratiako herrietan, oro har, pertsona gehiago hiltzen da, jaio baino. Hala ere, batez beste, saldoa positiboa da, Lemoan, azken urteetan ume asko jaio baitira.

Zehazki, Igorre eta Lemoa baino ez dira jaiotze-tasa altuagoa dutenak, heriotza-tasarekin alderatuz. Arantzazun, Areatzan, Artean, Diman eta Zeanurin, pertsona gehiago hiltzen dira, jaio baino.

Arratiako biztanleriaren berezko mugimendua:

Lurraldea	2010	2011	2012	2013	2014
EAE	1.802	1.348	252	-574	-779
Bizkaia	-202	-333	-905	-1.013	-1.419
Arratia	44	41	29	43	7
Arantzazu	3	3	4	8	-3
Areatza	4	8	2	0	-7
Artea	1	-1	1	0	-2
Bedia	-11	-5	0	1	-11
Dima	3	-8	5	5	-2
Igorre	16	22	11	15	14
Lemoa	14	26	16	13	22
Zeanuri	3	-9	-10	1	-10

Iturria: Garapen

Biztanleria atzerritarra orotara eta pisua

Biztanleria atzerritarraren pisua eskualdean, EAE eta Bizkaian antzerakoa bada ere, Areatzako kasuan, ia bikoiztu egiten dira datuak. Arratiako eskualdean, Areatza, Igorre eta Lemoa dira atzerritarren pisu altuena duten herriak. Eboluzioari dagokionez, Areatzak beheranzko joera hartu du biztanleria atzerritarraren kopuruak eta Igorren aldiz goranzkoa.

Atzerritar kopuruaren eboluzioari so eginez, oro har, 2010-2012 urte bitartean goranzko joera izan da. Bestalde, 2012tik aurrera, Arratian erroldatuta dauden atzerritarren kopuru jaisten hasten da. Joera hau nabarmena da Areatza eta Lemoan adibidez. Igorren, urteak pasatu ahala, nahiko egonkor mantentzen ari da kopurua.

Biztanle Atzeritarrak Orotara (AO) eta biztanleria atzeritarraren pisua biztanleria orokorrarengan (%)


	2010		2011		2012		2013		2014		2015	
	AO	%	AO	%	AO	%	AO	%	AO	%	AO	%
EAE	139.369	96	145.256	6,65	151.894	6,93	148.877	6,79	141.316	6,46	137.816	6,30
Bizkaia	68.710	6,48	72.256	6,25	75.534	6,52	73.868	6,39	68.159	5,92	65.255	5,68
Arratia	860	4,31	970	7,15	994	7,25	979	7,11	863	6,23	825	5,98
Arantzazu	14	11,65	16	4,52	19	5,28	17	4,67	11	2,89	12	3,14
Areatza	133	5,92	133	11,28	14	11,50	135	11,00	109	9,00	88	7,36
Artea	45	4,55	66	8,43	65	8,30	54	7,11	46	5,94	4	5,34
Bedia	44	2,51	35	3,6	36	3,65	39	3,82	42	4,06	34	3,33
Dima	33	7,4	29	2,14	27	1,98	29	2,07	29	2,05	28	1,97
Igorre	314	7,53	366	8,57	364	8,60	386	9,13	354	8,34	365	8,6
Lemoa	243	5,99	284	8,49	300	8,69	286	8,23	267	7,60	249	7,10
Zeanuri	78		76	5,86	78	5,95	72	5,58	47	3,70	42	3,34

Iturria: Garapen

Arratian dauden atzeritarren jatorria

Arratian dauden atzeritarren gehiengoa Europarra da (Europa Ekialdea)

Hurrengo grafikoan adierazten den bezala, Atzeritar gehienak, Europatik datoz Arratiara. Jarraian, Afrika litzateke atzeritarren jatorria, hauen kopurua ere azpimarragarria direlarik. Nahiz eta datu absolutuetan orokorrean Arratian atzeritar asko ez bizi, dauden gehiengoa, Lemoa eta Igorren bizi dira.



Iturria: Garapen

Biztanleria, ikasketen arabera sailkatuta.

- EAE batez bestekoa kontuan hartuta, Lanbide Heziketa dituzten herritarren pisua altuagoa da Arratian.
- Aldiz, erdi/goi-mailako ikasketak dituzten herritarren pisua ia berdina da Bizkaian eta EAEn ere bai.
- Goi-mailakoen ikasketak dituzten biztanleriaren pisua EAE eta Bizkaiarekin alderatuz, Arratian baxuagoa da.
- Aipagarria da, unibertsitate ikasketak (erdi eta goi mailakoak) dituzten biztanleriaren pisua eta Lanbide Heziketakoak parekoak direla.

10 urte eta gehiagoko EAEko biztanleen pisua (%), lurralde eremuak eta ikasketa-maila kontutan hartuta (2014):¹

Lurraldea	AG	IG	LM	BM	LH	E-G M	GM
EAE	0,42	2,40	34,28	21,32	17,15	7,70	16,73
Bizkaia	0,46	2,56	34,14	21,08	16,45	7,75	17,56
Arratia	0,50	1,51	35,74	18,30	21,92	8,24	13,79
Arantzazu	-	0,30	29,31	21,15	23,56	11,48	14,20
Areatza	0,75	0,37	36,04	19,89	19,89	8,22	14,85
Artea	-	0,30	28,87	21,73	20,54	12,35	16,22
Bedia	0,53	2,13	39,49	17,08	19,10	6,62	15,05
Dima	0,32	0,64	32,85	17,39	22,92	10,18	15,71
Igorre	0,4	1,52	38,6	18,24	21,51	7,28	12,45
Lemoa	0,82	1,96	36,84	18,28	23,00	7,25	11,85
Zeanuri	0,26	2,8	29,06	16,24	23,79	9,92	17,91

Iturria: Eustat

¹AG: Alfabetatu gabeak; IK: Ikasketarik gabeak; LM: Lehen mailako ikasketadunak; BM: Bigarren mailako ikasketadunak; LH: Lanbide Heziketa dutenak; E-G M: Erdi-Goi mailako ikasketadunak; GM: Goi mailako ikasketadunak.

Kolore berdez ageri dira, ikasketa maila bakoitzeko pisu gehien duen herria.

3.1.2. Gai sozialak

Errenta pertsonal eskuragarria

Arantzazu, Areatza, Dima eta Zeanurin batez besteko errenta pertsonal eskuragarria EAEkoaren gainetik dago.


Hala ere, aipagarria da Arteako kasua, non errenta pertsonal erabilgarriara Bizkaiko bataz bestekoaren azpitik dagoen.

Arratiako batez besteko errenta pertsonal erabilgarria esan bezala EAE eta lurralde historikoarekin parekaturik dago. Baina, grafikoan ikus daitekeenez, eskualdeen artean erdialdean dago kokaturik. Debabarrena eta Durangaldea dira Arratiari jarraitzen dien eskualdeak. Goierriko datuak nabarmen hobeak dira. Bestalde, Enkarterriak eta Lea-Artibaiko errenta pertsonala, Arratiaren azpitik daude.

Batez besteko errenta pertsonal erabilgarriaren bilakaera eurotan 2003-2013

	2003	2006	2009	2011	2013
EAE	11.647	14.598	16.808	16.711	16.216
Bizkaia	11.428	14.501	16.411	16.171	15.921
Arratia	11.930,75	14.358,63	16.655,13	16.483,75	16.659,00
Arantzazu	13.248	14.809	18.358	18.619	17.838
Areatza	10.632	12.890	15.110	15.143	18.103
Artea	12.037	14.804	17.392	17.268	14.957
Bedia	10.838	13.550	15.338	15.423	15.996
Dima	12.625	15.714	17.432	17.170	17.325
Igorre	11.274	13.593	15.549	14.878	15.391
Lemoa	11.534	14.824	16.110	15.637	15.291
Zeanuri	13.258	14.685	17.952	17.732	18.371

Iturria: Garapen



Iturria: Garapen

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) jasotzen duten biztanleriaren sailkapena


Beheko grafikoetan adierazten den bezala, diru-sarrerak bermatzeko errenta kobratzen duen Arratiako biztanleriaren artean, Igorre da jasotzaile gehien dituen herria, zenbaki absolututan. Bestalde, Areatza, Lemoa eta Igorre dira DBE jasotzen dutenen pisu altuena duten herriak.

Hurrengo taulak adierazten duen moduan, datu hori zuzenean erlazionatuta dago langabezia tasarekin, hiru herri horietan dago-eta langabezia tasa altuena.

DBE jasotzaileak (2016)

Lurraldea	Gizona	Emakumea	Guztira	Guztietatik Pentsiodunak	DBE jasotzen duten Biztanle %
Arratia	139	173	312	82	2,26
Arantzazu	<5	<5	5	<5	1,31
Areatza	19	25	44	17	3,68
Artea	<5	6	10	<5	1,30
Bedia	12	12	24	6	2,35
Dima	12	15	27	12	1,90
Igorre	42	63	105	18	2,48
Lemoa	42	46	88	17	2,51
Zeanuri	<5	5	9	<5	0,72

Iturria: Lanbide



Iturria: Lanbide

3.1.3. Lan merkatua

Langabeziaren bilakaera, herrika

Arratiako eskualdeak 2015. urtea 806 langabeturekin bukatu zuen, Igorre izan zelarik langabetu kopuru altuena izan zuena.

Krisialdiaren hasieran, 2008an langabeziak gorakada handia izan zuen eta ordutik aurrera 2013an goranzko joera izan du berriro. Oro har, Arratia guztian krisialdi hasieratik 2013ra arte, langabetu kopurua hazten joan da. 2014an hasten da tendentzia hori aldatzen, langabetu kopurua gutxitzen, alegia.


Egun, Bizkaia eta EAErekin alderatuz, langabezia tasa nahiko baxua da, %12koa delarik. Langabezia tasaren bilakaerari dagokionez, Areatza eta Lemoa izan dira hazkunde nabarmenena jasan duten herriak, EAE, Bizkaia eta Arratiaren batez bestekoaren gainetik, alegia.

Langabeziaren bilakaera, herrika

Lurraldea	2010		2011		2012		2013		2014		2015		Bilakaera
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	
EAE	132.358	12,6	145.145	13,4	162.359	15,7	175.415	15,9	171.709	15,3	160.155	14,1	1,5
Bizkaia	72.683	12,77	81.294	14,29	91.357	16,06	98.335	17,28	96.385	16,94	89.997	15,82	3,05
Arratia	619	8,98	692	10,04	768	11,13	865	12,55	884	12,82	806	11,69	2,71
Arantzazu	14	6,95	17	8,38	13	6,53	17	8,5	19	9,6	16	7,83	0,88
Areatza	49	7,77	71	11,28	84	13,33	89	14,26	84	13,35	82	13,09	5,32
Artea	32	8,42	40	10,62	47	12,48	45	12,04	42	11,06	37	9,93	1,51
Bedia	50	10,9	53	11,6	68	14,8	74	15,1	69	13,2	62	12,0	1,1
Dima	52	6,88	46	5,98	60	7,94	73	9,58	67	8,86	61	7,99	1,11
Igorre	261	12,18	272	12,7	287	13,4	329	15,36	328	15,3	294	13,73	1,55
Lemoa	179	8,63	207	9,98	228	10,99	261	12,55	289	13,88	268	12,9	4,27
Zeanuri	32	4,52	40	5,6	48	6,81	51	7,14	56	7,81	48	6,77	2,25

Iturria: Garapen

2015 urtean zehar, EAEko datuek diotenaren arabera, langabeziak bere daturik altuena lehen hiruhilabetekoan izan du, hortik aurrera, gutxika indizea txikitzen joan delarik. Era berean aipatzekoa da, gizonezkoen langabezia tasa baxuagoa izan dela, emakumezkoen tasarekin alderatuz.




Iturria: Garapen

Langabezia, adina eta herriaren arabera

Arratian, langabetu kopuru altuena 25-45 adin bitarteko biztanleen artean dago oro har. Bizkaia eta EAE mailan ere, adin tarte horretan dago langabetu gehien. 45 urtetik goragoko pertsonak lirateke langabetu gehien dauden hurrengo kolektiboa, Lanbideren esanetan.

Aipatzekoa da, Artean langabe dauden pertsonen kopuru altuena 45 urtetik goragoko pertsonak osatzen dutela. Bestela, nahiko parekatuta daude zifrak bi adin tarte horien artean.



Iturria: Garapen

2015ean adin-tarte bakoitzean egon den langabe kopuruaren pisua, herrika

Lurraldea	<25urtekoak	25-44 urte artekoak	>45 urtetik gorakoak
EAE	18,84	147,63	133,55
Bizkaia	6,04	48,70	45,27
Arratia	5,12	50,58	44,30
Arantzazu	2,13	59,16	38,71
Areatza	6,70	47,61	45,69
Artea	4,91	28,40	66,66
Bedia	4,64	52,20	43,16
Dima	7,40	48,36	44,25
Igorre	5,44	52,69	41,87
Lemoa	4,60	51,46	43,95
Zeanuri	1,72	55,01	43,24

Iturria: Garapen


Langabezia, ikasketa-perfilaren arabera, herrika sailkatuta (2015)

2015 urteko datuen arabera, DBH eta Lanbide Heziketako ikasketak dituzten pertsonak dira langabetuen artean kopuru altuena. Bizkaia eta EAEn ere hala gertatzen da.

Goi mailako Lanbide Heziketa ikasten duten pertsona-langabetu kopurua eta ikasketa unibertsitarioak dituztenena nahiko parekatuta dago Arratian.

2015ean profil bakoitzeko langabetu kopurua, herrika:²

Lurraldea	AG	LM	DBH	ELH	GLH	1.ZU	2.ZU	BU
EAE	522	20.384	79.456	14.080	15.174	6.269	13.413	262
Bizkaia	311	8.587	46.874	7.943	8.346	3.584	7.927	142
Arratia	12	87	421	118	97	39	63	3
Arantzazu	0	2	8	1	1	0	1	1
Areatza	0	10	49	6	5	4	4	0
Artea	0	0	20	1	7	2	5	2
Bedia	2	8	12	33	4	2	5	0
Dima	0	6	28	7	10	4	6	0
Igorre	6	40	143	28	34	9	18	0
Lemoa	3	19	142	34	29	12	19	0
Zeanuri	1	2	19	8	7	6	5	0



Iturria: Garapen


²AG: Alfabetatu gabea; LM: Lehen mailako ikasketen ziurtagiria; DBH: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza; ELH: Erdi mailako LH; GLH: Goi mailako LH; 1ZU; 1. Zikloko ikasketa unibertsitarioak; 2ZU; 2. Zikloko ikasketa unibertsitarioak; BU: Bestelako ikasketa unibertsitarioak.

Arratiako biztanleria landunaren kontratu tipologiai herrika

Arratian, 2015ean zehar lanean dauden pertsona gehienak, aldi bateko lan kontratuak dituzte, batzaz beste, biztanleria landuaren % 91ak. 2015ean, arratiarren % 8ak izan zuen lan kontratu mugagabea.


Jarduera ekonomikoei dagokienez, lan kontratuen % 60 (Arratiako batez bestekoa), zerbitzu alorrean ari da lanean. % 40 Sektore Industrialean, % 8 Eraikuntza sektorean eta gainontzekoa nekazaritzan (% 2,26).

2015ean lan kontratu tipologia, herri bakoitzean:



Iturria: Garapen

2015ean lan kontratu kopuru indizeak, sektorearen arabera:




Iturria: Garapen

Emakume eta gizonezkoen kontratu bilakaera herrika (2010-2015)

Oro har, ohikoa denez, emakume landun gutxiago dago Arratian, gizonezkoenekin alderatuz.


Eskualde osoan, 4.693 pertsona zeuden lan kontratuarekin 2015ean. Horietatik % 37 Lemoako biztanleak dira eta gainerako %30a Igorrekoak. Beraz, Arratian lanean dauden pertsonen % 67 Lemoa eta Igorreko biztanleak dira.



Iturria: Garapen


Biztanleria landun gutxien dauden herriei dagokienez, Arantzazu, Zeanuri eta Areatza dira aipatzekoak.

Bestalde, Arantzazu da lan gutxien sortzen duen herria.



Iturria: Garapen

Biztanleria landunaren perfil profesionala herri bakoitzean (2015):



Iturria: Garapen

Nabarmentzen diren perfil profesionalen artean, Igorreko biztanleria landunaren artean, "berezitasunik gabeko langileak" eta "laguntzako teknikariak eta profesionalak" dira biztanleria landun kopuru altuena dutena. Lemoako biztanleria landuna ordea, hein handi batean, Instalazioetako eta makinetako eragileak edota muntatzaileak dira.


Lan-establezimenduak 2010-2015 bitartean Bizkaian % 8 jaitsi dira; Arratian ordea, jaitsiera %13koa izan da. Arratian, 2010-2015 artean, establezimendu kopurua, oro har, jaitsi egin da. Beheranzko joera hori 2012 eta 2013an hasten da.

Bilakaera negatiboena Bedia, Areatza, Igorre eta Lemoan izan da. Bestalde, Arantzazu, Zeanuri eta Dima izan dira establezimendu kopurua ugaritzen joan diren herriak.

Kopuru absolutuari dagokionez, Igorre eta Lemoa dira negozio gehien dauden herriak.

Lurraldea	2010	2011	2012	2013	2014	2015	Bilakaera	
							Zb	%
EAE	906.044	890.093	873.121	855.093	849.335	843.816	-62.228	6,87▼
Bizkaia	460.094	452.737	442.388	432.868	427.482	423.439	-36.655	7,96▼
Arratia	6.895	6.668	6.649	6.522	6.216	5.977	-918	13,31▼
Arantzazu	42	44	50	50	49	53	11	26▲
Areatza	227	185	181	186	176	172	-55	24▼
Artea	485	490	491	502	476	492	7	1▲
Bedia	844	771	735	662	596	530	-314	37▼
Dima	272	333	361	332	314	313	41	15▲
Igorre	3.023	2.818	2.785	2.732	2.599	2.552	-471	16▼
Lemoa	1.813	1.819	1.810	1.832	1.785	1.645	-168	9▼
Zeanuri	189	208	236	226	221	220	31	16▲

Iturria: Garapen



Iturria: Garapen

3.2. Arratiako enpresa sarea


Gainbegirada orokorra

Arratiako 8 udalerrietan kokatutako enpresak jarduera ekonomiko anitzetakoak dira. Horrela izanik, sektore ezberdinetako alorretan dihardute negozio edo enpresa hauek.

Oro har, establezimendu kopuruen kontzentrazio handiena Merkataritza, Garraioan eta Ostalaritza arloetan dago. Honen ostean, Industria litzateke sektorerik esanguratsuena, non establezimenduen % 13 barneratzen den.

Nahiko parekatuta daude Eraikuntza sektorea eta jarduera profesionalen (autonomo gisa lan egiten dutenak, hainbat azpisektoretan) esparruak.

Historikoki, nekazaritza eta abeltzaintzak esanahi handia izan du Arratian, baserritik bizi izan den eskualde bat izan delako, Bizkaian beste hainbat eskualde moduan. Egun, nahiz eta joera baserriko lana utzi eta industrietatik bizitzea izan, badago Arratian oraindik bizimodu mota hori mantendu nahi duenik. Honen adierazgarri, nekazaritzak %9ko kopurua izatea da.



Iturria: EUSTAT

Eskualdearen azterketa egitean, fokoa herri bakoitzean jarritz gero, Igorre da enpresa-aktibitate gehien duen udalerria. Igorren kokatzen dira beraz, Arratiako lanpostu kopuru gehiena sortzen duten enpresak; hau da, industrialak eta ez industrialak (merkataritza/garraioa/ostalaritza) dira Igorren azpisektore esanguratsuenak.

Industriari dagokionez, Lemoa da enpresa gehien dagoen herria. Jarduera ekonomiko gutxien dagoen udalerrien artean Arantzazu eta Areatza daude, hurrenez hurren.

Establezimendu kopura, azpisektoreka eta herrika:³

	NA	IES	E	MGO	IK	FJA	HJ	JAP	APHO	JABZB	Estable- zimendu kop. guztira
EAE	6.004	12.176	20.951	67.519	3.290	4.955	2.895	28.317	17.360	12.917	
Bizkaia	2.016	5.284	10.788	36.162	1.884	2.649	1.707	15.063	9.258	6.526	
Arratia ESKUALDEA	99	154	142	456	9	26	11	112	94	52	1155
Arantzazu	2	1	-	9	2	-	-	-	4	-	18
Areatza	9	2	13	34	1	3	-	9	6	5	82
Artea	6	14	8	21	-	1	-	6	8	4	68
Bedia	6	28	11	45	-	1	1	12	6	2	112
Dima	15	12	16	34	1	2	-	7	12	4	103
Igorre	24	42	39	152	-	12	5	32	31	24	361
Lemoa	10	49	45	122	4	6	5	39	17	10	307
Zeanuri	27	6	10	39	1	1	-	7	10	3	104

Iturria: EUSTAT

Balio erantsi gordinaren eboluzioa


Arratiako enpresa sektoreek, Balio Erantsi Gordinaren hazkundera erakusten dute Industria eta Zerbitzu sektoreetan. Bizkaiko datuekin konparatuz, Industria sektorearen pisua altuagoa da Arratian. Bestalde, Zerbitzu sektorearen Balio Erantsi Gordina nahiz eta eskualde honetan hazi egin den, oraindik, Bizkaiko datuekin konparatuz, baxuagoak izaten jarraitzen dute.

Nekazaritza eta Abeltzaintzari dagokionez, nahiz eta Arratia tradizioz eskualde baserritarra izan den, apenas hazi da azken urteetan, Bizkaian sektore honek suposatzen duen pisuarekin alderatuz, oso baxua delarik. Kontuan izanik eskualdean langabezia tasa erlatiboki baxua dela (%8 inguru), azken urteotan, biztanleria aktiboak industria sektorerako edota Zerbitzuen sektorerako joera garbia hartu duela esan daiteke; bi sektore hauek direlarik Arratian enplegu gehien sortzen dutenak.

³NA: Nekazaritza eta abeltzaintza; IES: Industria, Energia eta Saneamendua; E: Eraikuntza; MGO: Merkataritza Garraio eta Ostalaritza; IK: Informazio eta Komunikazioak; FJA: Finantza Jarduerak eta Aseguruak; HJ: Higiezin Jarduerak; JAP: Jarduera auxiliar eta profesionalak; APHO: Administrazio Publikoa, Hezkuntza eta Osasuna; JABZB: Jarduera Artistikoak eta Beste Zerbitzu Batzuk

	2008	2010	2012
BIZKAIA			
Guztira	100,00	100,00	100,00
Nekazaritza eta Abeltzaintza	2,80	5,76	8,74
Industria	31,34	28,80	26,55
Eraikuntza	14,77	11,35	7,10
Zerbitzuak	51,08	54,09	57,61
ARRATIA			
Guztira	100,00	100,00	100,00
Nekazaritza eta Abeltzaintza	2,21	2,01	2,55
Industria	36,56	38,02	39,15
Eraikuntza	18,88	9,63	6,41
Zerbitzuak	42,35	50,35	51,88

Iturria: EUSTAT




3.2.1. Nekazaritza eta Abeltzaintza

Lehen sektoreko Urteko Lan Unitate⁴(ULU)kopurua, herriak, 2009an.

Zeanuri, Dima, Lemoa eta Igorre dira ULU gehien dituzten herriak, hurrenez hurren.

Ustiatetikiko ULU, unitateak eta aldia 2009	
Arantzazu	16
Areatza	20
Artea	29
Bedia	37
Dima	85
Igorre	83
Lemoa	84
Zeanuri	92




Iturria: BFA_Abeltzaintza Saila

ABELTZAINZA: ustiategi kopurua eta abere kopurua, herriz-herri (2015)


2015ean kontabilizatutako datuen arabera, Dima, Zeanuri, Igorre eta Lemoa dira ustiategi kopuru gehien dituzten herriak, hurrenez hurren.

Ustiategi hauetan hazten diren abereen artean, ardiak eta behiak dira gehien hazten diren espezieak.

Iturria: Gorbeialde



⁴ULU bat lanaldi osoko lagun batek urtean zehar egiten duen lanaren parekoa da.



Abere aziendak, espeziearen arabera, eskualdeka (2013 urtean)⁵

Abere azienda kopuru altuena Zeanuri, Dima eta Lemoan daude, hurrenez hurren—espeziea, edozein izanda ere—.

2009. urtean abere espezieari so eginez, azienda kopurua, altuenetik baxuenera, honako espezieek dute, hurrenez hurren: behiak, ardiak, untxiak, zaldiak, ahuntzak, txerriak, erlauntzak eta hegaztiak.

Bestalde, 2013ko datuen arabera, animalia azienda kopuru altuena ardiena da, bigarrenik behi aziendak kokatzen daudelarik. Joera berbera dago inguruko eskualdeetan ere.


Gainerako eskualdeekin konparaturik lehen sektorearen pisua altuagoa da Arratia-Nerbioi eskualdean. Hala ere, aurrerago ikusiko den bezala, Arratia osatzen duten 8 herriei so eginez, lehen sektorearen pisua 4 herritan biltzen da nagusiki.

Establezimendu kopuruari dagokionez, berriz, pisu gutxi du Arratiak beste sektore batzuekin alderatuz gero.

⁵Arratia-Nerbioi eskualdea hartu da kontuan

ABEREAK	ARRATIA- NERBIOI	BUSTURI	DURANGO	LEA- ARTIBAI	GUZTIRA
Behiak	6.959	3.536	3.584	3.520	17.599
Ardiak	15.804	6.389	7.859	6.113	36.165
Ahuntzak	4.606	1.249	1.473	1.264	8.592
Zaldiak	3.342	1.099	1.368	3.536	9.345
GUZTIRA	30.711	12.273	14.284	14.433	71.701


Iturria: BFA_Abeltzaintza Saila



Abere kopuruaren eboluzioa, eskualdeka (2010-2013)⁶

- Azken hiru urteetako joera, abereei dagokienez, beherakoa izan da oro har Bizkaiko eskualde guztietan.
- Arratia, Balmaseda, Karrantza eta Mungia abere kopuruaren beherakada jasan dutenak. Jaitsiera nabarmenena, Arratian izan da 2012tik 2013ra bitartean.
- Abere tipologiari dagokionez, ahuntz, zaldi, ardi eta behien kopuruaren jaitsiera izan da deigarria Arratian.
- Lea-Artibai eta Durangaldean behi kopurua mantendu egin da ordea, baita ahuntz kopuruetan ere. 2012tik aurrera ez da azken urteotan.

⁶Arratia-Nerbioi eskualdea hartu da kontuan



Iturria: BFA_Abeltzaintza Saila

3.2.2. Industria eta horri lotutako zerbitzu enpresak

Enpresen perfila

Arratian, industriarekin nolabaiteko lotura duten enpresak 355 dira. Jarduera ekonomiko batzuk jarduera produktiboak dira, beste batzuk ordea, zerbitzu enpresak (Erregistro merkantilean alta emanda dauden enpresak dira, alegia). Datu hauek aztertuz, bost talde bereizten dira:

- Enpresei zerbitzuak eskaintzen dizkieten negozioak: ingeniariak zerbitzuak, aholkularitzak, diseinu enpresak...
- Eraikuntza sektorearekin lotura zuzena duten enpresak: etxebizitza eta eraikinen eraikuntzara dedikatzen diren enpresak, higiezin zerbitzuak, arkitektura estudioak, eraikuntzarekin lotura duten profesional independenteen zerbitzuak (arotzak, iturginak...)
- Lehen sektoreari lotutako industria auxiliarra enpresak: marmolaren lanketa, ustiaketa enpresak, basogintza...
- Enpresa industrialak: produktu eta osagarrien ekoizpena dedikatzen diren enpresak
- Bestelakoak: gasolindegia, merkataritza, garraioa, e.a.



Iturria: ERROTA

Enpresen tamaina

Sare industrialak osatzen duten enpresa tamaina, ordea, Europan ohikoa den joera jarraituz, Arratian ere mikroenpresak dira kopuruz ugariak.

Bestalde, lanpostu sorreran, eragin nabarmenagoa dute enpresa handiak, besteak beste, BATZ, PESALUR, UVESCO eta ERCORECA. (Automozioa eta Zerbitzuak)

Arratiako sare industrialak osatzen duten Enpresen klasifikazioa tamainaren arabera			
Enpresaren tamaina	Enpresa kopurua	Lanpostu kopurua	Enpleguaren pisua
0-10	277	757	% 13,90
10-50	71	1383	% 25,39
50-100	5	391	% 7,18
100-250	4	656	% 12,05
> 250	3	2259	% 41,48

Datu aipagarri bat: eskualde osoan kooperatiba bakarra dago, BATZ S. KOOP. Kooperatiba honek Igorren duen lantegian, 650 lanpostu ditu (langile batzuk Arratiakoak dira eta beste batzuk inguruko eskualdeetakoak). Kooperatiba izateak suposatzen duen onurari so eginez, enpresa honek bere ingurunearekin duen konpromiso soziala azpimarratuko genuke. Hau da, Igorreko lantegia bertan mantenduko da, bizirik dirauen artean, lanpostu gehiago edo


gutxiago sortuz, baina momentu oro, inguruan lana eta aberastasuna emanaz —hau da kooperatiba ereduak bere inguruarekiko suposatzen duen onura aipagarrienetako bat—.

Industriaren baitan, Arratian, sektore esanguratsuenak




Arratian hainbat dira enpresa industrialak eta industriari lotutako zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak. Lanpostuei dagokienez, honako bost azpisektoretan kokatzen dira eskualdeko enpresa traktoreak. Hau da, inguruan, lan gehien ematen duten enpresa industrialak, honako bost arlotan lehiatzen dira: Metala, Elektrikoa, Automozioa, Makina Ekoizpena eta Plastiko eta Kautxua, hurrenez hurren.

Seigarren azpi-sektorea, Zerbitzuena litzateke (aktibitate industrialetik at kokatzen diren zerbitzu enpresak). Lanpostu sorrerari dagokionez, sektore bakoitzak ondorengo pisua dauka Arratia eskualdean:



Metala: Produktu eta osagai metalikoen ekoizpena

Arratian, Metalaren industriak pisu nabarmena du. Enpresa esanguratsuenak, hau da, Metal alorraren baitan lanpostu gehien sortarazten dutenak, honakoak dira: Cyacsa, Negarra, Aldetu, Gestamp, Technichapa, Biltube, Forvasa eta Ormaiztegui. Enpresa horiek hiru herritan kokatzen dira nagusiki, Igorre, Bedia eta Dima, hain zuzen ere. Guztira 750 lanpostu sortarazi dituzte, jarduera motahainbat direlarik.



Elektrikoa: Material eta ekipo elektrikoaren diseinua, ekoizpena, eta zerbitzuak

Sektore Elektrikoa litzateke beste hainbat lanpostu sortzen dituen Arratiako zortzi udalerrietan. Enpresa esanguratsuenak ElectroIlunbe, Ormazabal y Cía, Trnasformers Manufacturing eta La Arboleda dira.


Enpresa horien jarduera ekonomikoak hainbat dira: ingeniariatza elektrikoko zerbitzuetatik abiatuz, produktu ezberdinen ekoizpena hain zuzen ere.



Automozioa: Pieza eta osagaien ekoizpena

Automozio sektoreak ere badu zeresanik Arratian. Eskualdean kokatzen den Kooperatiba bakarra da sektore honetakoa, 650 lanpostu sortzen dituelarik bere ingurunean. Aipatzekoa da BATZ S.KOOP. enpresak mundu mailan dituen lantegi ezberdinak. Horrek arratiarrei nazioarte mailan lan egiteko aukera emanez.


Kooperatiba izanik, inguruarekin duen konpromiso soziala aipatzekoa da, BATZ enpresak bere lantegia ez baitu deslokalizatuko, arratiarrei lana ziurtatuz.



Automoziorako pieza eta osagaien Diseinu eta ekoizpena

Makina ekoizpena: Makina industrial eta bentilazio eta hozte makinen ekoizpena

Makina eta ekipo industrialen ekoizpenera diharduten enpresak ere ugariak dira Arratian. Esanguratsuenak: Kelvion, Meti eta Comecaran. Ia 300 pertsonei ematen diete lana enpresok.




Aireztatze eta hozte makinen ekoizpena

Makina industrialen ekoizpena

Makina eta kabina industrialen muntaia

Plastiko eta Kautxua: Kautxuzko eta Plastikozko produktuen ekoizpena

Jarduera industrialean, bosgarren sektore pisutsuena, Plastiko eta Kautxuarena da. Plastikoa espezializatuta dauden enpresak kokatzen dira talde honetan, euren kokapena nagusiki Igorre eta Bedia dagoelarik.




Bestelako zerbitzu enpresa batzuk

Zerbitzuen alorrean, enpleguaren banaketa, zerbitzu-tipologiaren arabera sailkatua dago.

Arratian, hainbat dira zerbitzuen alorrean kokatzen diren enpresa eta jarduerak. Horietatik esanguratsuena, Hipermerkatu eta establezimendu komertzialek osatzen dute, zerbitzuetan sortzen diren lanpostuen % 58 bertan pilatzen delarik.

Ostean, garraio aktibitateari dagozkien enpresak daude(hala nola, PESALUR) eta bestelako garraio zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak.



Iturria: Orkestra

3.2.3. Merkataritza, Ostatua eta Gastronomia


Merkataritza. Enpresen perfila.

Arratia eskualdean, artikulu ezberdinak saltzera bideratuta daude establezimendu txikizkariak osatuta dago. 131 dira Arratiako zortzi udalerrietan dauden txikizkari establezimenduak. Batez beste horien % 50 Igorren kokatzen dira.


Guztira 63 dira Igorren dauden komertzioak eta horiek tipologia ezberdinetakoak dira. Esan genezake, herri honetan, herritarrei bideratutako denetariko txikizkari establezimenduak daudela (elikagaien dendak, arropa dendak, altzariak, loradendak ...).

Ondoren, Lemoa litzateke txikizkari gehien dituen herria. Hala ere, Igorrerekin alderatuz, nahiz eta biztanle kopuruan desberdintasun handiegirik izan ez, komertzio kopurua askoz ere txikiagoa da; erdia hain zuzen ere.

Arantzazu eta Artea dira herritarrei begirako txikizkari kopuru gutxien duten herriak. Bertako herritarrak inguruko herrietara joaten dira erosketak egitera.



Establezimendu txikizkari kopurua oso handia ez dela kontuan izanik, badirudi merkataritzatik ogibidea ateratzen duten pertsona kopurua ere ez dela oso ugaria Arratian.



Iturria: Garapen

Ostatua eta Gastronomia


Ostalaritzari dagokionez, Arratian hainbat dira taberna eta jatetxeak. Establezimendu hauek eskualdean zehar nahiko sakabanatuta daude Igorre, Dima eta Lemoa sektore honetan eskaintza zabalena duten herriak izanik.

Gastronomiari dagokionez, Lemoa, Igorre, Dima eta Areatza dira eskaintza zabalena duten herriak, hurrenez hurren. Ostatu, hotel eta landetxeei dagokienez ordea, Zeanuri, Dima eta Artea kokatzen dira lehen postuetan, Arratiatik pasatzen diren turista askok, kasu gehienetan, herri horietan hartzen dutelarik ostatu.



Iturria: Herri bakoitzeko webgune ofizialak

Arratiara datorren bisitaria





Arratian, bisitari kopuru altuena apirilean eta udazkeneko hilabeteetan (urria-azaroa) biltzen da. Udan ere nahiko bisitari kopuru altua izaten da, baina halere udazkenean baino gutxiago.

Bisitari kopuruari dagokionez, hein handi batetan Bizkaitarrak dira Arratiara hurbiltzen direnak. Arabatik ere nahiko joera dago.

Araba	628	% 11,42
Bizkaia	2.916	% 53,01
Gipuzkoa	208	% 3,78


Estatutik datorren bisitariari dagokionez, kataluniarrak, madrildarrak eta valentziarrak dira Arratia bisitatzen dutenak, hurrenez hurren.

Bisitari atzerritarra, hein handi batean, Frantzia, Belgika, Argentina eta Erresuma Batutik dator.



Arratiara hurbiltzen den turistaren perfila

- Pertsona nagusia, heldua. Hau da, 29 urtetik 65era bitartekoa. Horietatik, batzuk hurrekin batera datoz Arratiara. Aurreko aurretik adierazi bezala, nagusiki EAEko bisitaria da Arratiara datorrena eta konkretuki Bizkaitarra.
- Jubilatuta eta gazteentzat ere leku interesgarria da.
- Oro har, Arratiara bisitan datorrenari plano eta mapak interesatzen zaizkio, museoak eta bestelako paperezko euskarriak, hurrenez hurren.
- Naturarekin lotutako turismoa eta jarduera kulturalak ere bisitariaren intereseko gaiak dira.



3.3. Hezkuntza eta ikerketa

3.3.1. Formazio eskaintza

Arratian herritarren derrigorrezko-formazio beharrianak asetzeko formazio eskaintza ugari dago, ikastetxe eta ikasketa zentro ezberdinen eskaintzari esker. Ikasketa zentroak, Arratiako 7 herrietan sakabanatuta daude.

Arantzazu da formazio eskaintzarik ez duen herri bakarra. Bertako biztanleak inguruko herrietara mugitzen dira hezkuntza beharrianak asetzera.

Haur txikiei bideratutako zerbitzua, 0-2 urte bitartekoa hain zuzen ere, herri guztietan eskaintzen da.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza ikasteko aukera ere, oro har zabala da; Bedia eta Arantzazun izan ezik, gainerako herrietan Eskola Publikoak daude, 2-12 urteko eskaintza dutelarik.

DBH ikasteko Arratian bi zentro daude: Igorreko Arratia BHI eta Lemoako JB Eguzkiza Meabe ikastetxea. Bedia eta Lemoako ikasleak Lemoan gauzatzen dituzte beraien ikasketak eta gainerako herrietakoak Igorren.

Batxilergoa ikasteko aukera ordea, soilik bi ikastetxetan dago. Igorreko Arratia BHI eta Zeanuriko Zulaibar Lanbide Ikastegian.

Arratian Lanbide Heziketa ikasi nahi duenak ere badauka eskaintza eskualdean: Zulaibar Lanbide Ikastegian, Erdi mailako eta Goi mailako Heziketa Zikloak eskaintzen dira. Ondorengo taulan zerrendatzen dira Zulaibar Lanbide Ikastegian eskaintzen diren Heziketa Zikloak:

Zulaibar Lanbide Ikastegiko eskaintza

Erdi Mailako Zikloak	Goi Mailako Zikloak
• Mekanizazioa • Instalazio elektrikoak eta automatikoak	• Fabrikazio mekanikako bidezko produkzioaren programazioa • Haur Hezkuntza
Lanbide Heziketa Duala: Ikastetxearen eta enpresaren artean partekatuta garatzen den ikaskuntza-prozesua	
Oinarrizko Lanbide Heziketa: DBH titulua ez duten pertsonentzat, Erdi eta Goi mailako Zikloak egin ahal izateko sarbidea	
Etengabeko Prestakuntza, Lanerako Prestakuntza	

3.3.2. Ikerketa eta garapena

Arratian hainbat dira Zerbitzu teknologikoak eskaintzen dituzten enpresak; hala nola:

IDELT, Ingeniería de Desarrollo de Prototipos	ADS-IMG Ingeniería. GRUPO BRINEAN	AIDA INGENIERÍA S.L
☐ Produktuen Garapen ☐ Azkarra. "Rapid Prototyping eta Rapid Tooling" ☐ Ingeniaritza eta Diseinua ☐ Prototipoak, Prototipo funtzionalak eta Azken materialean aurkezpena	☐ Grupo Brinean-eko I+G+iko barne departamentua I+G+i lanak teknologia berrietan eta ekoizpen prozesuetan laborategia, produktu berrien homologaziorako	☐ Intercambiadoreen diseinua ☐ Produktu propioen diseinu eta ekoizpena ☐ Proiektu industrialak...


Arratian, ez dago I+G+i egitera dedikatzen den zentrorik. Eskualdean dagoen ikerketa aktibitatea bertako enpresa erreferenteek barnean dituzten I+G+i unitateak dira. Hona hemen I+G+i egiten duten enpresa esanguratsuenak: BATZ S. KOOP., WALTERPACK eta ORMAZABAL.

3.4. Sektore publikoak definituriko planak.

3.4.1. Arratiako Udalen Mankomunitateak zehazturiko Arratia 2020

Iraunkortasunerako ekintza plana: Arratia 2020.

2012an definitutako ekintzen eskema orokorra:



2012an zehazturiko ekintzen hedatzea:

1- Hiri hondakinen kudeaketa iraunkorra

- 1.1. Hiri-hondakinen sorrera murriztea
- 1.2. Hiri-hondakinen bilketa selektiboa hobetzea
- 1.3. Hiri-hondakinen kudeaketa eta tratamendu iraunkorra
- 1.4. Hiri-hondakinen gaineko ordenantzak eta zerga-sistema eguneratzea
- 1.5. Hiri-hondakinen gaineko sentsibilizazioa
- 1.6. Hiritarren erantzukidetasuna hiri-hondakinak sortu eta bereiztean

2- Eraginkortasun energetikoaren hobekuntza

- 2.1. Egitura energetiko iraunkorragorantz aurrera egitea
- 2.2. Energia berriztagarrietatik datorren energiaren erabilera eta ekoizpena areagotzea
- 2.3. Tokiko administrazioko kudeaketa energetikoa hobetzea
- 2.4. Udaleko eta mankomunitateko ekipamendu eta zerbitzuetan kontsumo energetikoa hobetzea
- 2.5. Eraginkortasun energetikoaren gaineko sentsibilizazioa

3- Hiritarren informazio, komunikazio, sentsibilizazio eta partaidetza hobetu eta egokitzea

- 3.1. Arratiako Udalen Mankomunitateko komunikazio-jarduerak garatzea era koordinatu, programatu, anitz eta askotarikoan
- 3.2. Sentsibilizazioa

4- Administrazio publikoan iraunkortasun-irizpideak sartzea

- 4.1. Zeharkako iraunkortasun-politikak garatzea
- 4.2. Barneko lankidetzak, koordinazioa eta komunikazioa hobetzea
- 4.3. Tokiko Agenda 21en kudeaketa
- 4.4. Lidergo politikoa iraunkortasunaren gainean
- 4.5. Administrazioan erosketak eta kontratazio publiko berdea sustatzea

5- Biztanleriaren gizarte-ongizatea hobetzeko bidean aurrera egitea

- 5.1. Biztanleria guztiak orokorrean Gizarte Zerbitzu eta Prestazioetan dauden baliabide eta informazioa ezagutzen duela eta eskuratu ahal duela lortzea
- 5.2. Udalaren eskumeneko Gizarte Zerbitzuak sustatu eta garatzea, Gizarte Zerbitzuen Legearen arabera
- 5.3. Erkidegoko baliabideen (3. adinekoen, gazteen, emakumeen ... elkarteak) promozioan eta dinamizazioan laguntzea, izaera integratzailearekin
- 5.4. Baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen berariazko programak garatzea
- 5.5. Erakunde arteko eta erakunde barruko lankidetzak hobetzea

5.6. Arratian boluntario-lana garatzea

5.7. Babesik gabe (maila arin eta neurtuan) dauden adingabeen kasu guztiak jorratzea, gizartean eta hezkuntzan parte hartzeko programaren bidez

5.8. Osasuna sustatzea eta droga-mendekotasuna prebenitzea.

6- Arratian emakume eta gizonen berdintasuna sustatu eta indartzea, berdintasunerako gobernantzaren, jabekuntzaren, gizarte-antolakuntza arduratsuaren eta genero-indarkeriaren kontrako borrokaren bidez

6.1. Berdintasun-egiturak sortu eta mantentzea.

6.2. Berdintasun neurri orokorrak ezartzea.

6.3. Emakumeen jabekuntza pertsonala hobetzea.

6.4. Baliabide ekonomiko eta sozialen sarbidea eta kontrola hobetzea.

6.5. Emakumeen partaidetza soziopolitikoa sustatzea.

6.6. Denboraren erabilera berriak eta erantzukidetasuna hobetzea.

6.7. Genero indarkeriaren biktimentzako arreta.

6.8. Genero indarkeriaren gaineko koordinazioa.

6.9. Berdintasunaren gaineko prebentzioa sustatzea.

7- Arratiako sektore eta talde guztientzako enplegu politikak garatzea

7.1. Eskualdeko Enplegu Plana garatzea.

7.2. Enplegu berdea sustatzea.

7.3. Prestakuntzako eta laneratzeko ekintzak garatzea, erakunde lankideekin, lanbide-zentroekin, unibertsitateekin, enprekin ... lankidetzan.

8- Arratiako udal gaztedi programa garatzea

8.1. Arratiako Udal gaztedi programa garatzea.

9- Herritarren partaidetza bultzatzea

9.1. Herritarren partaidetza bultzatzea eskualde mailan.

9.2. Herritarren partaidetza bultzatzea toki mailan.

3.5. EUSKARA

3.5.1. GAITASUNA

Oro har, Arratia eskualdea euskalduna dela esan dezakegu, biztanleriaren %83 euskalduna edo ia-euskalduna delako. Adierazle hauek Bizkaia eta EAEko datuekin konparatuz oso altuak dira.

Bi urtetik gorako biztanleriaren sailkapena herrika:

	Euskaldunak	Ia- -euskaldunak	Erdaldunak	Guztira
Bedia				
2001	578	161	223	962
2006	540	192	213	945
2011	572	192	197	961
Lemoa				
2001	1618	569	420	2607
2006	1620	686	540	2846
2011	1865	801	697	3363
Igorre				
2001	2774	525	478	3777
2006	2666	687	564	3917
2011	2742	585	704	4031
Dima				
2001	907	84	35	1026
2006	969	143	67	1179
2011	1088	129	102	1319
Arantzazu				
2001	244	23	15	282
2006	237	36	18	291
2011	259	49	33	341
Artea				
2001	531	60	39	630
2006	514	88	56	658
2011	553	104	80	737
Areatza				
2001	317	227	163	707
2006	611	255	171	1037
2011	708	265	208	1181
Zeanuri				
2001	996	71	48	1115
2006	996	141	93	1230
2011	998	138	140	1276

Iturria: Eustat

	Euskaldunak	Ia- -euskaldunak	Erdaldunak	Guztira
Arratia				
2001	7965	1720	1421	11106
2006	7639	2140	1666	11445
2011	8785	2263	2161	13209


Datuetan ikus daitekeen bezala, herritarren kopuruak gora egin du, eta aldi berean euskaldun eta erdaldun kopuruak ere. Bestalde, datuak ehunekotara eramanda eman den aldaketa argiago ikus dezakegu:

	Euskaldunak	Ia- -euskaldunak	Erdaldunak
Bedia			
2001	60,08	16,73	23,18
2006	57,14	20,32	22,54
2011	59,52	19,98	20,50
Lemoa			
2001	62,06	21,82	16,11
2006	56,92	24,10	18,97
2011	55,46	23,82	20,72
Igorre			
2001	73,44	13,90	12,65
2006	68,06	17,54	14,40
2011	68,02	14,51	17,46
Dima			
2001	88,40	8,18	3,4
2006	82,19	12,13	5,68
2011	82,49	9,78	7,73
Arantzazu			
2001	86,52	8,16	5,32
2006	81,44	12,37	6,18
2011	75,95	14,37	9,68
Artea			
2001	84,28	9,52	6,19
2006	78,11	13,37	8,51
2011	75,03	14,11	10,85
Areatza			
2001	44,84	32,11	23,05
2006	58,92	24,60	16,49
2011	59,95	22,44	17,6
Zeanuri			
2001	89,33	6,36	4,30
2006	80,97	11,46	7,56
2011	78,2	10,8	10,97

Iturria: Eustat


Hona hemen herriz herri datuak grafikoetara eramanda eta hamar urteko bilakaeraren irakurketa arina:

Bedia




Bedian euskaldun kopuruak 0,5 puntu egin du behera eta erdaldun kopuruak 2,6 gora.

Lemoa




Lemoan euskaldun kopuruak 6,6 puntu egin du behera eta erdaldun kopuruak 4,6 gora.

Igorre




Igorren euskaldun kopuruak 5,4 puntu egin du behera. Eta erdaldun kopuruak 4,8 gora.

Dima




Diman euskaldun kopuruak 5,9 puntuan egin du behera eta erdaldun kopuruak 4,3 gora.

Arantzazu




Arantzazun euskaldun kopuruak 10,5 puntuan egin du behera eta erdaldun kopuruak 4,3 gora.

Artea




Artean euskaldun kopuruak 9,2 puntuan egin du behera eta erdaldun kopuruak 4,6 gora.

Areatza



Areatzan euskaldun kopuruak 15,1 puntuan egin du gora eta erdaldun kopuruak 5,4 behera.

Zeanuri



Zeanurin euskaldun kopuruak 11,1 puntuan egin du behera eta erdaldun kopuruak 6,7 gora.

Datuen irakurketa

Ehunekoetan gora egin duen herri bakarra Areatza izan da, 15 puntuan gainera.

Zeanuri, berriz, ehunekotan euskaldun kopuruan gehien jaitsi den herria izan da.


Hala ere, ehunekotan euskaldun gehien dituen herria Dima da, % 82,5arekin. Euskaldun gutxien dituen herria, ordea, Lemoa da, % 55,5arekin.

Eskualde mailan honakoak dira batez besteko datuak ehunekotan:

	Euskaldunak	Ia- -euskaldunak	Erdaldunak
Arratia			
2001	71,72	15,49	12,79
2006	66,74	18,70	14,56
2011	66,51	17,13	16,36

Iturria: Eustat

Arratia



Ikus daitekeen bezala, euskaldunen kopuruak behera egiteko joera hartu du, eta hamar urtean 5,2 puntu egin du behera. Erdaldun kopuruak, berriz, 3,5 puntu egin du gora.

3.5.2. ERABILERA

Erabilerari dagokionez, oso ikerketa gutxi dago gure eskualdean. Egon diren migrazio fluxuen eraginez, batez ere, Lemoa eta Bedian, erdaldun elebakarren kopuruak gora egin du nabarmen, eta hori horrela islatu da ezagutza datuetan.

Orain erabilerari erreparatuko diogu, eta ikusten den legez, ezagutzan beherea egin den bezala, erabileran ere portzentajeak jaitسي dira. Hemen Arratiako etxeetan hitz egiten den hizkuntza:

Etxeko hizkuntza:

	Euskara	Biak	Gaztelera	Beste bat	Guztira
Bedia					
2001	388	128	475	3	991
2006	281	171	519	2	971
2011	279	159	526	12	964
Lemoa					
2001	920	517	1235	9	2672
2006	832	485	1613	12	2930
2011	858	420	2085	105	3363
Igorre					
2001	1712	824	1314	7	3850
2006	1498	853	1639	23	3990
2011	1784	515	1782	104	4081
Dima					
2001	772	148	124	8	1044
2006	627	308	274	5	1209
2011	840	142	364	15	1346
Arantzazu					
2001	207	26	54	2	287
2006	155	72	72	1	299
2011	179	44	135	1	358
Artea					
2001	360	143	141	0	644
2006	316	170	188	4	674
2011	385	96	274	8	755
Areatza					
2001	328	298	394	11	1020
2006	367	224	473	6	1064
2011	356	200	620	42	1176
Zeanuri					
2001	913	84	145	1	1142
2006	625	318	317	3	1260
2011	775	103	419	19	1297

Iturria: Eustat


	Euskara	Biak	Gaztelera	Beste bat	Guztira
Arratia					
2001	5600	2168	3882	41	11650
2006	4385	2431	4907	52	11723
2011	5456	1679	6205	306	13340

Datuetan ikus daitekeen bezala, familia kopuruak ugaritu dira herri guztietan. Etxeko hizkuntza euskara duten familia kopuruak behera egin du herri askotan. Era berean, erdaldun kopuruak gora egin du. Ehunekoetan nabarmenagoak dira aldaketa horiek:

	Euskara	Biak	Gaztelera	Beste bat
Bedia				
2001	39,15	12,92	47,93	0,30
2006	28,94	17,61	53,45	0,21
2011	28,94	16,49	54,56	1,24
Lemoa				
2001	34,43	19,35	46,22	0,34
2006	28,40	16,55	55,05	0,41
2011	25,51	12,49	62,00	3,12
Igorre				
2001	44,47	21,40	34,13	0,18
2006	37,54	21,38	41,08	0,58
2011	43,71	12,62	43,67	2,55
Dima				
2001	73,95	14,18	11,88	0,77
2006	51,86	25,48	22,66	0,41
2011	62,41	10,55	27,04	1,11
Arantzazu				
2001	72,13	9,06	18,82	0,70
2006	51,84	24,08	24,08	0,33
2011	50,00	12,29	37,71	0,28
Artea				
2001	55,90	22,20	21,89	0,00
2006	46,88	25,22	27,89	0,59
2011	50,99	12,72	36,29	1,06
Areatza				
2001	32,16	29,22	38,63	1,08
2006	34,49	21,05	44,45	0,56
2011	30,27	17,01	52,72	3,57
Zeanuri				
2001	79,95	7,36	12,70	0,09
2006	49,60	25,24	25,16	0,24
2011	59,75	7,94	32,31	1,46


Hona hemen herriz herri datuak grafikoetara eramanda eta hamar urteko bilakaeraren irakurketa arina:

Bedia




Bedian familia 10 puntuan egin du behera eta erdaldun kopuruak 6,63 gora.

Lemoa




Lemoan familia euskaldun kopuruak ia 9 puntuan egin du behera eta erdaldun kopuruak, berriz, 15,75 inguru egin du gora.

Igorre




Igorren familia euskaldun kopuruak 0,75 puntuan egin du behera. Erdaldun kopuruak, ostera, 9,5 gora.

Dima




Diman euskaldun kopuruak 11,54 puntuan egin du behera eta erdaldun kopuruak 15 gora.

Arantzazu




Arantzazun familia euskaldun kopuruak 22 puntuan egin du behera eta erdaldun kopuruak ia 19 puntuan gora.

Artea




Artean familia euskaldun kopuruak ia 5 puntuan egin du behera. Erdaldun kopuruak, berriz, 14,5 gora.

Areatza



Areatzan familia euskaldun kopuruak ia 2 puntuan egin du behera eta erdaldun kopuruak 14 gora.

Zeanuri



Zeanurin familia euskaldun kopuruak 20 puntuan egin du behera. Erdaldun kopuruak, oster, 19,5 gora.

Datuen irakurketa

Arratiako udalerri guztietan euskara familia hizkuntza duten ehunekoak jaitsi dira, gehiago edo gutxiago. Gaztelania etxeke hizkuntza duten familia kopuruak, aldiz, nabarmen egin du gora. Udalerrri guztietan euskara eta gaztelania etxean erabiltzen dituzten familia kopuruak jaitsi dira.


Ehunekoetan gutxien jaitsi den herria Igorre izan da, 0,75; gehien, berriz, Arantzazu, 22 puntu egin ditu-eta gora.

Eskualde mailan honakoak dira batez besteko datuak ehunekotan:

	Euskara	Biak	Gaztelera	Beste bat
Arratia				
2001	48,07	18,61	33,32	0,35
2006	37,40	20,74	41,86	0,44
2011	40,90	12,59	46,51	2,29

Iturria: Eustat

Arratia(datuak ehunekotan)




Ikus daitekeen bezala, familia euskaldunen kopuruak behera egin du nabarmen 2001etik 2006ra arte eta goranzko txiki bat izan du ondorengo bost urteetan. Hamar urtean 7 puntu egin du behera. Erdaldun kopuruak, berriz, goranzko bilakaera izan du eta 13 puntu egin du gora. Bestalde, hizkuntza biak dituzten familia kopuruak behera egin du herri guztietan eta eskualde mailan batez beste 6 puntu egin du behera.


Igorreko Kale Erabilera Neurketak (Klusterre)

Azken urteetan hainbat ikerketa egin izan dira Igorren hizkuntzen kale-erabilera neurtzeko: 2001, 2006 eta 2011n. Hamarkada batean emandako bilakaerako datuak ditugu, beraz.

Lehenik eta behin, Igorreko ezagutza datuak ekarriko ditugu gogora:



Hemen Kale Erabilerako datuak grafikoetara eramanda:



Iturria: datuak Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa ikerketatik eskuratu dira.

Ikus daitekeen bezala, euskararen erabilerak gora egin du nabarmen Igorren: 2001eko %32,9tik, hamar urte geroagoko % 46,8ra: 14 puntu gora, beraz.

Taula biak alderatzen baditugu, esan beharra dago ezagutzak behera egin duen arren, kaleko erabileran euskarak gora egin duela, euskaldunen euskararekiko leialtasunaren adierazle. Hori ikusita, eta Topaguneko txostenean esandakoa kontuan izanda, herriko euskaldunak gero eta trinkotuago bizi direla esan dezakegu, eta euren arteko harreman-sarea gero eta biziagoa eta aberatsagoa dela.

Berbalagun

Herrian euskara jagon eta indartu guran Lemoan eta Igorren Berbalagun egitasmoa dago martxan, euskara kaleetara ateratzeko, nagusien aisialdian, hizkuntza ohituretan eragin gura da. Astean gutxienez ordubete talde txikietan euskaraz berba egiteko aukera ematen duen proiektua da. Eta bertan parte hartu ahal dute euskaraz bizi eta euskara praktikatu gura duten guztiek.

Lemoan 25 lagun ari dira 5 taldetan. Igorren, berriz, 16 parte-hartzaile daude 3 taldetan banatuta.


Artea eta Areatzan elkarlanean egitasmoa abian jartzeko pausoak ematen ari dira. Zeanurik eta Dimak ere epe laburrean proiektua abian jartzea aurreikusi dute.

3.5.3. EUSKALDUNTZEA

Arratian euskaltegi bakarra dago, AEK-ko Kubulu euskaltegia. Egoitza Igorren dagoen arren, eskualdeko beste herri batzuetan ere ematen dituzte eskolak: Bedian, Lemoan, Diman, Artean, Areatzan eta Otxandion. Herri horietan Udalen azpiegiturak erabiltzen dituzte.

Hona hemen euskaltegiak emandako datuetatik (2006-2007 ikasturtetik aurrerakoak dira) ateratako grafikoak.

Ikasle eta talde kopurua⁷:



Ikusten dugunez, euskaltegiak izan dituen talde eta ikasle kopuruan gorabeherak egon dira azken urteetan, baina joera goranzkoa dela esan daiteke.


2006-2007 ikasturtea eta 2015-2016 alderatzen baditugu, ikasle eta talde kopuruak 162 eta 233 puntu egin dute gora, hurrenez hurren.

Talde eta ikasle orduei dagokienez, modulazio motek eragina izan dute horretan (beherago datuen taula), eta batean zein bestean datuek nabarmen egin dute gora.


Datu zehatzik ez dagoen arren, euskaltegian matrikulatutako ikasleak Arratiakoak ez direnak dira gehienbat, kanpotik etorritako helduak, alegia (EAE, Estatu edo nazio-mailakoak).

⁷ 2015-2016 ikasturtean Otxandioko kudeaketa barneratu du Kubulu euskaltegiak. Beraz, azken ikasturteko datuen artean Otxandiokoak ere islatuta daude.

Talde eta ikasle orduak:



Taldeetako ikasleen ratioaren bilakaera:



Ikus dezakegunez, ratioan ere gorabeherak egon dira. Maila bereko taldeak sortzeko orduan zailtasunak egoten dira ordutegi aldetik. Euskaltegian euskalduntzeko gogoia duten ikasleen ordutegiak ez dira uztargarriak izaten eta ondorioz, talde heterogeneoak sortzeko aukera baino ez da egoten.

Datu horiek guztiak aztertuta eta Arratiako Kubulu euskaltegiko egoera zein den ezagututa, honakoa da duen AMIA (Aukerak, Mehatxuak, Indarguneak, Ahuleziak):

Kanpo Faktoreak:

Aukerak (+):

- ESEPetik etorri den eta etor daitekeen eskaera.
- Haberen maila homologatuak.
- Igorre, Areatza, BATZ eta Lemoako euskara planak.
- Arratiara Bizkaiko beste herri batzuetatik etorritako jendea.
- Arratiako udal batzuetako beka-sistema: ordenantza berria, Igorren, Artean, Arantzazun.

Mehatxuak (-):

- Lehiakideengandik etor daitezkeen mehatxuak.
- Ikasle hazkundera moteltzeko mehatxuak.
 1. Krisi ekonomikoa
 2. Homologazio dekretua
 3. Taldeak sortzeko arazoak. Arratian dagoen sakabanaketa geografikoak taldeak sortzeko zailtasunak ekartzen ditu, eta eskatzen dena erantzutea zaila egiten da.
 4. D ereduaren eraginez, ohiko merkatua ia desagertu da.
 5. Lan munduko egonkortasun eza eta antolaketa (jende asko txandaka).
 6. Aisialdian ematen diren aukera anitz doakoak izaten dira.
 7. Euskara ikasteko ordaindu behar izatea. Matrikulen prezioak.
 8. Etorkinak euskal mundura erakartzeko politika eraginkorrik eza.
 9. Erdaldunek ez dute euskararen beharrik igartzen, euskaldunok ez dugu presio sozial nahikorik egiten.

Barne faktoreak:

Indarguneak (+):

- Batzuk eskarmentu handiko langileak dira, erronka berriei heltzeko beti prest agertzen direnak.
- Hobetzeko gogo handia.
- Gainerako elkarteekin AEK-k duen harremanetarako eta elkarlanerako gaitasuna.
- Arratiako kolore guztietako politikariekin dauzkaten harreman onak.
- Enpresa-taldeetan hartutako esperientzia.
- Azken urteotako ikasleen fideltasuna

Ahuleziak (-):

- Lan baldintzak: oso zaila da lanaldia osatzea, talde askoren ordutegiak bat egiten duelako askotan.
- Euskaltegiko eskaintza jorratzeke dauden eremuetan aurkeztea eta saltzea oso zaila egiten zaie. Gainera, horrelakoak egiteko betarik ere ez dute izaten.
- Irakaskuntzan eskaintzen zaien barne zein kanpo formazioa hartzeko zailtasun asko, horrek dakarren atzerapenarekin.
- Ratioa bete beharra.
- Euskaltegiak (lokalak) duen tamainak gela desplazatueta eramaten ditu irakasleak, baita ikasleak ere. Euskaltegiko giroa eskastuz.
- Irakasle gelaren txikitasuna.

3.5.4. ADMINISTRAZIOA (Arlo publikoa)

Administrazioari dagokionez Arratiako Udalen Mankomunitatea eta Bedia, Lemoa, Igorre, Dima, Arantzazu, Artea, Areatza eta Zeanuriko udalen datuak aztertuko ditugu. Datu horiek euskararen erabilera eta ezagutza areagotzeko dituzten ekimenetan eta euskara arlo desberdinetan sustatzekoetan oinarritu dira.

Arratiako Udalen Mankomunitatea

Aurretik emandako datuetan ikusi bezala, Arratiako Udalen Mankomunitateak etorkizunerako egindako ikuspegian, 2012an zehaztutako ekintzen zehaztapenetan, alegia, ez dago euskara sustatzeko erronkarik.

Mankomunitateak, beraz, ez du bere gain hartzen eskualde mailako euskararen gaineko ardurarik.

2002. urtean euskara teknikari lanpostu bat atera zen Mankomunitatean. Denbora gutxiz egon zen zerbitzua abian; izan ere, orduko teknikaria beste udalerri batera joan zen lanera eta ez zen horren ordezkorik jarri egitasmoak aurrera jarrai zedin. Mankomunitatearen esanetan, udalerri bakoitzak euskararen sustapena bere gain hartu zuelako geratu zen zerbitzua bertan behera, mankomunitateko euskara zerbitzua helburu barik geratu zelako.

Horretaz gain, mankomunitateak ez dauka bere kudeaketarako euskara planik abian.

Udalak

Arratiako udalerri bakoitzaren egoera linguistikoa desberdina da eta udal bakoitzak euskararen erabilera sustatzeko dituen baliabide ekonomiko eta pertsonalak ere bestelakoak dira.

Hori dela eta, hizkuntza normalizatzeko prozesuan, errealitate ezberdinek tratamendu ezberdinak behar dituzte eta udalerri bakoitzaren planak eta eginbideak horri erantzuteko sortu dira.

Hemen, herriz herri⁸, eta lortutako datuen arabera dauden baliabideak (ekonomikoak zein pertsonalak) eta herri bakoitzean lehenetsi diren lan-arloak:

⁸ Bedia, Arantzazu eta Arteako udalek ez dizkirate datuak bidali oraindik, beraz, datu ekonomikoei dagokienez adibidez, datu zehatzik ezin izan dut jarri. Herri horiei buruz idatzita dagoena beste iturri batzuetatik jasotakoak dira.

Bediako Udala:

- Euskara Zerbitzua (azpikontratazioa).
- Astean goiz bateko zerbitzua ematen da.
- Lantzen diren arloak: Familia Transmisioa eta Euskalduntzea.
- Beka sistema: Badago
- Udal langile bat dago euskaraz ez dakiena eta normalean ez ditu herritarrak artatzen. Hala ere, batzuetan funtzio hori bete behar izaten du.

Lemoako Udala:

- Udalerriko euskara plana abian 2008tik dago.
- ESEP 2013-2017 plan estrategikoa (Erabilera plana barne).
- Euskara Zerbitzua (azpikontratazioa: 45.700€).
- Astean 26 orduko zerbitzua ematen da, astegun guztietan.
- Kudeaketa Plana gauzatu ahal izateko 22.000 €-ko aurrekontua dago.
- Planaren jarraipena egiteko Euskararen Aholku Batzordea dago.
- Lantzen diren arloak: Motibazioa eta sentsibilizazioa; Familia Transmisioa; Irakaskuntza; Euskalduntzea; Erabilera (Berbalagun); Administrazioa; Arlo sozioekonomikoa (lan mundua eta merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu orokorrak); elkarlana.
- Arlo batzuetan arloko elkarguneak daude (familia transmisioaren elkargunea; aisia, kirol eta kultur elkarteena).
- Euskara eskolak Udaleko ikastaroen barruan daude eta AEKren bitartez kudeatzen dira.
- Beka sistema: % 80 arte (3.000 €-ko poltsa dago). Modulazioaren, trinkotasunaren eta asistentziaren arabera kalkulatu da ikasle bakoitzak jaso beharreko ehunekoa.
- Hitzarmengintza egitasmoa: aisian, kulturean, kirolean, merkataritzan eta lan munduan.
- Elkarreentzako diru-laguntzetan euskararen erabilerari puntuazio berezia ematen zaio.
- Euskara sustatzeko aurrekontua orotara: 70.700 €, aurrekontu osoaren (3.786.644 €) % 1,87.
- Udal barruko dokumentuak itzultzeko aurrekontua: 16.000 €

Igorreko Udala:

- 2003tik dago udalerriko euskara plana abian eta 2009tik Udal Erabilera Plana.
- ESEP 2015-2017 plan estrategikoa dago indarrean eta 2013-2017 Erabilera plana.
- Euskara Zerbitzuaren langile bat dago lanean jardun osoz.
- Kudeaketa Plana gauzatu ahal izateko 39.000 €-ko aurrekontua dago.
- Planaren jarraipena egiteko Euskara Batzordea dago. Udal Erabilera Planaren jarraipena euskara teknikariak egiten du..
- Lantzen diren arloak: Motibazioa eta sentsibilizazioa; Familia Transmisioa; Euskalduntzea; Erabilera (Berbalagun); Administrazioa; Arlo sozioekonomikoa ; aisia, kultura eta kirola; ume eta gazteen aisialdia eta gune geografiko euskaldunenak eta liburugintza.
- Arlo batzuetan arloko elkarguneak daude.
- Xede berezietarako taldeak finantzatzen ditu eskualdeko euskaltegian (guraso eta merkatarientzat).
- Beka sistema: % 100 (14.000 €-ko poltsa dago, baina kreditu aldaketa egitea aurreikusten da, beharrianik egonez gero).
- Hitzarmengintza egitasmoa: aisian, kulturan, kirolean, merkataritzan eta lan munduan.
- Elkarreentzako diru-laguntzetan euskararen erabilerari puntuazio berezia ematen zaio.
- Euskara sustatzeko aurrekontua orotara: 125.000 € (aurrekontu osoaren % 2,8).
- Udal barruko dokumentuak itzultzeko aurrekontua: 6.000 €.

Dimako Udala:

- 2006tik dago udalerriko euskara plana abian eta 1996tik Udal Erabilera Plana.
- Egungo markoa ESEP 2014-2016-ko plan estrategikoa du oinarri.
- UEMAKo udalerria da, beraz, presentzialki zerbitzurik eduki ez arren, teknikari baten aholkularitza bideratzen da plana.
- Kudeaketa Plana gauzatu ahal izateko 13.000 €-ko aurrekontua dago.
- Planaren jarraipena egiteko Euskara Batzordea dago.
- Lantzen diren arloak: Familia Transmisioa; Irakaskuntza; Euskalduntzea eta alfabetatzea; Administrazioa; Arlo sozioekonomikoa (itzulpen zerbitzua); gune geografiko euskaldunenak, aisia eta kirola, liburugintza; kulturgintza; publizitatea; Corpus Plangintza eta euskararen kalitatea; barruko eta kanpoko proiektzioa.

- Beka sistema: % 85 arte (ikasleen diru-sarreraren arabera ehunekoa eta gehienezko zenbatekoa zehaztuta dago).
- Elkarreentzako diru-laguntzetan euskararen erabilerari puntuazio berezia ematen zaio.
- Euskara sustatzeko aurrekontua orotara: 13.000 € (aurrekontu osoaren % 0,98).
- Udal barruko dokumentuen itzulpena Udalean egiten den lana da.

Arantzazuko Udala:

- Plana garatzeko eta jarraipena egiteko Euskara eta Kultura Batzordea dago.
- Lantzen diren arloak: Motibazioa eta sentsibilizazioa; Familia Transmisioa; eta Euskalduntzea;
- Beka sistema: Badago.
- Udal barruko dokumentuak itzultzeko aurrekontua:
- Udal barruko dokumentuen itzulpena Udalean egiten den lana da.

Arteako Udala:

- UEMAko udalerrria da, beraz, presentzialki zerbitzurik eduki ez arren, teknikari baten aholkularitzaz bideratzen da plana.
- Lantzen diren arloak: Motibazioa eta sentsibilizazioa; Familia Transmisioa; Euskalduntzea eta Erabilera (Berbalagun).
- Beka sistema: Badago.

Areatzako Udala:

- 2003an udalerriko euskara plana jarri zen abian.
- 2008-2012 Udal Erabilera Plana.
- ESEP 2013-2017 plan estrategikoa (diagnostikoa eta planaren diseinua egiteko zerbitzua azpikontratatuta).
- Euskara Zerbitzua kontratatuko dute irailetik aurrera (4.500 €).
- Astean goiz batez.
- Kudeaketa Plana gauzatu ahal izateko 8.500 €-ko aurrekontua dago.
- Planaren jarraipena egiteko Euskara Batzordea dago.
- Lantzen diren arloak: Motibazioa eta sentsibilizazioa; Familia Transmisioa; Arlo sozioekonomikoa (merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu orokorrak).
- Beka sistema: % 80 arte (4.500 €-ko poltsa dago).

- Euskara sustatzeko aurrekontua orotara: 17.500 € (aurrekontu osoaren % 0,97).
- Toponimia ikerketa: 17.200 €
- Udal barruko dokumentuen itzulpena Udalean egiten den lana da.

Zeanuriko Udala:

- 2009tik dago udalerriko euskara plana abian. Eta 2009-2012 bitartean gauzatu zen Udal Erabilera Plana.
- 2015-2017 plan estrategikoa (diagnostikoa eta planaren diseinua egiteko zerbitzua azpikontratatuta).
- Kudeaketa Plana gauzatu ahal izateko 6.000 €-ko aurrekontua dago.
- Udalak garatzen du plana eta horren jarraipena egiten du.
- Lantzen diren arloak familia transmisioa eta ume eta gazteen aisialdia dira.
- Berbalagun egitasmoa abiatzea aurreikusi da.
- Beka sistema: % 50 (3.000 €).
- Euskara sustatzeko aurrekontua orotara: 9.000 € (aurrekontu osoaren % 0,47).
- Udal barruko dokumentuen itzulpena Udalean egiten den lana da.

Udalen artean koordinazio eta koherentzia gutxi

Administrazioko arlo honetan ikusi dugunez, udal bakoitzak bere errealitateari erantzuteko plana dauka eta modu batera edo bestera, helburuak lortze aldera baliabide ekonomiko eta pertsonalak jartzen dira ekintzak bideratu ahal izateko.

Kopuru ekonomikoei dagokienez, udal bakoitzeko aurrekontu osoaren ehunekotara eramanda argiago ikus dezakegu ekonomikoki bakoitzak egiten duen esfortzua. Lortutako datuen arabera gutxienetik handienera honakoa da sailkapena: Zeanuri % 0,4, Areatza % 0,97, Dima % 0,98, Lemoa % 1,87 eta Igorre % 2,8.

Udalerri bakoitzak dituen helburuak erreparatzen baditugu, ikusiko dugu elkarlana lantzeko helburua dutenak oso gutxi direla. Gainera, askotan elkarlan hori udalerriko arlo desberdinetara baino ez da mugatzen. Udalerrien arteko elkarlana eta koordinazioa ez da lehenesten, onurak eta baliabideen optimizazioa ekarri ahal dien arren, batez ere familia transmisioa arloan.

Beka sistema

Euskara ikasteagatiko beka sistemari dagokionez, herri bakoitzak bere baldintzak, irizpideak eta mugak ditu. Hori dela eta, ikaslea bizi den Arratiako udalerriaren arabera euskara ikastea garestiago edo merkeago aterako zaio. Bide horretan ere eskualde mailan irizpideak uztartzea eta koherentzia mantentzea ondo legoke.

UEMA

Artea eta Dima UEMAko kideak dira. UEMA elkarren artean antzekotasun handiak dituzten herriz osatuta dago: berezko hizkuntzak batzen ditu. UEMAko udalerrietan, lurgune euskalduneko herriak izaki, biztanleen % 70ak baino gehiagok daki euskaraz. Bi udalerri hauek dituzten helburuak, beraz, UEMAkoekin bat datoz. Honakoak dira:

- 1.- Udalerri euskaldunetan herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua euskaraz izan dadin bideak urratzea.
- 2.- Udalerri euskaldun guztiek bat eginik, euskara nagusi izango den lur-gunea osatzea.
- 3.- Udalerri euskaldunen garapen sozio-ekonomiko eta soziokulturala bultzatzea.

Biak UEMAn egon arren eta helburu bertsuak izan arren, ez dute momentuz elkarlanean bideratutako elkarlanik egiten.

3.5.5. IRAKASKUNTZA

Irakaskuntza publikoari dagokionez D eredia baino ez dago ikastetxe eta institutuetan. Zentro horiek guztiek daukate Hizkuntza Normalkuntza Proiektua eta ikastetxearen Organo Gorenaren onespena dute.

Arratian dauden eskolek Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza ematen dute Igorren, Diman, Artean, Areatzan eta Zeanurin. Arantzazun ez dago eskolarik eta Igoerrera joaten dira umeak.

Lemoan JB Eguzkiza Meabe ikastetxea dago eta momentu honetan duen eskaintza Haur Hezkuntzatik DBHrainoko hezkuntza da. Ikastetxe honetara Lemoako eta Bediako ume eta gazteak joaten dira.

Bestalde, ARRATIA BHI dugu, Igorren kokatuta badago ere, Arratia haraneko beste herrietatik ere -Bedia, Lemoa, Dima, Arantzazu, Artea, Areatza eta Zeanuri- zein inguruan dagoen Zeberio herritik etorritako ikaslez osatuta dago. Lemoako eskolan DBH zabaldu denetik han gelditzen dira Bedia eta Lemoako ikasleak. (2013an hasi eta era mailakatuan 2017an amaituko da prozesu hau).

Aurretik emandako datuen arabera, ezagutza eta agerpenaren aldetik eremu euskaldunean murgilduta daude ikastetxeak; horrez gain, bertako irakaskuntza erabat euskalduna da, A eta B ereduak aspaldi desagertu baitziren eskoletan zein 2. Hezkuntzako ikastetxeetan. Beraz, teoriar, euskararen presentzia, bai herrian zein ikastetxeetan, oso hedatuta dago.

Hala ere, premiazko ikusten da datozen urteetan Irakaskuntzan dihardutenek beraien artean euskarak duen lekua sendotzea eta horretarako urrats berriak ematea.

Horregatik, ikastetxe guztiek epe laburrera eta luzeagora lortu nahi dituzten helburuak adostu, ekintzak egokitu eta euskalgintzan diharduten beste herri elkarte eta giza erakundeekin batera lan egiteko asmoa daukate. Hori guztia Hizkuntza-planean islatuta daukate.

Ikastetxe guztietako Ulibarri programako BRANKA aplikaziotik ateratako datuak jaso ditugu ikastetxe bakoitzaren egoera zein den ezagutzeko eta eskualdeko argazki orokorra izateko.

BRANKA aplikazioa ikastetxeek erabiltzen duten tresna bat da, Ulibarri programak hizkuntzaren egoera (euskararen ezagutza, presentzia eta erabilera) neurtu eta ebaluatzeko tresnetako bat.

Brankak euskararen egoeraren diagnostia egiteaz gain, planifikatzeko lagungarria da, talde dinamika zein ikastetxeen kudeaketa landu eta hobetzeko balio du, eta behin baino gehiagotan egindakoan, ikastetxearen ibilbidea ebaluatzeko edo behatzeko ere bai.

Branka-diagnostia lau urtetik behin egiten dute eta azterketa hiru eremutan egiten da: Eremu Instituzionala, Eskolako kideak eta Gelaz kanpoko jarduerak.

Eremu instituzionalean Eskola Kontseilu eta Zuzendaritzako kideen euskara maila, ikastetxeak beste erakundeekin komunikatzeko erabiltzen duen hizkuntza eta ikastetxeko dokumentu nagusiak zein hizkuntzetan dauden aztertzen da.

Bigarren eremuan Eskolako kideak, ikasleen, irakasle zein bestelako langileen eta gurasoen ezagutza-maila eta erabilera aztertzen dira. Guk bigarren eremu horri jarriko diogu arreta.


Hirugarren eremuan gelaz kanpoko jarduerak aztertuko dira, eskola eragile diren jarduerak (irteerak, jantokia, eskola-kirola...) zein udalerriko beste elkarte edo eragileren batek antolatutakoak (jaiak, udalekuak, musika eskola...).

Hiru eremuen azterketak ikastetxearen hizkuntzen egoeraren berri zehatza emango digu, baita ikastetxea kokatuta dagoen testuinguru soziolinguistikoarekin parekatzeko aukera ere. Horrela, ikastetxea eta bere testuingurua osotasunean hartuta, zer hobetu eta zein esparrutan hobetu behar den ulertzen lagunduko digu; Hizkuntza Normalkuntza proiektua diseinatzerakoan zertan eragin dezakegun, alegia.




Hemen datuak ikastetxez ikastetxe:

JB Eguzkiza Meabe Ikastetxea, Lemoan (Lemoako eta Bediako umeak daude)




Eskolako Kideak eremua zehaztuta:




ARRATIA BHI, Igorren




Eskolako Kideak eremua zehaztuta:




Inazio Zubizarreta LHI, Igorren (Igorre eta Arantzazuko umeak daude)




Eskolako Kideak eremua zehaztuta:




Dimako eskola



Eskolako Kideak eremua zehaztuta:




Arteako eskola




Eskolako Kideak eremua zehaztuta:




Areatzako eskola




Eskolako Kideak eremua zehaztuta:



Zeanuriko eskola




Eskolako Kideak eremua zehaztuta:




Hemen, ikusitako datu guztiak atalez atal elkartuta:


Ezagutzaren laburpena




Erabileraren laburpena



Eskolako kideak ezagutza



Eskolako kideak erabilera



Datuen irakurketa

Datuen irakurketa egitean kontuan izan behar dugu ezagutzari dagokion atalak datu subjektiboetan duela oinarria. Izan ere, hizkuntza menperatu arren, arazorik gabe gainera, irakasleen esparruan, adibidez, beraien lana egiteko dituzten zailtasunak ere ageri direla (hizkuntzaren arauak, idatziak egiteko momentuan dituzten kezkak ...). Horregatik ezagutza maila erabilerarena baino baxuagoa da. Horretan argi izan behar dugu, beraz, datuen neurgailuetan gabeziak daudela, eta horiek behar bezala jasotzeko bide berriak aztertu beharko liratekeela.

Ikasleen euskararen erabilera behera

Dena den, emaitzak irakurtzean argi ikus daiteke gurasoen esparrua dela erabilera indizirik baxuena duena. Familietan hitz egiten ez bada, zaila da seme-alabek beraien egunerokoan erabiltzeko hautua egitea. Ondorioz, eta ikastetxeetako zenbait arduradunekin berba egin ondoren, eskualdean kezka komun bat dagoela esan daiteke: ikasleen hizkuntza erabilera, gero eta baxuagoa da-eta.

Ikasleen euskararen ezagutza indizeak altuak dira, baina adinean aurrera egin ahala erabilera indizea beherantz doa. Gainera, gero eta gazteago hasten da hizkuntza aldaketaren prozesua (lehen 9-10 urte bitartean hasten bazen, egun 7-8 bitartean hasi ohi da).

Eskolaz kanpoko orduetan erabilera informalean gaztelera nagusitzen ari da (atsedenaldietan, jantoki orduetan, korridoreetan...). Adibide zehatz batzuetan (13-14 urtekoetan) eskola orduetan irakasleren bati eskolan gaztelera zuzendu zaio ikasle bat baino gehiago.

Egoerari aurre egiteko emandako pausoak

Hizkuntza joera horiek identifikatu dira eta udalekin elkarlanean egitasmo desberdinak abian jarri dituzte erabilera informalean ikasleek euskararen erabilera areagotzeko, besteak beste: bazkalosteko programa, Euskerea Agoan, euskararen "maskota" gurasoentzako ikastaroak zein hitzaldiak eta familientzako tailerrak.

Adinean gora egin ahala zailagoa izaten da ikasleengana heltzea. Eskolako Hizkuntza Normalkuntza Planeko eta udaletako euskara teknikari zein zinegotziengan kezka handia sortzen duen gaia da honakoa.

Gabeziak identifikatu dira, bai, baina orain zer egingo dugu adin zehatz honetako gazteen artean euskararen erabilera areagotzeko? Bideak aztertu eta testigantza desberdinak ezagutu ondoren, datorren ikasturterako Igorreko BHI Institutuak eta Lemoako JB Eguzkiza Meabe Ikastetxeak proiektu bat jarriko dute abian, bakoitzak bere aldetik, baina momenturen batean bateratua izan daitekeena: eusLiderrak gazteak.

DBHko ikasleen artean erabilera informala sustatzeko helburua duen egitasmo ziklikoa da. Helburuak honakoak dira: hizkuntzekiko jarrerak landu, eraldaketa sustatu, portaera berriak sortu eta hizkuntza-lidergoa indartu. Ea egitasmoarekin emaitzak ikusteko aukerarik dagoen.

LANBIDE HEZIKETA

Arratian Lanbide Heziketa zentro bakarra dago, Zulaibar Lanbide Ikastegia, Zeanurin. Eusko Jaurlaritzako ikastegi integralen SAREAN egoteaz gain, prestakuntza alorrean ere ondoko hauekin kolaboratzen du zuzenki: Lan saileko EGAILAN-LANGAIrekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, HOBETUZekin, enpresekin, udalekin, ...

Zulaibar ikastegi moderno eta gaurkotua bilakatu da, alde batetik, instalazioak eta ekipamendua berriztatzeko egin diren ahaleginengatik eta, bestetik, teknologia berrien ezarpen, irakasleen prestakuntza, Irakaskuntza/Ikasketa KALITATE prozesuen aplikazioengatik besteak beste. Gaur egun, Oinarrizko Lanbide Heziketa Zikloak, Erdi eta Goi mailako Heziketa Zikloak ez ezik, irakaskuntza ez-arautuan lanerako zein etengabeko ikastaroak ere eskaintzen dira Zulaibarren.

Euskarazko eskaintza ematen 1999-2000 ikasturtean hasi ziren erdi mailako zikloarekin eta eskaintza handitzen joateko saiakera egin dute urterik urte. Eskaintza euskaraz opatu ahal izateko irakasleen gaitasuna da bermatu beharreko arloetariko bat, eta egun irakasleen % 85ak dauka bigarren hizkuntza eskakizuna.

A, B eta D ereduak eskaintzen dituzte. B ereduetan euskararen presentzia % 25ekoa izaten da (lan praktiken aldia kontuan hartu gabe).

Eskaintza egin arren ikasleek izena ematen duten modulu edota ikastaroak baino ez doaz aurrera, gutxieneko kopuru bat beharrezkoa da eta horiek abian jartzeko.


Heziketa Zikloetan honakoa da egon diren ikastaroen datuak:

2015/2016 IKASTURTEA


<u>OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK</u>			
<u>MAILA</u>	<u>IZENA</u>	<u>EREDUA</u>	<u>IKASLE KOP.</u>
1	MEKANIZAZIOA	D	13
2	MEKANIZAZIOA	D	11
1	ELEKTRIZITATEA	D	12
2	ELEKTRIZITATEA	D	0
<u>ERDI MAILAKO ZIKLOAK</u>			
<u>MAILA</u>	<u>IZENA</u>	<u>EREDUA</u>	<u>IKASLE KOP.</u>
1	MEKANIZAZIOA	D	21
2	MEKANIZAZIOA	D	17
1	ELEKTRIZITATEA	A	12
2	ELEKTRIZITATEA	A	13

<u>GOI MAILAKO ZIKLOAK</u>			
<u>MAILA</u>	<u>IZENA</u>	<u>EREDUA</u>	<u>IKASLE KOP.</u>
1	FABRIKAZIOA MEKANIKOAREN PROGRAMAZIOA	A	17
2	FABRIKAZIOA MEKANIKOAREN PROGRAMAZIOA	A	19
1	HAUR HEZKUNTZA	D	13
2	HAUR HEZKUNTZA	D	26

Hemen datuen irakurketa ehunekoetan:



Emandako ikastaro horietan ikasleen kopuruak ehunekotan:



Datuen irakurketa

Grafiko bietan ikusten dugunez, D ereduaren presentzia oso handia da eta 16 ikasturtean zehar 0 tik % 67rako eskaintza izatea modu positiboan baloratu behar dugu.

Ikasle tipologia

Egun, Zulaibarrera joaten diren ikasleen tipologia desberdina da. Gazteenak D eredutik bertaratzen dira, beraz, ez dute ikasketak euskaraz egiteko zailtasunik.

Hala ere, D ereduan ikasi ez duenik ere matrikulatzen da (35-40 urtetik gorakoak normalean) eta horiek euskaldunak izan arren, ez dute beraien burua ikasketak euskaraz bideratzeko gai ikusten. Hori dela eta, nahiago izaten dute A ereduan matrikulatu.

2016-2017 ikasturterako aurreikuspena

2016-2017 ikasturterako aurreikuspenei dagokienez, Heziketa zikloan orain arte egon den eskaintza ereduak berberak izatea da helburua, Elektrizitateko ikastaroan izan ezik. Izan ere, lehenengo maila A eredu eskaini beharrean B eredu opatuko da.

Bestalde, bi ikastaro berri eskainiko dira B ereduan: Erdi mailako zikloan *Menpekotasun egoeran dauden pertsonei arreta egiteko teknikaria*; eta Goi mailako zikloan *Fabrikazio Mekanikoen Diseinua*.

Lan praktikak

Ematen diren ikastaroetan lan-praktikak ere egin behar izaten dituzte ikasleek. Ikastaroa D ereduan izanda ere, zailtasunik egoten dira ikasleek enpresetan lan-praktikak euskaraz egin ahal izateko. Zailtasunik handiena ikaslearekin dagoen enpresako arduradunaren euskara maila bermatzea izaten da.

Euskara ikastegian sustatzeko emandako pausoak

Ikusi dugunez, Zulaibar Lanbide Ikastegia lan handia egiten ari da bere eskaintza gero eta euskaldunagoa izan dadin. Horren adierazle LanPres egitasmoarekin duen elkarlana da, adibidez.

Lanpres: Lanbide Heziketako Lantokiko Prestakuntza eta Dualeko enpresa-egonaldiak euskaraz egiteko Laneki elkarteak argitaratutako Gida da; Lanbide Heziketako ikasleek enpresa egonaldiak euskaraz egin ahal izateko baliabideak eta horiek erabiltzeko prozedura biltzen dituen ikastetxeentzako gida.

Euskararen sustapenean aurrera egiteko euskara plan bat ere abian daukate, eta honakoak dira dituzten helburuak:

- Ikastegiko baldintzak hobetzea euskararen erabilera gero eta gehiago ahalbideratzeko.
- Ikasturtean zehar hartzen diren erabaki guztietan euskarak jokatu behar duen rola aintzat hartzea.
- Kanpo harremanetan euskarari lehentasuna ematea.
- Ikasten duten ikasle guztien artean euskararen erabilera eta beren konpromisoa sustatu, euskarari dagozkion erabakietan beren partekatzea bultzatuz.
- Irakasleen arteko euskararen erabilera handitu, eguneroko esparru guztietan Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegian beharrezkoak diren baldintzak sortuz.
- Ikastetxean lan egiten duten administrari eta zerbitzuetako langileek euskararen normalizazioan jokatzeko duten papera barneratu.
- Ikasleen gurasoek Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegiarekin dauzkaten harremanetan euskararen erabilera bultzatu, batez ere, normalkuntzari buruzko informazioa jakinaraziz.
- Ikasleek Lantokiko Prestakuntza enpresetan egiten dutenean, baldintzek ahalbideratzen duten neurrian, euskarari lehentasuna ematea.
- Antolatzen diren gelaz kanpoko jardueretan euskararen presentzia kontuan hartzea, ahal den neurrian, euskarari lehentasuna emateko.
- Gelaz kanpoko jarduerak antolatzeko parte hartzen duten elkarte eta erakundeek euskarak ikastegian duen presentzia eta euskararen sustapenari ematen zaion garrantzia kontuan hartzea.



ZULAIBAR
ARRATIAKO LANBIDE IKASTEGIA

3.5.6. ARLO PRIBATUA

Lan mundua

Enpresei dagokienez, euskara plana abian duten bi enpresa ditugu eskualdean: BATZ S. Koop eta PESALUR SA.

Arratiako enpresa sarea atalean ikusi bezala, aipatutako bi enpresa hauek lanpostu sorreran eragin nabarmena duten enpresa handienetakoak dira, BATZek 650 lanpostu eta PESALUREk 350 sortuz.

Arratiako sare industrialak osatzen duten enpresek sortutako lanpostu kopurua 5.446 dela kontuan izanik, bi enpresa horiek lanpostuen % 11,9 eta % 6,4 sortzen dituzte, hurrenez hurren. Bien artean eskualde osoan lanpostuen % 18,3 sortzen dute, hortaz, kontuan hartzeko datua da horrakoa.

BATZ S. KOOP



BATZen 2000. urtetik ari dira euskara plana bideratzen eta Bizkaia eta Arratia mailan aitzindari eta eredueta bat da. Momentu honetan Eusko Jaurlaritzaren EUSLAN programan sartuta dago eta jorratzen ari diren gaiak honakoak dira: Kontratazioarako irizpideak, lan hizkuntza euskara izateko eragin esparruetan lanketak egitea eta ikaste erabilera prozesuak.

PESALUR SA

PESALUR SA PesaBizkaia enpresatik eratorritakoa da eta 2014an eratu zen. Sortu zenetik daukate euskara plana abian. Hizkuntza normalizazioan kontratazio irizpideetan hainbat urrats eman dituzte dagoeneko (bezeroari aurrez aurreko zerbitzua eman behar duten langileek euskara jakin behar dute eta autobus gidariek meritu bezala hartzen da). Era berean, langileen artean euskararen ezagutza areagotzeko neurriak ere hartu ditu (matrikulak ordaintzen, adibidez).

Beste lekukotasun batzuk

Euskara planik eduki ez arren euskararen erabilera enpresan areagotze aldera ekimen batzuk ere badaude hainbat enpresetan: Ormazabal, adibidez, mintzalagun egitasmoa. Indar enpresan ere zerbait egiteko asmoa erakutsi izan dute eta badira enpresa txiki batzuk errotulazioa eta harrera euskaraz egiteko irizpideak hartuak dituztenak.

Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak

Beinke!

Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetan Arratiako Merkataritza Elkartearen (AME) barruan dagoen Beinke! taldea dugu, arloko euskara sustatzeko helburua duena. Kontuan hartu behar dugu AME osatzen duten ostalaritza eta komertzio guztiak Igorrekoak direla.

Beinke! Merkatarien Euskara Taldearekin Igorreko Udalak hainbat ekimen landu ditu euskararen erabilera suspertzeko eta normalizatzeko herriko establezimenduetan.

2008an Zerbitzuen Katalogoa adostu zuten eta ordutik doako zerbitzuak eskaintzen dira Igorreko Udaleko Euskara Zerbitzutik. Merkealdietarako kartelak ere banatzen dira.

2010ean CD bat prestatu zuten eta bertan errotuluak eta bestelako agiriak euskaraz jartzeko materiala dago.

Hitzarmengintza egitasmoak

Bestalde, Igorre eta Lemoan udalarekin euskararen erabilera areagotzeko konpromisoa hartu dutenak ere badaude, euskararen berreskuratze, berritze eta zabalkuntzaren prozesuan parte izateko. Izan ere, Hizkuntza hautua bakoitzak egin behar duela onartuz, hizkuntza-irizpideekin establezimenduko kide guztiek eroso sentitu behar dutela oinarri hartuz, eta establezimenduko hizkuntza errealitatetik abiatuz, euskararen erabilera sustatzeko urrats batzuk ematea adostu dute.

Udalek, berriz, urrats horiek lortzeko laguntza eskainiko die. Izan ere, Euskararen konpromiso hauen helburua bertako partaide diren establezimenduek beren jarduna beren kasa eta ahal den autonomiarik handienaz euskaraz bideratzea da.

Lemoan hitzarmena sinatuta dutenak zazpi⁹ dira eta Igorren, oster, 42¹⁰.

⁹ Aliprox, Tresnak suministros industriales, Tibur argazkigintza, Mapfre Aseguruak, Kirlan Kirol Lanak, Opel Ibaigane eta Naiara Arrieta Farmazia.

¹⁰ Hagoa Hagin klinika, Ainara kirolak, Aldeiturriaga oinetakoak, Axular Herriko Taberna, Arratia auto-eskola, BBKkutxabank Igorre, Beatriz Fruteria, Belagorri belar-denda, Decoración y Pintura Igorre, Dia autozerbitzua, Edurtzeta janari denda, Egibel estetika zentroa, Enar kirolak, Ezkur zapata-denda, Electricidad Izarra, Galanta Lentzeria, Garantxe auto-eskola, Gau lora akeitegia, Igorre fisioterapia zentroa, Iturbe oinetakoak, Caja Laboral Ipar-Kutxa Igorre, Iru-deko burdindegia, Kantabriko arraindegia, Kendall school languages, Kili-kili umeen denda, Kirru ileapaindegia, Kixmikopi denda, La Caixa, Lorane, Marisol ile-apaindegia, Maya arropa denda, Merka labela janari-denda, Mugarri, Nati ileapaindegia, Olaetxe optika zentroa, Peluquería Elixabete Uriarte, Politte! arropa denda, Rugby taberna, Rekalde harategia, Sein umeen denda, Seven academia eta Viajes Ecuador.

3.5.7. AISIA, KULTURA ETA KIROLA

Hitzarmengintza egitasmoak

Aisia, Kirol eta kultur elkarteei dagokienez konpromisoak sinatu dira Igorre eta Lemoako udalekin. Hauetan ere, aurreko puntuan esan bezala, elkartearen barne eta kanpo harremanetan euskararen erabilera areagotzea da helburua, eta hori lortu ahal izateko udalek laguntza eskaintzen diete.

Igorren hitzarmena sinatuta duten elkarteak 21 dira: Arratia Futbol Taldea, Arratiako Zekorrak Rugby Taldea, Esku Pilota Elkartea, Arantzarte Dantza Taldea, Arratiako Musika Eskola, Zaztaparrak Aisia Taldea, Arratia Motor Taldea, Luis Iruarrizaga Abesbatza, Feministen Taldea, Arratiako Merkatarien Elkartea, Inazio Zubizarreta Guraso Elkartea, Arratiako Ziklista Elkartea, Igorreko Igeriketa Kluba, Lurrarinek Gazte Asanblada, Astrapalea Musika Eskola, Kino Mendi Taldea, Jobiu Argazkilaritza Taldea, Motxogan Kultur Taldea, Iban Mayo Lagunartea, Axular Kultur Elkartea eta Intxaurbizkar Kultur Elkartea.

Lemoan, berriz, 10 dira: Durundi Barri dantza taldea, Ganzabal Mendi Taldea, Harriketarrak Gazte Asanblada, Hezi ta Hazi akademia, Ekilore Keramika elkarte, Lemoa Esku Pilota Elkartea, Lemoako Harrobi Futbol Kluba, Lemoatx Jubilatuen Elkartea, Lemoako Korala eta Zaztaparrak aisia taldea.



Zertu Kultur Elkarte

Zertu Kultur elkarte da aparteko aipua behar duen elkarte: Arratian euskara hutsezko komunikabiderik ez zegoelako kezkatuta zegoen persona-talde batek sortu zuen. 2001. urtean jaio zenetik helburu nagusi bi eduki ditu: batetik, bertako euskaran idatzitako aldizkaria argitaratu eta Arratia, Ubide eta Zeberioko etxeetara helaraztea; bestetik, Arratia inguruko kultura suspertzea. Zeregin horretan, hainbat liburu argitaratu dituzte: bertako idazleen lanak (Gaizka Amondarainen *Ortozik*, Iker Yurrebasoren *Haizea aurpegian*), Arratiako idazleen antologiak edota Peru Tximaluze alemaniar jatorriko liburuaren euskarazko bertsioa. Horrezaz gain, kultur ekitaldiak antolatu dituzte eskualdeko beste elkarte batzuekin elkarlanean.

Era berean, Arratia eskualdeko euskara gorde eta berreskuratzeko helburu horrekin lotuta *Geure Berbategia* egitasmoa bideratzen lagundu zuen, eskualdeko hiztegia, esaerak, aditzak, toponimia eta kanta herrikoiak aztertu eta argitaratu dira.

Geure Berbategia proiektua Arratiako Institutuan sortu zen galduz doazen berbak eta esamoldeak egunera ekarri eta gaurko bizitzan ainguratzeko.

Euskara elkarte

Bukatzeko, gaineratu beharra dago, momentu honetan eskualdean ez dagoela euskara talderik. Ganoraz Arratiako Euskara Elkarte zegoen, 1998an sortu zena euskararen normalizazioa eskualdean sustatzeko helburuz. Besteak beste, honakoak ziren egiten betetzen zituen funtzioak: arratierari buruzko ikastaroa sortu eta eman, Arratiako bertsolari eta bertso munduarekin zerikusia duten ekimenak gauzatu eta eskualdeko udaletxeek euskararen inguruan antolatzen zituzten ekimenen antolakuntzan ere parte hartu.

Urteetan jardun zuen xede horretan 2012. urtean taldea bertan behera geratu zen arte. Bertan behera geratzearen arrazoia betetzen zituen funtzioak beste erakunde edo talde batzuek betetzen zituztela izan zen batez ere. Izan ere, batetik, udalerrietako euskara planek indarra hartu zuten eta udalek bere gain hartu zuten horren kudeaketa (euskara teknikarien bitartez, adibidez); eta bestetik, Zertu Kultur Elkarteak bere gain hartzen zituen eginkizun eta aurrera eramaten zituen dinamika batzuk bat zetozen euskara taldeak zituenarekin.

3.5.8. ZIURTAGIRIAK

Euskararen kalitatea bermatzeko bi ziurtagiri mota ditugu Euskal Herrian:

Bata, Ziurtagiri ofizial, publiko eta doakoa da, Bikain, Eusko Jaurlaritzak luzatzen duena, eta enpresa nahiz erakunde batean euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen duena.

Bestea, Bai Euskarari Ziurtagiria dugu, entitate desberdinek euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko neurriak garatzen ari direla egiaztatzen duena eta Kontseilutik bideratutako egitasmoa dena.

Arratian ez daude ziurtagiri horiek dituzten erakunde askorik:

Bikain ziurtagiria: 2015ean PESALUR SAK oinarrizko maila lortu zuen. 2009an, berriz, BATZ S Koop.ek ertaina eskuratu zuen eta 2017an berriro ere aurkeztuko da.



Bai Euskarari Ziurtagiria: momentu honetan Lemoan baino ez daude ziurtagiri hau duten erakundeak eta 4 dira: Lemoako Udala, Kirlan Kirol Lanak, Opel Ibaigane eta Ganzabal Mendi Taldea.



3.5.9. ONDORIOAK

EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA INDIZEAK BEHERA

Egun, Arratia eskualde euskalduna dela esan daiteke, bere biztanleriaren ehuneko handi bat euskalduna delako eta beste ehuneko bat euskara ulertzeko gai delako.

Dena den, eskualdeak ez du jakin garai batean zuen hizkuntzaren ezagutza (euskaldun kopuruak 5,2 puntu egin du behera eta erdaldun kopuruak 3,5 gora) eta erabilera indizeak mantentzen. Hori, batez ere, urteetako migrazio fluxuen ondorioz gertatu da eta, orobat, eskualdeak migrazio fluxu horrek ekarritako eragin linguistikoari aurre egiteko neurriak ez jartzearen ondorioz.

Migrazio fluxuek euskara ez dakien jendea ekarri dute herri eta auzo askotara. Horietan identitate linguistikoan dislokazioa bat gertatu dela esan dezakegu, normalizazioari hainbat esparru ebatsi dizkio eta.

Ezagutzak behera egin du eskualdean eta, era beran, erabilerak. Erabilerari buruzko kezka antzeman dezakegu, adibidez, eskualdeko udalerri askok gune berriak sortu eta elikatzeko abian jarritako edo egitea aurreikusitako Berbalagun egitasmoan.

FAMILIEN PROFIL LINGUISTIKOA ERDALDUNTZEN

Ezagutza eta erabilera datuek ere familien tipologian hauteman ditzakegu, etxeko hizkuntza euskara duten familiek 7 puntu egin dute behera eta 6 puntu familia mistoek. Ondorioz, familia erdaldunak % 13an ugaritu dira eskualdean 10 urtean.

Brankatik ateratako datuek ere indize berean jartzen dute gurasoen euskararen erabileraren ehunekoa. Izan ere, 2011n etxeko hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania duten familien batura % 53 da eta 2013-2014 ikasturteko gurasoen erabileren batez bestekoaren arabera % 52 da euskaraz egiten dutenen ehunekoa.

Honek beste datu garrantzitsu bat ematen digu; izan ere, eskualdeko umeen % 47k ez du etxean euskararik jasotzen. Ondorioz, euskalduntzearen ardura hezkuntzaren esku geratzen da.

Gurasoekin egin beharreko lanketa, beraz, ezinbestekoa izango da, ume eta gazteek eskolan ezagututako hizkuntza horrek babesa eta praktika beharko dituelako. Gurasoen esku ere badago, beraz, beste mota bateko transmisioa bermatzeko aukerak eskaintzea.

Hizkuntza biak dituzten familiei dagokienez, euskararen transmisioa bermatzea zailagoa izaten da eta hori bereziki zaindu beharreko arloa izango da, transmisioa ziurtatzeko lanketak eta estrategiak garatu beharko dira, hortaz.

HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA ALDE GUZTIETAKOA

Kontuan izan behar dugu hizkuntzaren transmisioa ez dela soilik gurasoek seme-alabei egindako hizkuntzaz ematen. Izan ere, seme-alabek ere eskolako hizkuntza eramaten dute etxera eta guraso asko ahalegindu egiten dira dakiten euskara apur hori seme-alabekin erabiltzen. Hala ere, umeei adinean aurrera egin ahala zailagoa izaten da beharrezko komunikazioa bermatzea, eta euskara behar bezala landu ezean, gaztelaniara bueltatzeko joera izaten da gurasoengan.

Gurasoek, beraz, seme-alabak txikiak direnean badute euskara erabiltzeko motibazioa eta hori baliatzen ikasi beharko genuke guraso horiek euskalduntzeko edota euskararen esparrura gehiago hurreratzeko.

Esan bezala, transmisioa goitik beherakoa da; baita behetik gorakoa ere. Aitzitik, berdinen arteko transmisioa ere ematen da, horizontala, hau da, guraso-guraso, ume-ume, gazte-gazte, irakasle-irakasle...

Gazte eta umeen artean gaztelaniarekiko joera hartzen ari da (hori da Hizkuntza Normalkuntza Planetako arduradunek diotena). Lagunen arteko harremanak gaztelaniaz eraikitzen ari dira, hortaz.

Euskaraz etxean ikasitako umeei ez dute gaztelaniaz aritzeko arazorik izaten, gizartean dauden faktore askok horretarako gaitzen dituztelako. Aitzitik, euskara etxean ikasi ez duten umeei ez dituzte euskaraz gizarteratzeko aukera berberak, eta ondorioz hobeto moldatzen dira gazteleraz.

Eragiketa matematikoa egitea oso erraza da: eskualdean lehen hizkuntza euskara dutenen (batzuek gaztelerarekin batera) eta lehen hizkuntza gaztelera baino ez dutenen arteko alderik ez dago ia. Batzuek eta besteek hizkuntza bakoitzarekin zelan moldatzen diren ere ikusi dugu, guztiak sentitzen dira eroso gazteleraz, ez ordea euskaraz. Batuketa horren emaitzak esango digu agerian dagoena; hau da, ume eta gazteen artean gaztelaniaz berba egiteko joera dagoela.

Adierazle horrek argi eta garbi erakusten digu, gizarteratze prozesuan euskarak esparru asko bereganatu behar dituela oraindik eskualdean. Guneak elikatu behar ditugu, espazio berriak eraiki behar dira lehen hizkuntza gaztelera duten ume eta gazteek dakiten euskara hori erabiltzeko eta euskararekin eroso sentitzeko. Euskaraz zenbat eta hobeto moldatu, orduan eta gehiago erabiliko dute.

EUSKALDUNTZEAN IKASLEAK GORA

Eskualdean erdaldun kopuruak gora egin du eta, era berean, euskaltegiko ikasle kopurua ere igo egin da. Eskualdera datorren jendeak eskualdean integratzeko euskara ikasteko beharrezana sentitzen duela ondoriozta dezakegu datu horretatik, aurretik esan bezala, ikasle gehienak kanpotik etorritakoak dira eta.

Euskaltegiak, beraz, badu eskualdean euskararen normalizazioan eragin handia, euskara ez dakitenek ikastea baita horretarako lehen pausoa.

Horren ildotik, ikasleak euskaltegian matrikulatzeko zailtasunak antzeman dira: modulazioa motak, talde heterogeneoak, desplazamenduak, matrikula ordaintzeko finantzazioa...

Administratibotik ere egoera honen hausnarketa egitea ezinbestekoa izango da, herritarrei euskalduntzeko baliabideak erraztu eta bitarteko gehiago jartzeko. Udalerrri mailan edota eskualde mailan egin beharreko lanketa izan beharko litzateke, baliabide horiek ahalik eta koherenteenak izateko eta horiei ahalik eta etekin handiena atera ahal izateko.

ADMINISTRAZIOAN BAKOITZAK BEREAK

Administrazioan ez dago ia herrien arteko inolako hartu-emanik. Ez dira praktika onak konpartitzen, ez dira baliabideak elkarbanatzen, ez dira sinergiak batzen Gauza bera egiteko eskainitako esfortzua (ekonomikoa zein pertsonala) biderkatu egiten da behin eta berriro.

Egoera hau ez da egokiena. Ikusi dugunez, udaletan bildu diren indarrak eta energiak ez dira behar bezalako eraginkortasunez bideratzen. Proiektuak eta egitasmoak elkarbanatzea probetxugarria eta errentagarriagoa izango litzateke.

Mankomunitateari dagokionez, ez dauka euskararen erabilera areagotzeko planik eta ez du euskara sustatzeko inolako baliabiderik jartzen. Hori oso larria da; izan ere, Mankomunitatea da Arratia nolabait batzen duen erakunde eta erreferente bakarra. Hori dela eta, eredu izan beharko litzateke gainerako sektore eta erakundeentzako.

Administrazioak badu euskararen sustapenean gehiago egiterik eta esparru askotan badu eragiteko ahalmenik (herriko elkarteak, merkatariak, enpresak...). Hori horrela, indar eragile horiek identifikatu eta eragin ahalmenaz baliatzeak onura asko ekarriko litzioke eskualdeari.

HEZKUNTZAN NAHI ETA EZIN

Hezkuntza egiten ari den lana oso handia da, ume eta gazte asko euskalduntzen ari delako, ondorioz, ezagutza datuetan eragina du horrek.

Aitzitik, eskola ez da esparru isolatu bat eta gizartean dauden ohiturak, joerak eta jarrerak islatzen dira ikasleen artean.

Hori dela eta, gero eta gehiago dira eskola orduetan gazteleraz ari diren ikasleak eta eskola orduetatik kanpo ere dagoen joera hori handiagotzen doa urterik urte.

Hezkuntzak berak bakarrik ezin dio egoerari eutsi eta ezinbestekoa da beste eragile batzuekin batera aurrera egiteko estrategiak eta lanketak bideratzen hastea.

Ildo horretatik doa, neurri batean, eusLiderrak proiektuaren abiatzea eta estrategikoa izango da ikastetxetik kanpoko eragileekin batera lankidetzaz bermatzea eta esparru berriak irabaztea.

ARLO PRIBATUAN EUSKARAREN PRESENTZIA URRIA

Arlo honetan merkataritzan egin den egitasmoren bat alde batera utzita ez da apenas lanketarik egin. Enpresek ez dakite askotan zeintzuk diren aukerak eta betiko jarduna beti bezala egiten dute.

Horregatik, garrantzitsua da dauden lekukotasunak baliatzea eta horiei ahalik eta errentagarritasun handiena ateratzea, euskara erabiltzeak duen balio erantsia azpimarratuz eta ekar ditzakeen negozio aukerak nabarmenduz.

ARLOEN ARTEAN KOORDINAZIOARIK EZ

Arloen arteko elkarlan gutxi dago, koordinazioa urria da, udaletatik udalerri mailara ematen dena soilik adibide batzuetan.

Eskualde mailako arlo bereko koordinazioa beharrezkoa da, eta arloen artekoa ere bai. Gizarte batean bizi gara eta gizarte horretako esparru guztien artean elkarreragina dago, beraz, eskualde euskalduna ahalbidetzeko ezinbestekoa izango da arlo guztien arteko elkar-elikatzea..

Hutsune hori betetzeko aukera aztertu eta bideratzea izango litzateke lehen pausoa. Izan ere, arlo askotan antzemandako zailtasunei aurre egitea ezinezkoa da arlo horretatik bakarrik eragitea, gainerako arloen babesa eta lanketa beharrezkoak ditu eraginkorra izateko.

HAUSNARKETA

Ateratako ondorio horiekin guztiekin esan beharra dago Arratia euskalduna izatea gura badugu egiten ari garen bidea ez dela egokiena.

Hau guztiau esanda, oso kezkagarria da etorkizuna, koherentziarik ezean nekeza da eta aurrera egitea. Bestalde, baliabide eta esfortzu handiak inbertitzen ditugu lekuan lekuko beharrezan erantzuteko. Estrategia berriak eta egitasmo erakargarriak sortzea oso ondo dago eta ezinbesteko dira.

Dena den, askotan bakoitza bere kontura doa, lan bera leku desberdinetan biderkatzen da eta. Ez dugu beste elkarte, udalerri edo lurraldeetan egiten denaren berririk. Isolatuta bizi garela ematen du batzuetan, ikusmira mugatua daukagula.

Horri buelta ematen hasiak gara dagoeneko esparru batzuetan. Horregatik, sinergiak sortu behar ditugu, denak diskurtso eta helburu bera helmuga izanda koherenteagoak izango garelako, indarrak batuz gure esfortzuak emaitza biderkatzailerak izango duelako eta txiri-txiri euskaraz bizitzea lortuko dugulako.

Arnasguneetatik hasi behar gara hori guztia bideratzen, euskara natural eta hegemoniko diren espazioak direlako (espazio geografiko zein funtzionalak). Horrela, gainerako espazioetara zabaltzea errazagoa izango da.

Arratia euskalduna izatea esaten ari garenean, eskualde osoko jabekuntza eta ahalmentze prozesu batez hitz egiten ari gara. Hizkuntza komunitate baten iraupena, besteak beste, komunitate horrek aurrera egiteko duen borondatearen baitan dago. Horregatik, garrantzitsua da hizkuntza gutxiagotua erabili nahi dugunok bizi dugun sumisio egoeraz jabetu, eta berdintasuna lortzeko pausoak ematea eta, administrazioek batez ere, komunitate horretan eragiteko neurriak hartzea. Beti ere, etengabeko hobekuntza prozesu gisa ulertuta.

DATUEN MUGAK

Diagnostiko honetan jasotako datuetan mugan daudela antzeman dezakegu. Informazioan hutsuneak egon dira eta zenbait daturen arteko koherentzia falta izan da; esate baterako: Brankako datuetan ezagutza erabilera baino baxuagoa izatea eta EUSTATEko 2006ko gorabehera 2001 eta 2011koekiko.

Komenigarria litzateke aurrera begira datuak osatzeko momentuan erabili beharreko irizpideak argi izatea eta antzemandako hutsuneak osatu eta zuzentzea.

4. Arratia etorkizunera begira

4.1. Ikuspegia 2030

Arratia, eskualde euskalduna, bizia, anitza, inklusiboa, jasangarria, kohesionatua, erakargarria, pertsonen arteko aukera berdintasuna, bizikidetza, hazkunde demografikoa eta justizia soziala bermatzen dituen izan behar da.



Eskualdeko jendartea solidarioa, konprometitua eta denon eskura (ahalbideratuta) dagoen heziketa anitz eta eraldatzailearen bidez, pertsona gaituak eta sortzaileak (ekintzaile-sozialak) dituen izatera iritsi behar da.

Hazkundera eta kalitatezko lana eta enplegu duina lortzeko helburuarekin, gaur egungo enpresa ehunean eta sortuko diren negozioetan lehiakortasuna ahalbideratuko duten esparruak martxan jarri beharko dituen. Hala nola, berrikuntza dinamikak, sektore-enpresa-lurraldearekiko -nazioarteko lankidetzaren ereduak uztartuz, kanporako proiektzioa bultzatuz eta eskualdearekiko lotura bermatuz (gizarte-ekonomia eredu indartuz).

Eskualdearen aukerak aztertu eta duen ondarea balioan jarri, sektore ekonomiko guztietan —modu jasangarrian— lan esparru berriak martxan jartzeko.

Eta hau guztia, arratiarrok, modu aktibo, garden eta herritarren parte hartzea ahalbidetuz eta bere nortasuna mantenduz egin behar du, beste herrialde batzuekin elkarlana ere uztartuz.



4.2. Jendartea

ERRONKAK

1. Ekintzailatza kultura eta gizarte ekonomiaren baloreak herritarrengan sustatu eta enpresa jendartearekin konektatu.

Giza eta ekonomia sozialaren baloreetan oinarrituz, pertsonengan ekintzailatza kultura sustatu, herritar aktibo eta sortzaileak lortzera bidean.

2. Eskualdearen nortasuna eta identitatea indartu eta zabaltu, hala nola, arratiera (hizkera) ere balioan jarritz, Arratia erakargarria izateko.

Eskualde ikuspegia landu eta indartuko dituen dinamikak bultzatu.

3. Eskualde mailan ekintzen agenda bateratu bat eratu.

Herritarren ongizaterako eta jendarte solidario, inklusibo, anitz, kohesionatua... lortzeko eta hainbat balore lantzeko beharrezko egitura eta ekintza komunak definizioa eta martxan jartzea, jada sortuta dauden herriko taldeen bidez.



4.3. Sektore publikoa

ERRONKAK

1. Osasun arloko azpiegiturak hobetzea.
Osasun Zentroaren berritzea, aldaketei moldatzea.
2. Eskualdean dauden azpiegituren kudeaketa koherentea egitea (eskualdetasun ikuspuntuarekin).
Eskualdeko azpiegituren eskaintza hobetu eta gastuak elkarbanatu.
3. Herriarekin komunikazioa hobetzea (gardentasun estrategia).
Erabakiak hartzeko orduan, herriarekin kontrastatu.



4.4. Sektore pribatua

ERRONKAK

1. Nekazaritza, basogintza eta abeltzaintzari babesa eman eta indartu.

Gizartean agroekologia suspertzeko kontzientzia indartu.

Lehen sektoreko ekoizpena, transformazioa eta salmenta indartu. Tokian tokiko produktuen (fresko eta transformatuen) ekoizpen eta kontsumoa sustatzeko inizatiba ezberdinak martxan jarri, eskoletako jantokietan, enpresetan, komertzioetan, etab.

2. Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresak lehiakorragoak egiteko bideak definitu.

Merkatari eta ostalari txikien lehiakortasuna hobetzeko, ekintza eta zerbitzuen definizioa eta martxan jartzea.

3. Enpresa berrien sorreran aktiboki eragin.

Eskualdean enplegua sustatu eta mantentzeko, jarduera ekonomiko berrien sorreran eragin, ekintzaile indibidual eta enpresa ekintzaileei zerbitzuak eskainiz.

4. "Enpresa foroa" sortu, industria sektoreko enpresen lehiakortasuna hobetu eta dituzten beharriaz erantzuteko.

Enpresa industrialen beharriaz identifikatu eta horiek asetzeko, beharrezko diren zerbitzu eskaintzaren definizioa.

5. Industrialdeetako komunikazioak, zerbitzuak eta azpiegiturak, beharriaz erantzuteko egokitu.

Arratiako industrialdeetako enpresek eta arduradunek jada identifikatutako beharriaz erantzuteko ekintza eta zerbitzuen hobekuntza martxan jarri.

6. Sektore bakoitzeko foroaren sorrera.

Sektoreka, eskualde mailan beharriaz identifikatu eta ekintza eta erabaki bateratuak ahalbidetzeko espazioen sorrera.



4.5. Jakintza arloa

ERRONKAK

1. "Ikas komunitate lankidetza foroa" sortu, eragile guztien artean, baloreetan oinarritutako hezkuntza saretzeko.

Hezkuntza-Ezagutza alorra eskualde mailan lantzeko, Errotak dinamizatutako foro baten bidez, hezkuntza arautu eta ez arautuan dagoen herrien arteko eta ikasle-etapen arteko dispertsioari amaiera eman eta eragile ezberdinen artean eta zentro ezberdinen artean, baloreak lantzeko plangintza eta zubiak eraiki.

2. Eskualde hezkuntza proiektu koherentea eraiki.


Azpiegitura eta baliabideetatik haratago, hezitzaileen formazio egokia ahalbidetu. Arratiar ekintzaile, sortzaile, talde lanean aritzeko gaitasuna duena, ziurgabetasun egoeretara egokitzen dena... lortzeko.


3. Orientazio zerbitzua hobetu.

Formazio eskaintzaren inguruko orientazio anitza eman, egokitua eta pertsonalizatua.



4.6. Egindako ibilbidea eta datozen pausoak





AUKERATZEA

2016ko ekaina

Errotak lehen ekintzak aurrera eramateko beregain hartuko dituen Erronken aukeraketa.

ESATETIK EGITERA

2016ko irailetik aurrera

Errotaren forma juridikoetan finantziario eredua definitu.
Lehenengo lanpostu baten sorrera.
Erronkei lotutako ekintzak diseinatu, planifikatu eta gauzatzea.

KOMUNIKAZIOA ETA SARETZA

Errotak bere ekintzak komunikatzen jarraituko du eta errotari sarea sortzea izango du helburu.
Guztion artean Arratia jasangarri eta bizigarriago bat lortzeko.

EGIN ZAITEZ ERROTARI

.....

5. Hizkuntzaren garapen iraunkorra garapen sozioekonomikoan txertatzeko proposamena

Arratia 2030 ikuspegian ikusi dugun bezala, Arratia euskalduna izatea da helburuetariko bat. Arratian egungo euskararen egoera eta azken urteetan izan duen bilakaera kontuan hartzen baditugu, Arratia euskalduna erdiesteko, momentu honetatik bertatik egoerari aurre egiteko neurriak hartu behar ditugu.

Hizkuntzaren garapena

Edozein proposamen egiten hasi aurretik, hizkuntzaren garapenaz ari garenean zertaz ari garen argi izan behar dugu. Nik honela ulertzen dut hizkuntza garapena:

Espazio zehatz batean, bertako hizkuntza pertsonen bizitzako esparru guztietara heldu eta horietan erabilera ahalbidetu eta handitzeko prozesua, hizkuntza hori ondorengo belaunaldietara heltzea bermatuko duena.

Euskararen garapena garapen sozioekonomikoan txertatzearen arrazoia *Herritartasunaren eta lurraldearen hiru ikuspegi: toki garapena, herritarren parte hartzea eta euskararen berreskurapena*, 2014ko Ekain Center-en liburuan azaltzen zaiguna da:

"Toki garapenaren ikuspegi oso murriztailea izaten dugu oro har, normalean toki garapena soilik ikuspegi ekonomiko edo merkantilista batetik begiratzen baita. Gehienez ere enplegua sortzeko gaitasuna eransten zaio. Tokiko garapenean ordea faktore gehiagok daukate zerikusia, eta ukiezinezko eta bilakaera luzeagokoak gainera. Batez ere garapen sozialaz ari gara..." eta horren baitan hizkuntzaren garapena kokatuko genuke.

Euskara modu integralean txertatu

Sarreran esan bezala, Arratia euskalduna ahalbidetzeko hasierako pauso eta lan-ildoak proposatuko ditut. Horretarako gakoak izango dira erabiliko ditugun baliabideak eta metodologia, ezinbestekoa da-eta euskara modu integralean garatzea. Toki garapen politiken eta hizkuntza politiken uztartzea da proposatu gura dena, zeharkakotasuna bermatu beharra daukagu, arlo eta sektore guztien helburuetan hizkuntzaren garapena ere gaineratuz.

Hori guztia proposatzeko Estepan Plazaolak *5.1. Hizkuntza plangintza udalerri mailan* ikasgaian dioena hartu dut abiapuntu bezala:

"Iraunkorra, efikaza eta malgua. Euskarak egunerokotasuna irabazi behar du, bizitzaren ohiko uneak eta esparruak; anormalitatetik, salbuespenezko egoeratik aterata. Ekintzek helburu jakinak eta neurtzeko modukoak izan behar dituzte. Era berean, plangintzak, momentuko egoerari hertsiki lotu behar bazaio, malgua eta behar diren aldaketak egiteko modukoa izan behar du.

Lortzeko modukoa. ... Helburu lorkizunen atzetik doan neurrian izango da efektiboa.... Egiten diren urrats tinko guztiek eguneroko errealitatean oinarrituak izan behar dute."

Baloreak

Arratia 2030 ikuspegian ere balore batzuk nabarmendu dira: *"Eskualdeko jendartearen solidarioa, konprometitua eta denon eskura (ahalbideratuta) dagoen heziketa anitz eta eraldatzailearen bidez, pertsona gaituak eta sortzaileak (ekintzaile-sozialak) dituen izatera iritsi behar da."* Balore horiek hizkuntzari ere txertatzea izango da lortu beharreko helburuetako bat; izan ere, arratiarrak euskararekiko solidarioak, konprometituak izan behar dira, egungo hizkuntzaren egoera eraldatzeko gaituak eta sortzaileak izango direnak.

Sareen arteko elkarlana

Era berean, garapen estrategia kualitatiboetan ezagutza sareak antolatzeak garrantzia handia dauka. Hortaz, sektoreen arteko osagarritasuna eta lankidetzaren ezinbesteko kontzeptuak izango dira proposamen honetan, horrela euskararen normalizaziorako bidean indar biderkatzaileak sortuko direlako.

Hori guztia ahalbidetzeko gizarte kohesioa, identitatearen erreferentzialtasuna eta hizkuntzaren prestigioa indartu behar ditugu eginbide konpartituen eta proiektu bateratuen bidez. (Ekai Center, 2014).

Erabilera jomuga

Erabilera eragiteko proposatuko ditugun eginbideak maila desberdinetan eragingo dutenak izango dira: Norbanako mailan (gaitasun erlatiboa, motibazioa), maila mikrosozialean (egoerak eta gizarte sareak: solaskideen ageriko gaitasuna, harreman trinkoa, hautua egiteko ahalmena) eta maila makrosozialean (gizarteko jardunguneak: gizartearen babesa, estatus juridikoa, hizkuntza plangintza) (Iñaki Martínez de Luna, 2014). Hiru mailen arteko elkar-elikatzearekin, guztiek dute-eta bestean eragina, ahalbidetu gura da erabilera areagotzea.

Hori guztia kontuan hartuta, goazen, bada, euskararen garapenean eragiteko lehen urratsen nondik norakoen proposamena egitera:

5.1. Euskararen marka birdefinitzea.

Jendartea arloan lehenetsitako bigarren puntua honakoa da:

"Eskualdearen nortasuna eta identitatea indartu eta zabaldu, hala nola, arratiera (hizkera) ere balioan jarritz, Arratia erakargarria izateko.

Eskualde ikuspegia landu eta indartuko dituen dinamikak bultzatu."

Eskualdearen nortasuna eta identitatea indartu eta zabaltzearekin batera euskararen nortasuna eta identitatea indartu eta zabaldu behar dira.

Horretarako, euskalgintza eta arlo desberdinetako ordezkariak batu beharko lirateke: sektore pribatua, publikoa, jakintza arloa eta jendartea. Lan-mahai bat eratuko da, hori lantzeko helburua izango duena, eta talde horretan koordinazioa eta kudeaketa bideratzea ezinbestekoa izango da. Hurrengo puntuan azalduko dugu noren ardura izan beharko litzatekeen kudeaketa hori.

Guztiak batera euskararen marka birdefinitu beharko dute, Arratian euskarak duen posizionamendua (informazioa + sentsazioak) eta eskualdean momentu honetan euskararen funtzioak zeintzuk diren aztertu beharko ditugu.

1.6. Komunikazioa euskara sustatzeko ikasgaian Estitxu Garaik esaten duena hartuko dugu oinarri bezala:

"Mesede handia egingo genioke gure hizkuntzari hura definitzerakoan, hura ulertzeko moduan, hura komunikatzerakoan, guztiok ados jarriko bagina estrategia oinarritzkoenean behintzat.

Marka baten tonuak eta estiloak –diskurtsoak eta irudiak alegia–, haren posizionamenduarekin bat etorri behar dute. Markaren posizionamendua sendotzen lagundu behar dute markaren komunikazio ekintza guztiek.

Gaiaren arabera, modu batera edo bestera joka dezake marka batek, baina haren estiloak, haren mintzamolde eta agermolde nagusiak bakarra eta ezaguna izan behar du, denborarekin nortasun eta diskurtso identifikagarri bat izateko."

Horrekin batera, markaren birdefinitzea egiteko baliagarri izango zaigu Xabier Erizek 4.4. *Management eta hizkuntza plangintza* ikasgaian esaten duena:

"Halaber, enpresa horrek, euskararen munduak, alegia, argi eduki beharko luke zein den bere merkatu-kuota eta merkatu-kuota honek zer bilakaera daraman: hazkundera, egonkortzea ala jaitsiera; eta berdin hizkuntza lehiakideen merkatu-kuotaz. Hau da, herritar guztietatik zenbatek erosten duten euskara (aldeko jarrera erakusten, euskara ezagutzen edo hobetzen, euskara erabiltzen, euskara transmititzen...) eta zenbatek erosten dituzten erdarak edo gainerako hizkuntzak. ...

...herritarrak euskararen munduak asebate behar dituen pertsonak dira. Estrategiak ikerketarekin hasten dira. Azterketa antolatuak egin behar dira herritarra ezagutzeko, zer baloratzen duen hizkuntza kontuetan, nola hartzen dituen erabakiak...."

Horrela, norbanakoa edo taldea jarriko dugu erdigunean, bere premiak eta nahiak ezagutzeko eta gura dugun marka hori ahalik eta ondoen definitu ahal izateko.

Hizkuntza jarrerak

Hori abiapuntu hartu eta euskarak jendearengan zein posizio betetzea nahi genukeen eta hizkuntzari zer nolako funtzioak eman gura dizkiogun zehaztu beharko da; horrela, jendartean euskararekiko dagoen ikuspuntuan eragiteko estrategiak landu ahal izango ditugu, dimentsio guztietan: jarreretan, ezagutzan, erabileran eta transmisioan.

Era berean, jarrera negatiboak identifikatzea ezinbestekoa izango da eta horiek neutralizatzeko moduak lantzea. Jarrera positiboak ere zeintzuk diren jakitea garrantzitsua izango da, horiek indartzeko moduak jorratzeko eta posizio sendoago bat eraiki ahal izateko.

Hori guztia arlo guztietatik zeharkakotasunean bideratu beharko da, eta arlo bakoitzak euskararen garapenari eta euskarari berari egin ahal dion ekarpena aztertu eta definitu beharko dira.

Euskara erabilgarri egin behar dugu, eremu eta arlo berrietara zabalduz. Horietan euskara erabilgarri den heinean erabiliko delako. Hizkuntza, azken batean, komunikatzeko tresna da.

6.3. Hizkuntzazko jokaeraren aldaketa prozesua ikasgai honakoa irakurri ahal izan dugu:

"...taldeak arautzen du nolakoa behar duen izan bere baitan kideen arteko hizkuntzazko jarduera; baita zein hizkuntza erabiliko den ere. Taldearen araua nolakoa, hiltunaren hizkuntzazko jarduera halakoa.

Hortik segitzen da, baldin eta euskararen erabilera informala sustatzeko bidean aurrera egingo badugu, taldeak behar ditugula abiapuntu, unitate eta oinarri, zeren, talde-araua moldatzekotan, taldeek berek baino ezin baitiote horrelako langintzari heldu. Hitz gutxitan: taldearen hizkuntzazko araua aldatuko bada, taldea bera behar dugu eragile, hari baitagokio, eta ez beste inori, adostutako arauen aldaketa."

Talde arau horiek, besteak beste, lagun artekoak, lan esparrukoak, elkarteen barruko funtzionamendukoak, familiakoak, saltzaile-bezero artekoak eta kirol talde bateko kideen artekoak izan daitezke.

"Ikuspuntu kolektiboaren arabera, normalizazio prozesuaren eragilea ez da gizabanakoa, taldea baizik. ... Erabaki kolektibo batek abiaraziko luke, beraz, normalizazio prozesu bat, eta prozesuak berak euskaldunduko lituzke gizabanakoak." (6.3. ikasgaia).

Koherentzia

Euskararen marka koherente bat sortuta eta horren komunikazioa egoki bideratuta, euskara dakitenek euskararekiko leialtasun handiagoa izatea lortuko dugu, erabilera areagotuz. Horren eraginez, gutxi dakitenek ere dakiten hori erabiltzeko motibazioan eragingo da, kantitateak kalitatea ekarriko duelako. Aurrerapauso handia izango litzateke hori.

Era berean, testuinguru euskaldun batek euskara ez dakienari ikasi eta erabiltzeko beharrezana ekarriko dio, hizkuntzak bere egunerokoan duen garrantziaz jabetuko delako.

Hori horrela, hiruko konpetentziaren erlazioan eragin ahal izango dugu:

"Hiru osagai dira pertsonen konpetentziak elikatzen dituztenak: Jakin, Nahi eta Trebe izan. Hirurak dira garrantzitsuak, hiruko konpetentzia erlazioaren ardatza dira, alegia.

... Hauetako konpetentzia bakoitza garatzen doan heinean, beste konpetentziak ere garatuko dira. Eta bat-bateko motibazioa indartzen da gaitasun hauen ondorio. ..." (6.3. ikasgaia).

Motibazio hitza aipatu dugu pare bat aldiz, esparruak, norberaren ahaleginak eta lorpenek baldintzatzen dute hori guztia (barne eta kanpo motibazioak). Era berean, gaineratu behar dugu pertsona edota talde erreferenteek horretan duten eragina:

"Talde erreferente horien jokabide, jarrera eta balioak imitatzeke joera du sareak. Talde erreferentearen lanak asko errazten du beste taldeetan egin behar den lana." (6.3. ikasgaia).

Eraginkortasuna

Euskararen erabilera areagotzea ez da lan makala, euskara desiragarri egin eta gure egunerokoan dituen funtzioak handitzeko estrategiak garatu behar ditugu guztion artean. Marka birdefinituta arnaguneetan eragitea errazagoa izango da eta, era berean, gune berriak elikatzea.

Euskararen marka hori ondo zehaztu eta definitu beharko dugu, beraz, horrek eskualdean dauden sektore guztietan eragingo duelako. Komunikatzeko modua ere kontuan izan beharko dugu, eta hasieran, behintzat, indarrak eta ahaleginak horretan inbertitu.

5.2. Arlo bakoitzerako proposamena.

5.2.1. Jendartea

Jendartean eragiteko modurik eraginkorrena hasierako pausoak izango dira, marka birdefinitu eta horren komunikazioa behar bezala egitea, alegia. Horrekin batera, marka horri begira arlo bakoitzak bere esparruan euskararen erabilera areagotzeko hartuko dituen erabakiak ere ezinbesteko eragina izango dute.

Hori guztia ondo bideratuz gero, eta koherentzia bat dagoen bitartean, herritarren portaeran eragin ahal izango dugu:

"Hizkuntzazko jarduna ez da jakite hutsa. Oinarri-oinarrian, giza portaera bat da, hainbat eragingarri eta kondizionagarri dituena: familia, eskola, aisia, lana, etab. Hizkuntzazko portaera aldatu nahi bada, gaztelaniaz hitz egitetik euskaraz hitz egitera pasatu nahi bada, alor horiek guztiak hartu behar dira aintzat.

Horrekin batera, plangintza bakar bat eratu behar da, hizkuntzaren erabilera gizarteko arloz arloko jardun berezituetatik jardun bakar eta bateratuetara pasatu behar dugu. Konparazio batera, gazteek euskara erabiltzea bultzatu nahi bada, hizkuntzen plangintza hainbat esparrutan gauzatu behar da, hala nola eskolan, aisian, kulturazko ekintzetan, kirol-eskaintzetan, etab." Estepan Plazaola, 5.1. Hizkuntza plangintza udalerrri mailan ikasgaia. Ondorengo puntuan ikusiko dugun bezala, hori da, azken batean, sakontze egitasmo honen muina.

Horrekin guztiarekin, garrantzi berezia duen kontzeptu batean eragiten arituko gara, eremu sinbolikoan. Estepan Plazaolak honako dio:

"... hizkuntzaren hiru elementuetan (motibazioa, ezagutza eta erabilera) osatutako hiztunak dira, hizkuntzaren kontzientzia (motibazioa), konpetentzia (gaitasuna) eta koherentzia (erabilera) dutenak. Hitztun horiek dira hizkuntza komunitatearen muina eta herri batean komunitate horren erreferentea ere izan behar dutenak. Hitztun horiek dira euskara biziberritzeko ekimen guztiei sinesgarritasuna eman behar dietenak, ekimenaren muina eta helburua euskara bera dela bermatuz. Are zehatzago, gaur egungo egoera politikoan, eremu sinbolikoa da euskara biziberritzeko saioei tapagailu politikoa kenduko diena eta hizkuntza komunitatea egituratzen lagunduko duena, bai ekimen instituzionaletan (Euskarako Batzordea...), bai mugimendu sozialen ekimenetan ere (euskara elkarteak...)."

Hori guztia kontuan izanda, gainerako esparru edota arloetan hartutako erabakiek zuzenean eragingo dute jendartean. Eremu horiek zenbat eta hartu-eman gehiago izan eremu horretakoekin edota gainerakoekin, orduan eta koherentzia handiagoz garatuko dugu euskara gure eskualdean eta horretan jarritako effortzu eta indarrek emaitza hobeak izango dituzte.

5.2.2. Sektore publikoa

Legeak

Goazen, lehenik eta behin, legeak diona azaltzera:

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak 6. artikuluan xedatzen du euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, hizkuntza ofiziala izango dela Euskadin, gaztelania bezala, eta bertoko biztanle guztiek dutela bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea. Horrez gainera, ezartzen du autonomia-erkidego osorako erakundeek, autonomia-erkidegoaren aniztasun soziolinguistikoa kontuan hartuta, hizkuntza bion erabilera bermatuko dutela, eta bien ofizialtasuna arautuko, eta beren ezagutza ziurtatzeko behar diren neurriak eta baliabideak bideratu eta arautuko dituztela.

Ildo berean, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak 5. artikuluan aurreikusten du Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiek dutela hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz, eta herri-aginteez eskubide horien erabilera ziurtatuko dutela, eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen.

Gainera, Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkurak aspaldi emandako epai bat ezarri zuenez - 1986ko ekainaren 26ko 82/1986 Epaiak, hain zuzen ere-, euskara erabiltzeak berekin dakar beharrezko bitartekoak jartzea. Besteak beste, euskaraz hitz egiten dakiten langileak jarri behar dira bai Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioan eta bai estatuko administrazio periferikoan, Konstituzio Auzitegiaren abuztuaren 5eko 76/1983 Epaian adierazitako eran; autonomia-erkidego honetako herritarrei horrela bermatuko baitzaie hizkuntza hori erabiltzeko eskubidea.

Geroago, hauxe aurreikusi zuen Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 8/1989 Legeak 97. artikuluan: "Euskeraz eta gaztelera dira euskal Administrazio Publikoetako hizkuntza ofizialak, eta bi hizkuntzok erabiltzea bermatu beharko dute Administrazio horiek bere barneko zein kanpoko harremanetan".

Ildo berari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 89/1997 Dekretuak ezarri zuen euskara eta gaztelania, biak, direla hizkuntza ofizialak Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten administrazio publikoetan, eta eskubidea dutela administrazio publikoekin harremanak euskaraz izateko.

Horrez gain, dekretuak dio ezarri zuen euskararen zerbitzu-zein lan-hizkuntza modura normaltasunez erabiltzeko hartu beharreko neurriak hartuko dituztela herri-aginteez, eta beharrezko

neurriak hartuko zituztela haien zerbitzura dauden langileek hizkuntza gaitasun egokia lor dezan.

Zehazki, dekretuaren 18. artikulua ezarri zuen euskararen erabilera normalizatzeko planetan agertuko direla erakunde bakoitzak, 17. artikuluan ezarritako normalizazio-helburuak betetzeko, erabiliko duen hizkuntza politika eta haren nondik norako eta jarraibide nagusiak, eta gutxienez artikulua horretan adierazitako zehaztapenak jaso beharko direla plan horietan.

Administrazio publikoaren ardura da, beraz, herritarren hizkuntza eskubideak betetzeko neurriak jartzea. Administrazio bakoitzaren euskara planak administrazio horretako euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko lana egiteaz gain, administrazio horrek erantzuten dion leku geografikoan ere eragin behar du.

Adibidez, aipatutako azken dekretuari dagokionez, bereziki d) idatz-zatia nabarmendu beharra dago, hauxe aurreikusten baitu kontratazio-arloan:

"d) kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntza baldintzak bema daitezen".

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua betez, administrazio-kontratazioaren arloko neurriak bildu izan dira Eusko Jaurlaritzak orduz geroztik onartu dituen euskararen erabilera normalizatzeko planetan, hain zuzen ere Gobernu Kontseiluaren 2006ko otsailaren 28ko Erabakian zehaztutako neurriak. Erabakiaren bidez, onartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoen administrazio-kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza-baldintzak, bai eta kontratu bakoitzaren administrazio-klausula berezien orrietan sartu beharreko klausulak ere.

Gaur egun, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusiaren V. plangintzaldia (2013-2017) daukagu indarrean. Plan hori 2013ko abenduaren 30eko bilkuran onartu zuen Eusko Jaurlaritzak, eta bertan espresuki aurreikusten da herritarrei eta, azken batean, zerbitzu publikoen erabiltzaileei haiek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean eman behar zaiela zerbitzua, euskaraz edo gaztelaniaz, berdin delarik zerbitzua zuzenean administrazioak ematen duen edo zeharka, beste hirugarren batzuen bidez.

Lege horietaz gain, Eusko Legelbiltzarrak aurten onartutako Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 apirilaren 7ko Legea daukagu. Lege proiektu horrek, lehenengo aldiz, euskara sustatzeko

eskumenak aitortzen dizkie EAEko udalei, euskara eta gaztelania maila berean jarrita.

Euskara sustatzeko eta "erabilera normalizatzeko beharrezkoak diren planak onetsi eta garatzeko" eskumenak aitortzen dizkie udalei. Bide horretan, aukera ematen zaie udalei bitartekoak jartzeko —baita bitarteko arauemaile eta ekonomia-finantzen alorrekoak ere—, eta euskararen eremuan beste erakunde batzuekin lankidetzan edonolako formulak bilatzeko.

Kontratazio publikoari dagokionez, udalek eskumena izango dute egokien irizten dituzten hizkuntza irizpideak zehazteko, "kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak" sartzeko baimena eman baitie Udal Legeak.

Hirigintza ere aintzat hartu du lege berriak. Martxan jarri nahi den urbanizazio plan batek izan dezakeen eragin linguistikoa aztertzea eta *"emaitzen arabera egoki irizten zaien neurriak"* proposatzea onartu ditu legeak.

Legeak baliatzea

Aipatutako lege horiek guztiak bete ahal izateko eta modu egingarri eta naturalean bideratzeko planak abian daude Arratiako udalerrri gehienetan, eta udal guztiek daukate plan hori bideratzeko aurrekontu bat.

Bestalde, legeak dioena bideratuz gero, eskualdeko enpresa eta erakunde pribatuetan eragiteko aukera dago, kontratazioetan adierazitakoa betetzen bada, enpresek langile euskaldunen beharrezakoa izango dute, ondorioz, lana bilatu ahal izateko euskara ezinbestekoa izango da esparru batzuetan.

Nolanahi ere, 2030erako dugun bisioa bete ahal izateko, ezinbestekoa da plan horietatik harago joatea, urrats bat gehiago ematea, eskualde euskalduna bermatuko badugu.

UDALAK

Koordinazioa

Azken urteotako udal-mailako normalizazio prozesuaren ezaugarri nagusietako bat hain zuzen ere, koordinazio ezarena izan da: udal bakoitzak bere borondatearen eta irizpideen arabera egokien iruditu zaiona egin du, praktikan, udalen eginbidea koordinatzeko erakunderik ez delarik egon. Erabaki asko boterean egon den edo dagoen talde politikoaren nortasunaren eta kontzientzia mailaren baitan garatu dira.

Horregatik, ikuspuntu zabalago baten barruan herriz herriko plan estrategiko eta kudeaketa planak txertatu beharko lirатеke. Sinergiak batu eta baliabideak eraginkortzeko gune bat beharko litzateke eta hori Mankomunitateak kudeatu beharreko arloa dela esango nuke, Euskal Herriko beste eskualde batzuetan gertatzen den bezala.

Momentu honetan herrien euskara zerbitzuko hartu-eman bakarra euskara zerbitzuek beraien kabuz dutena da, batez ere, Lemoa eta Igorreko zerbitzuen artekoa. Izan ere, urtean hiruzpalau aldiz elkartzen dira, bestearen proiektuaren berri izateko, euskarriak elkarbanatzeko, kezkak azaltzeko eta praktika onak konpartitzeko.

Bi euskara zerbitzu horiek egiten dutena eskualdeko koordinazio baten baitan bideratu beharko litzateke, aurretik aipatu dugun markaren birdefinitze horretan udalek egin dezaketen ekarpena koherentea izan dadin.

Neurriak

Herri euskalduna izan nahi badugu udalek erantzukizun handia daukate euskararen normalizazioan eta hori azpimarratzen du Estepan Plazaolak *5.1. Hizkuntza plangintza udalerri mailan* ikasgaiari:

"Bestalde, neurri konkretuak hartu behar dira, lan eraginkor bati heldu ahal izateko eta horretarako Udalak bitarteko batzuez hornitu behar du: Baliabide politikoak.... Baliabide teknikoak.... Baliabide ekonomikoak...."

Horren ildotik, eta diagnostikoan ikusi dugun bezala, udal bakoitzak euskararen erabileraren areagotzeari eskainitako baliabideak desberdinak dira, eta hori bereziki arlo ekonomikoan ikus dezakegu. Horregatik, lortu gura dugun helburura heldu ahal izateko udal guztiek egin beharreko gutxieneko inbertsioa aurrekontu osoaren % 2 izan beharko litzateke.

"Jardun politikoaz, saiakera eginez gero, esango genuke, herritarren borondate hori oinarri izanik, euskarak osorik berreskuratzea lortzeko dituen premiak, lehentasunak, egitasmoak, bitartekoak... bideratu behar lituzkeela, horretarako behar diren erabakiak hartuz eta horretan eredu-emangarri izanez." (5.1. ikasgaia)

Lege babesa

Bestalde, eta arestian aipatutako lege desberdinek ematen duten lege-babesa kontuan hartuta, udalek euskararen erabileran duten garrantzia bere gain hartu eta gainerako esparruetan eragin ahalmen hori zabaltzea ezinbestekoa da. Kontrataziorako irizpideak ezartzean, elkarte, entitate eta enpresei diru-laguntzak ematean eta beste erakunde batzuekin dituzten hartu-emanetan euskararen aldeko apustua egitea erabakigarria izango da.

Udalerrietan egiten den edozein eginbidek eragina izan dezake euskararen erabileran, beraz, hori ere aintzat hartu beharko den arloa izan beharko da. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 apirilaren 7ko Legeak honakoa dio: *"Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileran normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da"*.

Azken urteetan Arratiak izan duen biztanleriaren hazkundera hirigintza plan desberdinak abian jartzearen ondorio izan dira. Orain arte ez da inoiz kontuan hartu izan horrek herri bakoitzean euskararen erabileran izan dezakeen eragina. Hori dela eta, euskararen ezagutzak behera egin du nabarmen eskualdean eta ondorioz, erabilerak ere behera egin du. Hona hemen hori berresten duten aipu pare bat *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 95, 2015-etik hartuak:

"...lurralde antolamenduak eta hirigintzak euskararengan dituzten eraginak handiak izanik ere, ez dira aintzat hartu ere egiten. Beraz, euskararen testuinguruan, soilik hizkuntza politika eta planak izatetik haratago, ikuspuntu ekosistemikoak, beste arloetako politiketan eta araudietan, zeharka, hizkuntza ere barneratzeko erronka dago." *Hizkuntza-ekologia paradigma: ekologiaren begirada hizkuntzen babeserako*. Itsaso Olaizola.

"Aldi berean, etxeak egin izanak inguruko herrietatik jende ugari erakarri du, haurrak izateko adinean dagoena edo helduagoa. Azken batean, komunitate hauetan eragin handiko aldaketak gertatu direla diote datuek. Aldaketa prozesu horretan, ordea, ez da kontrol neurririk izan eragin linguistikoa zaintzeko, ez erabileraren planifikazioari dagokionez, ez harrera prozesuari dagokionez."....

...."Euskal hiztunek ez diote euskaraz mintzatzeko ohiturari iskin egin, ingurua aldatu egin zaie eta egokitu egin behar izan dute, ezin bestean, hori besterik ez (!). Udalerri euskaldunen bilakaera sozio ekonomikoaz. Imanol Esnaola.

Ikusi ditugun lege horiek guztiak baliatzea dagokio, beraz, udal bakoitzari eta horiek ematen dituen aukerak aztertzea eta euskararen erabilera areagotzeko neurriak hartzea dagokio.

MANKOMUNITATEA

Diagnostikoan ikusi bezala, Mankomunitateak ez dauka une honetan euskararen erabilera areagotzeko planik (barnera ez kanpora begirakorik), ezta epe ertainera begirako helbururik ere. Hori horrela, hasteko Mankomunitateak euskararen erabileran eragiteko ardura eta konpromisoa hartu beharko luke duen erantzukizun soziala bete ahal izateko, eskualdeko arlo guztientzako eredu izan beharko litzateke-eta.

Behin hori eginda, euskara zerbitzua jarri beharko luke. Euskara zerbitzu horren helburuak eta konpetentziak oso ondo zehaztu beharko dira; izan ere, ez dugu euskara zerbitzu bat nahi Mankomunitateko hizkuntza politika diseinatu eta bertako ekintza plan bat kudeatzeko soilik. Beste zerbitzu mota bat beharko genuke, orain aztertzen ari garen garapen sozioekonomikoaren barruan txertatuko litzatekeena.

Eskualdeko Euskararen gunea

Euskara zerbitzu honek Arratiako euskarari buruzko informazio guztia jasoko luke, ERROTAK proposatutako lau arlo horietan hizkuntzaren garapenari buruzko erreferentea izan beharko da.

Arratia mailako euskararen gunea izango litzateke zerbitzua, eskualdeko ikuspegiarekin arlo desberdinetan euskararen garapena bideratzeko estrategiak landuko dituen.

Aurretik aipatutako euskararen markaren birdefinitzearen ardura hartuko luke. Lan hori egiteko lantalde bat koordinatu beharko luke, eskualdeko euskalgintzako kideek eta arlo desberdinetako (sektore pribatua, publikoa, jakintza arloa eta jendartea) ordezkariak eratuko luketena.

Orobat, ERROTAKo arloz arloko aurreikusitako lan-mahaietan ere hartu beharko luke parte Mankomunitateko euskara zerbitzuak. Arlo bakoitzak euskararen garapenari egin diezaiokeen ekarpena zein den aztertu beharko da lantalde horietan eta hori bideratzeko eman beharreko pausoak taldekideekin batera diseinatu beharko dira.

Behin erritmoa hartuta, eta arlo bakoitzetik hizkuntzaren garapenean nola eragin ahal den zehaztuta eta hori nola egin ikasita, aldian aldiko jarraipena egitea izango da euskara zerbitzuaren lana. Bidean zailtasunik egongo balitz, edota helburuak betetzeko oztopoak, horiei aurre egiteko bideak aztertu beharko lirateke lantaldearekin batera.

Beraz, labur esanda, honakoak lirateke euskara zerbitzu horren helburu eta egitekoak: sektore guztietan hizkuntzaren arloan egiten diren politikak koordinatzea, adostasun prozesuak eragin eta

elkarrizketa lantzea, indarrak biltzea, sinergiak batzea, neurriak proposatzea, lantaldeak gidatzea eta horiei aholkularitza eta laguntza ematea, era guztietako prestakuntza eskaintzea (teorikoa eta praktikoa), autonomia sortzeko bitartekoak eskaintzea, elkar-elikatzea ahalbidetzeko estrategiak lantzea eta eskualdean sektore bakoitzaren euskararen errealitatea bertatik bertara ezagutzea.

Hori horrela, eskualdeko garapen sozioekonomikoan hizkuntzaren garapena txertatzeko gizarteko atal guztiak izan behar ditugu gogoan. Ez dago hizkuntzarik gabeko ekintzarik. *"Hizkuntza batean edo bestean, baina beti hizkuntzaren batean, bideratzen dira ekintzak eta proiektuak edota plangintzak. Erabakiak hartzen diren gune guztietan egon behar du euskararen erreferentziak eta erabakiaren arduraduna, bere ataleko hizkuntza erabilpenaren arduraduna ere bada. Hauxe da hizkuntza normalkuntzaren oinarritzko irizpide garrantzitsuenetako bat, erabakia non hizkuntza irizpideak han behar du."* Estepan Plazaola, 5.1. *Hizkuntza plangintza udalerrri mailan*. Zeharkakotasuna da, beraz, bermatu behar duguna.

"... gaingitu egin behar da une honetan dagoen harreman mota, eta mailen arteko eta esferen arteko elkarlan batera bideratu behar da.

Fondoan dagoena da dimentsio sustantibo batetik –sektorekako antolaketa batetik- dimentsio relazional batera pasa behar dela, zeharkakotasunera hain zuzen ere." (Ekai Center, 2014).

Mankomunitatearen erronka

Mankomunitateak euskara zerbitzu konpetente eta berritzaile baten aldeko apustua egitea ezinbestekoa da, besteen sustatzaile funtzioa hartuko duena, baina besteen eredu izan behar duena alde batetik, eta lege bidezko agindu batzuk dituen beste alde batetik.

Hori guztia, marko orokor baten barruan gauzatuko da, beti ere, arlo bakoitzaren izaera errespetatuta, eta lantaldeen arteko kooperazioa eta lankidetzak sustatuta. Horrela, baliabideak eraginkortasunez erabiltzen direla bermatuko dugu, eta eskainitako zerbitzuek kalitatea dutela.

Mankomunitateak Arratia euskalduna ahalbidetzeko hartu behar duen funtzioa lehentasunezkoa da oso eta lehenbailehen neurriak hartu beharko ditu egokitu zaizkion helburu eta egitekoak bideratu ahal izateko.

5.2.3. Sektore pribatua

Sektore pribatua da hizkuntzaren aldetik gehien eraldatu beharreko arloa, hori da, behintzat diagnostikoak esan diguna. Euskarari bizi-indarra ahalbidetu behar zaio eta euskararen erabilera modu progresiboan areagotzeko neurriak hartu behar dira, euskara lan hizkuntza bezala bermatu ahal izateko.

Euskararen integrazioa garapen sozioekonomikoan

Horretarako, aurrerago esan bezala, sektore pribatuan garapen sozioekonomikoa lantzeko momentuan, horrek euskarari egin ahal dion ekarpena identifikatzea ezinbestekoa izango da. Sektore honetako lantaldearen lana izango da, beraz, arlo sozioekonomikoak euskara areagotzeko dituen aukerak aztertzea eta horiek baliatzea.

Euskara zeharka landuko dugun esparrua izango da eta honetan ere ezin izango dugu alde batera utzi, hasierako pausoek ondorengoak baldintzatuko dituztelako.

Sektore pribatuan euskararen erabilera hedatzeko prozesua diseinatu behar da, sektore hau gizartean ospea eta indarra duena da-eta. Beste eragile batzuen (administrazioa, adibidez) ekintzaren artean ahalik eta sinergia gehien bilatu beharko da eta garapenaren helburuetan eragin positiboak lortzeko aukeraz aztertu.

Sektore pribatuko jarduera guztiek dute bezeroak, entitateko langileak eta gizartea asebetetzeko helburua eta hizkuntza ere horretan kontuan hartu beharreko arloa da.

Gizarteratu beharreko mezua marka birdefinitzearekin lortu beharko dugu, euskarak arlo pribatuan duen balio erantsia, alegia. Negozio aukerak ematen ditu eta ateak irekitzen dizkie entitateei, hizkuntza kultura eta gizarte batean integratzeko sarbiderik zuzenena delako.

Jakin badakigu, gure egungo gizartean hizkuntza-aniztasuna nagusi dela eta entitate askok mundu mailako harremanak dituztela. Aitzitik, bizi garen hizkuntza-komunitatea garrantzitsua da eta kontuan hartu beharrekoa. Horregatik, entitateen eguneroko jardunerako hizkuntza politika zehaztea eta erabakiak hartzea ezinbestekoa da.

Horrela, *"hizkuntza-funtzioen araberakoa izango da enpresak hizkuntza bakoitzari ematen dion tratamendua (edo prestigioa). "1.5. Hizkuntza-ekologia ikasgaia, Belen Uranga.*

Eleaniztasuna kudeatzeak negozio aukera berriak ematen ditu, *"bezeroekin, lankideekin eta negozio-bazkideekin (filialekin) eraginkortasunez komunikatzea erabakigarria da enpresaren lehiakortasuna eta gizarte-kohesioa lortzeko."* (1.5. ikasgaia).

Lanaren garrantzia

Aurretik esandakoa, lanean ematen dugun denbora eta lanak duen garrantzi soziala kontuan hartzen baditugu, gure bizitzan duen garrantziaz ohartuko gara. Era berean, lanean duen zentralitatearengatik eta laneko hizkuntzak gizartearen aurrean duen prestigioagatik ere izan behar dugu kontuan (Ekai Center, 2014). Hori dela eta, lanean euskararen erabilera bultzatzen badugu, langileen gainerako esparruetara ere helduko gara zeharka. Izan ere, lanean lagunak ere baditugu, familiako kideak, kuadrillakoak...

Arratiako enpresa eta entitateetan euskararekiko apustua egiteak ere gazteengan eragina izango du, euskara erabiltzeko motibazioan eragingo duelako. Izan ere, hizkuntza kudeaketa egoki bati helduta enpresek izango luketen eragin ahalmena oso handia litzateke.

Aukerak, zioak eta oztopoak

Euskara arlo sozioekonomikoan bultzatzeko arrazoiak asko izan daitezke; hala ere, oztopoak ere egon badaude. Hemen 5.3.1 *Lan munduan euskara bultzatzeko planak* (Emun) ikasgaian azaldu direnak:

Euskara bultzatzeko arrazoiak:

- Euskara hizkuntza ofiziala da Euskal Herriko toki askotan eta langileek euskaraz ere lan egiteko eskubidea dute.
- Pertsonen garapen osoan eta pertsonalaren politika egoki batean euskarak ere eragiten du.
- Komunikazioa eta gogobetetzea hobetzeko orduan euskarak eragina dauka, barrura zein kanpora begira.
- Enpresaren ikuspegitik, euskararen erabilerak dinamismo, kalitate eta lehiakortasun irudia ematen du.
- Zerbitzua euskaraz eskaintzeak balio erantsia dakar.
- Euskarak sustraitze eta identitate arazoei aurre egiten lagunduko du globalizazio garai hauetan.
- Belaunaldi berriak euskaraz lan egiteko prestatuta eta motibatuta daude.
- Euskarak enpresari kohesioa topatzen lagundu ahal dio, bai barne kohesioa, baita kokatuta dagoen gizartearekikoa ere.

Aurki daitezkeen oztopoak:

- Egoera politikoaren ondorioz euskararen presentziak eragin negatiboa izatea Espainiako zenbait sektorerengan.
- Euskal Herriko bezeroek maiz ez dute euskarazko produkturik eta zerbitzurik eskatzen.
- Langile asko ez dago behar bezala prestatuta euskaraz lan egiteko, eta horri aurre egiteko diru asko behar da.

Aitzitik, enpresek eta entitateek beraien planak abian jartzeko gastuei aurre egiteko (izan ere, erakunde pribatuak ari dira enpresei aholkularitza ematen), euskara planak diruz laguntzeko egitasmo desberdinak daude erakunde desberdinetan: Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia.

Enpresa askorentzako ezinbestekoa da euskara planak abian izatea eta bezeroari zerbitzua euskaraz ematea, batik bat, Foru Aldundi, Eusko Jaurlaritza, mankomunitate eta udalek gero eta gehiago eskatzen baitituzte beraien lizitazioetako baldintzetan; hala nola, garraio publikoetako enpresentzako lizitazioetan eta udal eraikin baten kudeaketetarakoetan (kiroldegia, igerilekua...).

Horrelako erabakiekin, administrazioak euskararen erabileren sustapenean beste enpresa eta erakunde batzuegan eragina daukate, lan merkatua zabalduko badute, gutxieneko baldintza batzuk bete behar dituztelako, euskara plan bat abian jartzea, adibidez. Eta orain, administrazio atalean ikusi ditugun legeak aintzat hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak egiten dituen kontratuetan euskararen erabilera eta ezagutza sartzeko oinarri orokorrak zehaztu ditu eta Eusko Jaurlaritzako Ondasun eta Kontratazio Zuzendaritza kontratuetao plegu ereduak prestatu ditu. Horrek, kontratazioaren arloan euskararen tratamenduari dagozkion printzipio orokorrak ezartzeaz gain, beharrezko ziurtasun juridikoa ere badakar.

Ildo honetatik beste adibide bat jartzearen, eta Arratian turismoak duen pisua ikusita, onartu berri den Turismo legea dugu. Euskadiko Parlamentuak 2016ko uztailean Turismo Legea eguneratu du turismo-erabiltzaileen eskubide linguistikoak bermatzeko eta hizkuntzen kudeaketan kalitatea hobetzeko atal bat gaineratuz: hotel edo establezimenduren batek 5 izar izan nahi baditu, euskara eta gazteleraz artatu beharko du.

Horrakoa, beste arrazoi bat da eskualdean ostatu hartzeko ditugun lekuetan euskararen presentzia txertatzeko, lanpostuen profilak egokituta.

Legeen garrantzia

Ikusi dugunez, legeak eta baldintzak aldatzen badira, indar biderkatzailea eragin dezakegu arlo honetan, motibazio berriak sortzen dira euskara ikasi, erabili edota euskara plan bat abian jartzeko. Izan ere, orain arteko politikak enpresen beraien borondatearen baitan oinarritu izan dira.

Ziurtagiria

Era berean, *"Ziurtagirien garrantzia handia da enpresek euskararen erabilerari dagozkion helburu batzuk lortzera lotzen dituelako, eta hizkuntzaren gaineko ahalegina eta lorpena (beraz gauza positiboak) jendartearen begi bistan jartzen dituelako)."* (Ekai Center, 2014). Ziurtagirien sustapena, beraz, egiteke dugun erronketako bat da gure eskualdean.

Euskalgintzaren ekarpen ekonomikoa

Bestalde, eta esandako guztiaz gain, euskararen garapena ekonomia sozialarekin beste modu batera lotu dezakegu. Arratiari zer ekarpen ekonomiko egin ahal dio euskarak?

Euskalgintzak ere badu zer-esanik jarduera ekonomikoan; izan ere, hizkuntzak mugimendu ekonomikoa eragiten du. 2015eko urrian HPSk emandako datuen arabera, *"EAEko BPGren (Barne Produktu Gordina) % 4,2 dagokio euskarari. Euskararen munduak, halaber, enpleguaren % 6,38 hartzen du; eta laguntza zein zerga alderaketan ere, bideratutako diru-laguntzak 107 milioi eurokoak badira, BEZ zergaren bidez euskarazko produkzioak ematen duena 156 milioi euro dira, 49.541.000 euroko saldo positibo zuzen batekin."*

Azterketa horrek erakusten digu euskara euskal ekonomiaren jarduera-sektore bat gehiago dela. Arratian ere, eta honako proposamen oinarri hartuta, hizkuntzak eskualdeko garapen ekonomikoan duen enpleguan eragin gura da, euskararen normalizaziorako bidean lanpostu berriak sortuz.

LAN MUNDUA

Lan munduan euskarari atea zabaltzea erronka handia izango da, ez da-eta horretan gauza handirik egin.

Diagnostikoan ikusi dugun bezala, lan munduan industria enpresan BATZ. S Koop. dugu eredu eta zerbitzu enpresan, berriz, PESALUR SA. Biek langile kopuru handia daukate eta enpresan euskararen erabilera areagotzeko helburua.

Horretaz gain, Bai Euskarari Ziurtagiria duenik ere badago eta bere kabuz enpresan euskara sustatzen duenik ere.

Horiek guztiak identifikatu behar dira eta euskaraz lan egitea posible dela erakutsi. Datozen belaunaldi euskaldunen ezagutza baliatu behar dugu gehienbat eta horiei euskaraz jardunean aritzeko bideak zabaltzeko behar dizkiegu.

Enpresa batean produktua da helburua, horren kalitatea bermatu eta saltzea; horrela, lanpostuak mantendu edota handitu ahal ditugulako. Aitzitik, hori guztia egiteko eta langileen artean enpresan komunikatzeko erabiliko den tresna ere garrantzitsua izan behar da. Gizarte baten barruan gaude eta horko egoera soziolinguistikoari erantzun behar diogu.

Komunikazioa

Sektore pribatuaren sarreran esan bezala, badaude enpresa edota erakunde batean euskara sustatzeko onurak. Onura horiek jakinarazi behar ditugu eta benetako apustua egin. Arratian dagoeneko baditugu horretan aurrerapausoak eman dituzten enpresak, eta horiek baliatu behar ditugu, horien testigantzak zabaltzeko eta komunikatu, gainerakoek ere horren berri izan dezaten.

"Hainbat arlotan enpresen arteko konexioak eta osagarritasuna bilatu eta gauzatu den era berean, euskararen berreskurapenean ere konexio puntuak bilatzea produktuari berari lotuta, edo antolaketari lotuta, baliagarria izango da euskararen erabilerari zentzu praktikoa ere topatzeko identitate zentzuaz gain." (Ekai Center, 2014).

Jardunaldia

Horretarako aukera izan daiteke eskualde mailako enpresentzako jardunaldi bat antolatzea. Horrela, eskualdeko bertako testigantza eta Euskal Herri mailako ereduak bertatik bertara ezagutzeko aukera egongo da, eta benetan dauden aukerak eta interesak aztertzeko balioko digu. Enpresa sareen garrantzia, beraz, handia izango da euskararen berreskurapenean, eta ez bakarrik garapen ekonomikoan.

MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZUAK

Arratian orain arte Lemoan eta Igorren bideratu dira establezimenduetan euskararen erabilera areagotzeko konpromisoak. Esan bezala, konpromisoak bi aldekoak dira: batetik, establezimenduak hartzen duena, kanpora eta barrura begira euskararen erabilera areagotzeko emango dituen pausoak; bestetik, udalak berak hartutakoa, bide horretan establezimenduak eman beharreko urratsetan laguntza emateko (euskarriak ahalbidetuz, baliabide ekonomiko eta pertsonalak eskura izanez...)

Igorren eta Lemoan dauden egitasmo horiek uztartu eta Arratiako gainerako herrietara zabaltzeko beharko lirateke, baliabideak batzeko, euskarriak elkarbanatzeko eta egitasmo horretan egon daitezkeen oztopoak identifikatuz, horiei aurre egiteko bideak aztertuz.

Hori aintzat hartuta, Mankomunitateko euskara zerbitzuaren lana honakoa izango da: egitasmoak uztartu, bitartekoak eta euskarriak bateratu, oztopoak identifikatu... Udal bakoitzaren lana, berriz, akordio horietan adostuko diren baldintzak zehaztea, akordioak adostea eta horien jarraipena egitea. Argi dago, beraz, zein den bakoitzak egin beharreko lana.

Era berean, merkatariei zuzendutako eskolak ere bidera daitezke eskualde mailan, izan ere, xede horrekin taldeak osatzea zailegia eta garestiegia izaten da herri bakoitzarentzako.

5.2.4. Jakintza arloa

Familiaren garrantzia

Gurasoak dira, dudarik gabe, gure seme-alabek euskara ikas dezaten giltza. Izan ere, etxea da hizkuntza transmititzeko bide natural eta eraginkorra. Seme-alabek euskara ondo ikastea gura badugu, abiapunturik onena jaiotzen direnetik etxean euskara eskaintzea da.

Hala ere, askotan ez da posible transmisio zuzena bideratzea, etxeko hizkuntza beste bat delako edota gurasoek ez dakitelako. Hori dela eta, eskolak familia horien umeei euskara erakusteko ardura hartu du, ume horiengan bigarren sozializazioa ahalbidetuz.

"Batetik, etxeko edo familiako (lehen) hizkuntza erdara izanik, euskara bigarren hizkuntza (L2) gisa (hezkuntza sistema edo euskaltegiaren bitartez) ikasi dutenak –euskaldun berriak- ditugu. Hori bera da, hain zuzen ere, egungo haur eta gazteengan gehien agertzen den euskaldun mota eta, horren ondorioz, ikasitako bigarren hizkuntza hori (euskara) erdara bezain barneraturik ez dute, kasu gehienetan. Horrela euskaldundu direnak, nekez jakingo dute euskaraz erdaraz bezain ondo; erdaraz hobeto moldatuko dira euskaraz baino." (Iñaki Martínez de Luna, 2014).

Eta hori da, azken batean, euskararen erabilerak gora ez egitearen arrazoietakoa bat.

Arratian dauden familietan dauden hizkuntzak aztertu ditugu diagnostikoak. Horren arabera, familian euskaraz edo euskaraz eta gazteleraz berba egiten diren familiak % 52 dira (Eustat 2011). Hori aintzat hartuta, ezinbestekoa da Arratian hezkuntzak euskararen normalizazioan betetzen duen funtzioa.

Era berean, kontuan izan behar dugu euskara dela gure seme-alabek beraien ikasketa prozesua eraginkortasunez aurrera eramateko duten tresna garrantzitsuena. Eta hizkuntza horren errefortzua bermatzea gurasoen, familiaren eta gizartearen lana izan beharko luke.

Ezinbestekoa da, beraz, batetik, ume zein gurasoen hizkuntza-ohituretan eragiteko bitarteko eta egitasmoak abian jartzea, batez ere guraso mistoetako familietan; eta bestetik, familian euskaraz jarduteko estrategiak lantzea.

Orobat, bigarren sozializazioan ikasitako hizkuntza hori praktikatzeko guneak edo egitasmoak bideratu behar dira, gazteak euskaraz erdaraz bezain ondo moldatzea helburu izango dutenak; izan ere, praktikak erosotasuna dakar eta erosotasunak erabilera.

Harreman-ohituretan eragin beharra

Eskualdeko zerbitzuak aintzat hartuta eta herriko eragile eta elkarte desberdinek bideratzen dutena jakinda, ahalik eta programazio osotu eta orekatuena lortu behar da; beti ere, euskararen normalizazioan pausoak aurrera emanaz eta guztien arteko hizkuntza-ohiturak zeintzuk diren aintzat hartuz.

Guraso-guraso, guraso-ume, ume-guraso, ume-ume, entrenatzaile-ume, hezitzaile-hezitzaile... binomio horien arteko harreman ohituretan eragin beharra dago, norabide guztietako hizkuntza euskara izan dadin, eskola, guraso, jendarte, aisia eta familiaren arteko euskara erabilera sendotzeko bideak eraikitzeko.

Sinergiaz baliabideak optimizatzeaz gain, elkarlanean helburu berari erantzungo dioten egitasmoak gauzatu behar dira, esfortzuak, bitartekoak eta egitasmoak biderkatu barik.

Elkarlanaren garrantzia normalizazio prozesuan

Eskolak horretan guztian berebiziko ardura izango du, ume zein gazteek bertan ematen duten denbora handia delako. Dena den, eskolan egiten den lanak eskolatik kanpo indarra gal ez dezan, arlo guztien parte-hartzea ezinbestekoa izango da normalizazio prozesuan.

Izan ere, ume eta gazteak ez daude isolatuta eta gizarte baten partaide sentitzeko gizarte horretako rolak eta jokaerak bereganatzen dituzte. Horrekin lotuta hizkuntza jarrera instrumentala egongo litzateke. Gizartean integratua izateko garrantzitsua da gizarte horretan erabiltzen den hizkuntzan aritzea, eta ezer gutxi lortuko dugu herrietan euskararen erabilera bermaturik ez dagoen bitartean.

Eredu izatea ere oso faktore garrantzitsua da, batez ere, gurasoen artean. *"...gurasoen ohiturak, hizkuntzarenak barne, erreferentzia nagusi dira beraien seme-alabentzat, eta umeekin egitea baina euren artean edo gurasoen lagun artean berriz euskaldunak izanagatik ere gaztelaniaz jardute, transmititu egiten da."* (Ekai Center, 2014).

Gurasoekin, beraz, lanketa berezia egin beharko dugu, batez ere guraso mistoak dauden familiakoekin. Izan ere, eta diagnostikoan ikusi bezala, horien hizkuntzarekiko jarrerak eta portaerak eragin handia daukate beraien seme-alaben hizkuntza-ohituretan.

Diagnostikoan ikusi dugun legez, ikastetxeetako arduradunak gero eta kezkatuago daude haur eta gazteen euskararen erabilera beherantz doalako. Neurriak jartzen ari dira (hitzaldiak, eusLiderrak programa...), baina, guztion erantzukizuna da horretan eragitea eta beharrezko neurriak jartzea.

Berritzegunea

Eskualdeko Berritzeguneari ere ahalik eta etekin handiena atera ahal izateko bertako helburuak aztertu eta erronka berri honetara egokitu beharko lirateke. Mankomunitateko euskara zerbitzuak ere aldian-aldian bertan parte hartu beharko luke, ikastetxeen errealitatea bertatik bertara ezagutu, udalerrietako gainerako esparruetan lanketa nola zabaldu aztertu eta ikastetxe-herri-eskualdearen arteko koherentzia naturala bideratzeko estrategiak diseinatzeko.

Lanbide Heziketa Zentroa

Lanbide Heziketa Zentroari dagokionez, aurrerapauso handiak eman ditu azken urteetan euskararen normalizazioaren ardura bere gain hartuta. Ikusi dugu ikastaroetan izena ematerakoan euskaldun askok zalantzak eta beldurrak dituztela D ereduan matrikulatzeko orduan. Hor oztopo bat identifikatu dugu, eta horri aurre egiteko lanketa egin beharko da ikasle horiekin, beldurrak neutralizatu, euskararen balio erantsia azpimarratu eta ikastaroa euskaraz gai direla sinesteko.

5.3. Arloen arteko elkarreragina (elkar-elikatzea).

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) dokumentuan honakoa dago jasota:

3.1. Euskararen jabekuntza

Euskararen jabekuntza edo eskuratze-prozesuan hiru esparru bereiz daitezke: familia bidezko transmisioa, alde batetik, euskarazko irakaskuntza, bestetik, eta helduen euskalduntzea edota euskalduntze-alfabetatzea, azkenik. Euskara lehen hizkuntza modura belaunez belaun transmititzen da, baina prozesu horretan eskolak ere zer esan handia du. Horrezaz gain, eskolak euskara bigarren hizkuntza gisa transmititzen du, helduen euskalduntzeak bezala.

3.2. Euskararen erabilera

Euskararen erabilera gehien eragiten duten faktoreak honako hauek dira: hiltunen kopurua, hiltunek euskaraz egiteko duten gaitasuna edo erraztasuna eta aukerak, inguruan harreman sare euskalduna izatea, hots, familian, lagunartean, auzoan, kalean, sarean eta esparru formalagoetan solaskide euskaldunak izatea, eta, azkenik, hizkuntzen arteko oreka eta berdinkidetasun soziala helburu duen kontsentsuak elikatzen duen hizkuntzarekiko atxikimendua.

Beste maila batean bada ere, eragina du, eta ez nolanahikoa, hizkuntzaren bizitasunaz, indarraz edo adierazkortasunaz dugun pertzepzioak; azken batean, hizkuntzak duen egiazko balio funtzional eta sinbolikoaz dugun usteak.

3.3. Euskararen elikadura

Hizkuntza eroso eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, elikatu egin behar da, euskarazko edukien bidez eta horiek sortzen dituzten euskal eragileen bidez (hedabideak, argitaletxeak, ikastetxeak, zientzia-eragileak, etab.). Euskal hiltunak euskaraz behar ditu ereduak eta edukiak, bere hizkuntza jarduna aberasteko.

Ikusten dugun bezala, hiru kontzeptu horietan gizarteko arlo guztiek dute eragina modu batean edo bestean. Horregatik, eskualdean euskara sustatzeko metodologia balore hauetan oinarritzea da nire proposamena: elkarlana, parte-hartzea eta zeharkakotasuna.

Sinergiak baliatu

Arratiaren helburua da gure herrian euskara izatea harremanetarako eta bizitza sozialerako hizkuntza nagusia.

Horregatik eskualdeko euskaldun guztion lana eta erantzukizuna da euskara gure herrietako hizkuntza nagusi bihurtzea. Horretarako euskaraz jakitea ez da aski bizi dadin, berba egin behar da eta egunero dakiguna erabili eta gainerakoak kontzientziatu.

Horretaz gain, ezinbestekoa da bide hori elkarlanean egitea, baliabideak uztartuz eta optimizatuz lana eta horren emaitzak aberatsagoak eta eraginkorragoak direlako.

Horregatik, guztion lanen sinergia bilatze aldera, guztiok bide berari jarraitu behar diogu. Hori da, adibidez, aurretik aipatutako lan-mahai eta elkargune desberdinetan euskara zeharkakotasunean lantzeko proposamena egitearen arrazoietako bat, arlo eta esparru bakoitzak euskararen ardura bere gain hartu ahal izateko (bitartekoen optimizazioa).

Era berean, arlo guztietan helburuen betetze mailaren jarraipena eta eskualdeak duen bisioa erdiesteko gune bakarra izango dugu. Gune horretako partaideak eskualdeko euskara ardura duenak, arlo guztietako ordezkari banak eta euskalgintzakoak izango dira.



Zeharkakotasun bermatu

Demokrazia parte-hartzailearen filosofian oinarrituta, eskualdeko arlo desberdinen arteko ekimenaz gain, behar-beharrezkoa eta ezinbestekoa izango da gizarte-sarea sortzea eta sentsibilizatzea. Elkarlana gauzatzeko, beraz, berba egiteko, hausnartzeko, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko guneak sortu behar dira:

Arlo bakoitzak nork bere gaia lantzeaz gain, taldekideek gainerako gaien ardura bereganatu beharra dute (euskararena adibidez). Horrenbestez, gainerako gaiekin gertatzen den bezala, hizkuntza-politikaren aplikazioaren ardura lantalde guztiena da; euskara zerbitzuarena ez ezik, gainerako arloetakoa ere bai. Lantalde

guztiek eginkizun guzti-guztietan eta gizarte-sarean bakoitzak bere ardurapeko elkarguneetan ezarri egin beharko dituzte gainerako arloetako irizpideak. Hizkuntza-irizpidearen alorrean, hortaz, guztiek izango dute ardura bera.

Hizkuntza zeharka ezartzeko aukera praktikoa emango digu elkarlanean jarduteak. Nahiz eta hasieran euskara zerbitzua lantalde guztietan egon beharko den kideekin batera arloko helburuak zehazteko eta horiek ahalbidetzeko gaitasuna kideek beregana dezaten.

Ahalduntzeko tailerrak

Esan bezala, egindako proposamen honetan elkarlana eta zeharkakotasuna bermatzea izango dira gakoak. Horretarako, lantaldeetan arloetako helburuak bideratzeko lanean arituko direnekin ahalduntze eta motibazio tailer batzuk egin beharko lirateke, euskararen garapena modu integralean txertatzeko eta bakoitzak bere gain euskararen ardura hartzeko lagungarri izango direnak.

Laburbilduz

Esandakoa laburbiltzeko, sinergiak baliatzea gakoa da eraginkortasun eta kaudimen ekonomikoa hobetu ahal izateko.

- Taldeen kohesioa eta lankidetzaren garrantzitsua da oso, dugun helburua komuna lortzeko: Arratia eskualde euskalduna.
- Kudeaketa-eredu bateratua ezartzea: Parte hartzen duten lantaldeek erabilitako prozesuetan eta prozeduretan ahalik eta homogeneotasun handiena lortzea, kudeaketa-eredu aurreratu baten bitartez. Eredu horrek gizarte-eragileekiko konpromisoa izango du, eta herritarrei kalitate handieneko zerbitzua ematea ahalbidetuko du, baita eraginkortasuna hobetzeko aukera emango duten balizko sinergiak hobeto aprobetxatzea ere.

Hori dena gauzatu ahal izateko eskualdean egiten ari garen apustuaren berri eman behar da. Horretarako, komunikazio plan zorrotz bat egon behar da eta zabalkunde eta jarraipenerako baliabideak jarri behar dira.

6. Ondorioak

GAKOAK

Ikusitako guztiarekin argi dago Arratiako hizkuntzaren garapenean aurrera egiteko ordua dela. Astiro-astiro ibili beharra dago, pausoak tentuz eman, zuhur jokatu, baina, beti ere, kontuan izanik aurrerantz joan behar garela, Arratia euskalduna lortuko badugu eta euskaldunon ongizatea eta bizi-kalitatea bermatuko badugu.

Nerabe eta gazteengan jarri behar dugu gure arreta; izan ere, beraiek dira hizkuntzaren jarraipenaren lekukoa hartuko dutenak, beraiek dira etorkizunean erabakiak hartuko dituztenak. Gainera, adin tarte horretan hizkuntza portaera eta erabilerek ohitura sendoenak finkatzen dira.

Nolanahi ere, euskarak ezingo du ziurtatu etorkizuna zenbait gizarte funtzio esanguratsu bereganatzen ez duen bitartean. Horretarako elkarlanean aritzea ezinbestekoa izango da. Izan ere, gizarte funtzio eta zeregin horietarako hizkuntza erabilgarri sentitu behar da, bestela ez da erabiliko. Orobat, hizkuntzarekiko jarrerak ere oso garrantzitsuak izango dira prozesu horretan, Iñigo Fernandez Ostolazak esaten duen bezala (2012) *"Hizkuntzarekiko aktitude positiboak sustatzea da hizkuntzaren etorkizuna ziurtatzeko bide nagusietako bat (Crystal, 2000)"*.

Identitatea modu kontzientean eraiki behar dugu, euskararen markarekin bat joango dena, euskaldun izateko hautu kontzientea egingo duten pertsonak garatuko dituen (Ekai Center 2014).

Garrantzitsua izango da era berean *"Euskararen alde ahaleginak egiteko prest dauden talde sozialak identifikatzea, baita zein baldintzatan, euskarara hurbiltzeko zer egiteko prest dauden ezagutzea ere."* (3.3 ikasgaia). Eta belaunaldien arteko nahasketa eta elkarreragina ere ematea, elkarrengandik ikasi eta euskaraz gozatu ahal izateko.

"Aldaketa prozesu guztiak dira deserosoak, eta hizkuntza berreskurapenari lotuak ez dira salbuespen bat. erraztu egin behar da gizarte kontsentsua prozesuan lagunduz, baina aldi berean progresiboki esparru gehiagotara zabalduko diren minimoak ere ezarri behar dira." (Ekai Center, 2014).

Horretan guztian administrazioak eman beharreko urratsak, duen erantzukizun soziala kontuan hartuta, oso garrantzitsuak izango dira prozesu honetan. Azpiegiturak sortzea eta horiek hornitu eta mantentzea izango da bere lanetako bat. Horrekin batera, eredu izan beharko da bere politketan eta eginbideetan koherentea izanik eta eragiteko duen ahalmena erabilita.

Edonola ere, helburua Arratia euskalduna izatea da. Arlo guztiek bere gain hartu beharreko ardura da beraz. Ezinbestekoa koordinazioa izango da, guztiek batera helburua erdiestea ahalbidetuko du horrek.

Gizarte batean bizi gara eta gizarte horretako esparru guztien artean elkarreragina gakoa izango da, arlo askotan antzemandako zailtasunei aurre egitea ezinezkoa da-eta arlo horretatik bakarrik eragitea, gainerako arloen babesa eta lanketa beharrezkoak ditu eraginkorra izateko.

Datuek bilketa egin beharko dugu aldian-aldian, AMIA berriak osatu eta helburuen jarraipen zehatza bideratu. Hori guztiori arloka eta orokorrean egin beharko dugu, momentuko zailtasunei aurre egiteko estrategia berriak garatzeko.

Guztiok batera heldu beharko diogu erronkari, indarrak batu eta aurrera egin ahal izateko:

"Improving the position of still spoken but sharply receding languages is not a simple matter, and in particular it is not a matter of language policy alone. Even the most supportive-seeming language policies can be ineffective if they are formulated in isolation from other far-reaching social and economic policies that might have contrary effects. In the Irish case, where this has become particularly apparent, Ó Riagáin points to the counterproductive effect on language revitalization of certain policies undertaken in the economic sphere, in regional planning, and in education. These other policies were rarely considered in terms of their impact on language patterns, he notes, yet they may in the end have more effect on those patterns than explicit language policies themselves. (Ó Riagáin 1997, 170-171). (Dorian, 2011: 469).

Arratia euskalduna erdiesteko gakoak diren ekintzak, sakontze egitasmo osoan zehar errepikatuko direnak, zerrendatuko ditugu:

Marka birdefinitu
Koherentzia bermatu
Elkarlana sustatu sareak sortu
euskara integratu
Komunikazioa garatu
transmisioa landu
eraginkortasuna bilatu
Zeharkakotasuna ahalbidetu
eragin ahalmena erabili
Sinergiak eta aukerak (legeak) baliatu
euskararen gunea sortu
Koordinazioa areagotu

Arratiako garapen sozioekonomikoa dugu helburu, garapen ekonomikoaz gain garapen soziala ere badena. Gizarteko elementu asko hartu behar dira kontuan eta hizkuntza gizarteko indar kohesionatzaile garrantzitsuenetako bat da. Beraz, zilegi da garapen sozioekonomikoaz ari garenean hizkuntzaren garapenaz ere jardutea eta biak batera garatzeko bideak proposatzea.

***"Etorkizuneko utopiak
gaur landu beharreko errealitateak dira."*¹¹**

¹¹ 4.1. ikasgaia, *Plangintzaren funtsa teoriko eta teknikoak*. I. Marko.

7. Bibliografia

Amorrortu, E., Ortega, A (2015). 3.3. *Erdaldunen euskararekiko jarrerak*. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Arrieta, A., Fernandez, I. (Garai, E.-k moldatua) (2015). 1.6. *Komunikazioa euskara sustatzeko*. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.

BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 95, 2015: *Lurraldearen eta hizkuntzaren arteko loturak*. Artikuluak: G. Arana, M. Belastegi, I. Esnaola, Z. Etxeburua, U. Fernandez de Betoño, I. Iurrebaso, M. Mujika, I. Olaizola, I. Urrutia eta A. Zelaia.

BAT Soziolinguistika Aldizkaria, Dosierra, 2012: *Hizkuntza gutxituen eraginkortasuna pertsuasio prozesuetan*. Euskararen kasua EAEn. Iñigo Fernandez.

Dorian, Nancy C. (2011). The Ambiguous Arithmetic of Language Maintenance and Revitalization. In Joshua A. Fishman & Ofelia García (Eds.): *Handbook of language and ethnic identity. The success-failure continuum in language and ethnic identity efforts* (Vol. 2). Oxford. Oxford University Press (461-471).

Ekai Center (2014). *Herritartasunaren eta lurraldearen hiru ikuspegi: Toki garapena, herritarren parte hartzea eta euskararen berreskurapena*. Arrasate. Ekai Center Fundazioa.

EMUN Koop E (2009). 5.3.1. *Euskara normalizatzeko oinarrien gida (eranskina)*. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.

EMUN Koop E (2015), 5.3.1 *Lan munduan euskara bultzatzeko planak*. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Erize, X. (2015). 4.4. *Management eta hizkuntza plangintza*. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Euskararen Aholku Batzordea, Eusko Jaurlaritza (2004). *Ikastetxeetan euskararen erabilera indartzeko planak EBPN udal-ereduekin uztartzea*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Euskararen Transmisioa Mintegia (2016), ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Hizlariak: Xabi Aizpurua, Jon Maia, Estitxu Garai, Aitziber Gurutzeaga, Elizabeth Lema, Juani Iriondo, Deñe Zabalo.

Gonzalez, N. (2015). 6.3. *Hizkuntzazko jokaeraren aldaketa prozesua. Teoria eta praktika*. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Hizpide, 82, (2014): eusLiderrak. Hizkuntza-portaera berriak sortzeko tailerra: Iratxe Garmendia, Mikel Urdangarin.

Hegoa Institutuaren (UPV/EHU) Garapen eta Lankidetzako Politikei buruzko Ikerketa Taldea (2015). *Garapenerako Politiken Koherentzia Euskadin: diagnostikoa eta proposamenak*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Kaltzada, P. (2010). *Komunikatu: nork-nori-nor*. EHU Udako ikastaroak. Donostia. 2010-06-22/23.

Marko, J.I. (2015). 4.1. *Plangintzaren funtsa teoriko eta teknikoak*. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Martínez de Luna, I. (2014). 2. *Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak*. Oinarrizko Soziolinguistika ikastaroa. Donostia-San Sebastian. Asmoz Fundazioa.

Sareko iturriak

www.arantzazukoudala.com

www.areatza.net

www.arratia.net

www.artea-udala.org

www.baieuskarari.eus

www.bedia.biz

www.begitu.org

www.bizkaia.eus

www.dima-udala.org

www.emangiltza.eus

www.erabili.eus

www.eu.wikipedia.org

www.eudel.eus

www.euskadi.eus

www.euskalit.net/bikain/eus/bikain.php

www.eustat.eus

www.errota.eus

www.garapen.net

www.gorbeialdea.com

www.guraso.com

www.igorre.net

www.jakinbai.eus

www.lanbide.euskadi.eus

www.lemoa.net

www.orkestra.deusto.es/eu/

www.soziolinguistika.eus

www.sustatu.eus

www.uema.eus

www.zeanuri-udala.org

www.zulaibar.org

Cooperación española (d. g.). Kontsulta: <http://coopesp.e-presentaciones.net/eu/politiken-koherentzia>

Euskararen Aholku Batzordea, Eusko Jaurlaritza (d. g.). *ESEP, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana*. Kontsulta: [http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/esep_sarrera/eu_esep/adjuntos/Euskara%20Sustatzeko%20Ekintza%20Plana%20\(ESEP\).pdf](http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/esep_sarrera/eu_esep/adjuntos/Euskara%20Sustatzeko%20Ekintza%20Plana%20(ESEP).pdf)

HPS (2015). Kontsulta: <http://sustatu.eus/1444921213>

Larrabe, A. (2016). Tokiko garapena, tokikoekin. Bizkaiko Hitza. Kontsulta: <http://bizkaia.hitza.eus/2016/01/22/tokiko-garapena-tokikoekin/>

Sei Kultur Elkartea (2001). Igorreko Kale Erabilera Neurketa. Kontsulta: <http://www.igorre.net/eu-ES/Zerbitzuak/Euskara/Realidad%20sociolinguistica/2001eko%20kale%20neurketa.pdf>

Soziolinguistika Klusterra (2006). Igorreko Euskararen Kale Erabileraren Neurketa. Kontsulta: <http://www.igorre.net/eu-ES/Zerbitzuak/Euskara/Realidad%20sociolinguistica/13-TXOSTENAIgorre2006.pdf>

Soziolinguistika Klusterra (2011). Igorreko Hizkuntza-Erabileraren Kale-Neurketa, 2011-Emailtzen txostena-: Kontsulta: http://www.igorre.net/eu-ES/Zerbitzuak/Euskara/Realidad%20sociolinguistica/2011_Igorreko_txostena.pdf

Legeak

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua

Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea

1986ko ekainaren 26ko 82/1986 Epaia

Konstituzio Auzitegiaren abuztuaren 5eko 76/1983 Epaia

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 8/1989 Legea

Euskal Autonomia Erkidegoko apirilaren 15eko 89/1997 Dekretua

Gobernu Kontseiluaren 2006ko otsailaren 28ko Erabakia

2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Eusko Legebiltzarra

Berritzeguneen egitura, antolaketa eta funtzionamendua arautzeko otsailaren 17ko 40/2009 Dekretua



2030

***"Etorkizuneko utopiak
gaur landu beharreko errealitateak dira."***